- Gazteak:
Lehen saria: “Amonari”. Ixiar Altuna.

Bigarren saria: “Kazetaritzaz”. Aitor Servier Etxetxuri.
 Hirugarren saria: “Herri bat zuzenean”. Aitor Servier Etxetxuri.

- Gaztetxoak (13 urtera artekoak):
 Gaia: “Barazkiak jatea osasuntsua omen da”
 Lehen saria: Miren Goikoetxea
 Bigarren saria: Maide Garmendia
 Hirugarren saria: Itsaso Aizpurua

Loramendi Literatura Lehiaketa (24. 2013. Aretxabaleta)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/loramendi-literatura-lehiaketa-24.-2013.-aretxabaleta>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Aretxabaleta

Antolatzailea: Loramendi Euskara Elkarte, Aretxabaletako Udala

Saridunak:

- LH3-4 maila:
 1.-Aner Gejane
 2.-Amets Eraña
- LH5-6 maila:
 1.-Alaitz Mujika
 2.-Ane Etxabe

Nire Gorputza, Nire Erabakia. Bizkaia (1. 2013)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/nire-gorputza-nire-erabakia.-bizkaia-1.-2013>

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Bizkaia

Antolatzailea: Medicus Mundi. Bizkaia

Saridunak:

Gazteen Mailan. 1. saria: Izaskun Manero. “Pituxa”
 Helduen Mailan. 1. saria: Mara Gallastegui eta Oier Aizpurua. “Garena”

Nire Gorputza, Nire Sexualitatea (2. 2013. Getxo)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/nire-gorputza-nire-sexualitatea-2.-2013.-getxo>

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Getxo

Antolatzailea: Medicus Mundi

Saridunak:

- Gazteen mailan:
 1. saria: Maider Barañano
 2. saria: Iratxe Oloizola
 3. saria: Maddalen Ruesgas
- Helduen mailan:
 1. saria: Ekaitza Larrazabal “Katxo”
 2. saria: Daniel de Miguel
 3. saria: Aitor Fernández de Marticorena

Okelar Saria (29. 2013. Mutriku)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/okelar-saria-29.-2013.-mutriku>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Mutrikuko Bertso-Eskola (Goizeko Izarra)

Sariduna:

- Gaztetxoen mailan:
 1. Saria + Txapela: Irati irizar, “Bertso eskolara ostiralero”
 2. Saria: Peru Ulazia, “Bertsolaritza munduan aurrian”
 3. Saria: Micaela Bias, “Gabonak”
- Helduen mailan:

Mutrikuarrik onena: Iñigo Arrizabalaga, “Laneko kontuak”

 2. Saria: Julian Albistur, “Azaroak 25”
 1. Saria + Txapela: Mikel Arrillaga, “Berrogei urte”

Pello Mari Otaño Bertsopaper Lehiaketa (1. 2013. Zizurkil)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/pello-mari-otao-bertsopaper-lehiaketa-1.-2013.-zizurkil>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria eta diaspora

Antolatzailea: Teodoro Hernandorena Kultur Elkarte

Saridunak:

- Gazteen maila:
 1. Saria: “Bar Ana” - Maialen Akizu
 2. Saria: “Larunbat goizez” - Jon Gurrutxaga
- Helduen maila:
 1. Saria: “Vanessa” - Nikolas Zendoia
 2. Saria: “C’est moi” - Aitor Albistur

Aipamen berezia: “Pedro Mari Otaño gogoratuz” - Julian Albistur
- Diaspora maila:
 1. Saria: “Pedro Mari Otañoren omenezko bertsoak” - Todor Azurza Sorrondegui (Venezuela / Paris)
 2. Saria: Epaimahaiak hutsik uztea erabaki du.

San Andres Bertsopaper Lehiaketa (19. 2013. Eibar)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/san-andres-bertso-paper-lehiaketa-19.-2013.-eibar>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria, Eibar

Antolatzailea: Eta Kitto! Euskara Elkarte

Saridunak:

- Nagusien mailan:
 1. saria: Jon Martin
 2. saria: Julian Albistur
- 16 urtetik beherakoen mailan:
 1. saria: Paul Agirre
 2. saria: Jule Gisasola

San Antontxu Bertso-paper Lehiaketa (15. 2013. Mungia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkako/view/san-antontxu-bertso-paper-lehiaketa-15.-2013.-mungia>

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Mungiako Bertso-Eskola (Taket)

Saridunak:

- Gazteak
 1. “Urteak”. (Manex Otsoa) Aitor Servier Etchechuri. (Azkain)
 2. “Oso ondo bizi gara” (Facundo). Maialen Akizu Bidegain (Urretxu)
 3. “Metamorfosia” (Aska). Paule Ixiar Loizaga Legarra (Sopela)Aipamenak (Mungialdekoak):
 - Naroa Torralba (Gamiz)
 - Olaia Cancelo Mardaras (Gatika)
 - Iratí Reichenbergen (Arrieta)
 - Kiera Henderson (Arrieta)
 - Ainhoa Gorostiaga Urkizu (Gamiz)
- Helduak
 1. “Zuri”. (Ene) Aitor Albistur (Erretereria-Orereta)
 2. “EGB” (XX) Unai Ormaetxea (Zornotza)
 3. “Beste norbaiten ohetik” (Pertsona) Nerea Ibarzabal (Markina-Xemein)Aipamen berezia: Deunoro Sardui (Muxika)
Aipamenak (Mungialdekoak):
 - Aitor Esteban (Urduliz)
 - Erlantz Astorkiza (Mungia)
 - Maitane Jaio (Mungia)
 - Aimar Larrazabal (Jatabe)

San Telmo Literatur Saria (30. 2013. Zumaia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/san-telmo-literatur-saria-30.-2013.-zumaia>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Zumaia

Antolatzailea:

Sariduna:

- L.H 3. maila: Julen Perez Bidasoro “Osaba Xabier”
- L.H 4 maila: Peru Manterola Zaitegi “Birziklatzea”
- L.H 5. maila: Ainhoa Larrañaga Uranga “Ipuin bat idazten”
- L.H 6. maila: Laura Iparragirre Uria “Bizitza”
- DBH 1. maila: Esther Eizagirre Petxarroman “Maitasuna”
- DBH 2. maila: Pello Etxabe Arregi “Maitatzen dugu hizkuntza”
- DBH 3. maila: Ekaitz Olaizola Egaña “Axkoin baserria”
- DBH 4. maila: Eneritz Etxabe Salaberria “Gaur”
- Batxilergoa 1: Jone Urbietta Osa “Eguneroko gudua”

Santixabel Bertso-paper Lehiaketa (37. 2013. Usurbil)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/santixabel-bertso-paper-lehiaketa-37.-2013.-usurbil>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Usurbil

Antolatzailea:

Saridunak:

- 1- Asier Azpiroz
- 2- Xabier Aranburu
- 3- Jon Aizpurua

Txiotu Kopla Bat! Lehiaketa (1. 2013. Zumaia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkako/view/txiotu-kopla-bat-lehiaketa-1.-2013.-zumaia>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Zumaiaiko Bertso-Eskola

Sariduna: Pello Etxaniz

Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko Bertso-paper Lehiaketa (26. 2013. Urretxu-Zumarraga)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkako/view/urretxu-eta-zumarragako-eskolarteko-bertso-paper-lehiaketa-26.-2013.-urretxu-zumarraga>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urretxu-Zumarraga

Antolatzailea: Zumarraga-Urretxuko Bertso-Eskola

Sariduna:

- Maila (LHko 5. eta 6. mailak):
 1. Aitor Emparantza Etxaniz
 2. Julen Estonba Loinaz
 3. Ainhoa Unanue Bereziartu
- B maila (DBHko 1. eta 2. mailak):
 1. Jokin Gabilondo Garmendia
 2. Sara Bidarte Begiristain
 3. Miren Fernandez Godoy
- D maila (DBHko 3. eta 4. mailak):
 1. Leire Akizu Bidegain

WhatsApp bidezko kopla txapelketa (1. 2013)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/whatsapp-bidezko-kopla-txapelketa-1.-2013>

Kokapena: Euskal Herria

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Euskadi Irratia

Sariduna: Andoni Azpillaga

Xabier Munibe Bertsopaper Lehiaketa (22. 2013. Azkoitia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkakoa/view/xabier-munibe-bertsopaper-lehiaketa-22.-2013.-azkoitia>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urola Kosta

Antolatzailea: Indarlan Guraso Elkarte (Azkoitia)

Sariduna:

- Azkoitiko onena: Jone Zabaleta: “Etxe kaleratzea”
- 14-16 urte:
 - 1- Jon Izagirre: “XX. mendean Espainian”
 - 2- Ane Beloki: “Festak iritsi zaizkigu eta...”
 - 3- Oier Etxeberria: “Teknologia berriak”
 - 4- Aitor Servier: “Ni izotz”
- 12-14 urte:
 - 1- Libe Urzelai eta Garazi Legarda-Ereño: “Azkotia”
 - 2- Gorka Osa eta Julen Aldalur: “Kirolen asmakizunak”
 - 3- Nagore Orbea: “Euskal Herria”
 - 4- Maddi Olariaga eta Leire Gabilondo: “Nire txakur Zai”

Zapirain Anaiak Bertso-paper Lehiaketa (25. 2013. Erreenteria)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.com/web/aldizkako/view/zapirain-anaiak-bertso-paper-lehiaketa-25.-2013.-erreenteria>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Erreenteriako Bertso-Eskola (Xenpelar), Lau Haizetara Elkarte

Sariduna:

1. saria: Aitor Albistur. “Parkean”
2. saria: Eman gabe utzi da



Bertso-udalekuak (2013. Orio). 2013-07-10 Orio

(Orio. 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. XDZ

BAT-BATEKO BERTSO HAUTATUAK

AMURRIO (2013-01-04)

Bertsolariak: J. Maia, M. Lujanbio, A. Mendiluze, A. Egaña, A. Arzallus, S. Colina, U. Iturriaga eta A. Sarriegi.

Gai-emailea: Naroa Sasieta.

Urte hasieran jaialdia antolatzen dute Amurrion, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finalistekin. Antzokia entzulez betetzen da, eta giro polita sortu ohi da bertsoarako.

U. Iturriaga 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13a8u8>

Gaia: Atxilotua izatea baino ezkutatuta bizi izatea nahiago duela esan du.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas I*

Oraintsu gertatua da hori
 neu ere egon naiz adi
 sei urte dira kondena eta
 arrazoia dago argi.
 Lehenago entzun diot tabernan
 batari ta besteari
 “Sei urteगतिक zertako baina
 izkutaketetan ari?”
 Aspaldi hontan errespetua
 galdu zaio kartzelari.

Kondena batzuk dira hain luze
ja ezin garela harritu
batzuk diote “Sei urte dira
beraz ze ba ez kunplitu?”.
Gazteak dira borrokalari
hori al dute delitu?
Ezkutatzea erabaki ta
nik behar dut ametitu
kartzelarako motibo berak
ezkutarazi baititu.

Ez dira lehenak hori bistan da
lehenago da iragarri
Samaniegotaz¹ gogoratzen naiz
Martinetaz² ere sarri.
Ezkutaketa horren atzean
badaude mila aldarri
gizarte sedatu honentzako
izan nahi dute zedarri
ta ezkutatze horrek egingo
dituela ikusgarri.

1 Ekaitz Samaniego.

2 Aurora Martin.

OÑATI (2013-01-05)

Bertsolariak: M. Lujanbio, U. Iturriaga, A. Arzallus, A. Egaña, A. Mendiluze eta J. Soto.

Gai-emailea: Mirari Sagarzazu.

Errege egunaren bezperan urteroko hitzordua izaten dute bertsolariek Oñatin. Ohi bezala, Zubikoa kiroldegian izan zen, gaueko hamar eta erdietan, eta bostehun lagunetik gora elkartu ziren.

M. Lujanbio-A. Mendiluze 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13aa0k>

Gaia: Zuek lehen, garai batean, elkarri gutun erromantikoak idazten zenizkieten. Gaur, hor zaudete sofako punta banatan, elkarri *whatsapp*ak bidaltzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

M. Lujanbio

Urruti xamar baina
ezkonduta legez
beti elkarri zipotz
elkarri haserrez.
Zure *whatsapp*ak jaso
nahiago det berez:
tonurik ez dute eta
keinurik ere ez.

A. Mendiluze

Lehen gutunak perfumez
perfumatu zale
elkarri bidaliak
majina bat ale!
Uain *whatsapp* mezuekin
dale eta dale!
Esateko askorik
ez dugun sinale.

M. Lujanbio

Hitzik ezin gurutza
zuzen ta muxu-truk
ze esanik ba al degu?
Igual kontun batzuk.
Maitasun ikur gisa
har zenezake zuk
sateliteraino ta
buelta maite zaitut.

A. Mendiluze

Lehen nahiago genuen
ondora esana
orain komunikatu
zeruetan barna.
Zer da satelitera
ta bueltan doana
biok baldin bagera
satelite bana?

M. Lujanbio

Ta orbitan urruntzen
distantzia haundiz
garai baten geundenak
hurbiltzeko premiz
elkarri ez diogu
ia egiten hitz
ta mezurik ere ez
debalde ez balitz.

A. Mendiluze

Beraz debaldekoak
gustatzen zaizkizu
beste zerbait komeni
zaigula adizu:
berriz ere agian
idazten ari zu
arkatza ta papera
emango banizu.

M. Lujanbio

Arkatza ta papera
alde alde alde!
Hori nekoso da
nahiz izan debalde.
Hola modako gabiltz
dudarikan gabe
maiteminduta ez baina
konektauta gaude.

A. Mendiluze

Laister konexio hau
baietz eten guri!
Sofan alde banatan
larri ta urduri...
“Bi plazakoa erosi
nahikoak ditu bi”
eta orain sei plaza
dauzkala dirudi.



*Bertso-udalekuak (2013. Zuhatza). 2013-08-29 Zuhatza
(Zuhatza, 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. XDZ*

OIARTZUN (2013-01-06)

Bertsolariak: J. Soto, A. Arzallus, J. Maia, M. Lujanbio, I. Elortzak, O. Barroso, Xamoa eta A. Egaña.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Ettxerat Elkartek urtero antolatzen duen saioa. Ohi bezala, Elorsoro kiroldegian izan zen, igande arratsaldean, eta zortziehun lagunetik gora elkartu ziren.

I. Elortza-J. Maia 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ab30>

Gaia: Ez nago seguru, baina uste dut hamasei bat urte direla Etxeratek saio hau antolatzen duela. Kasik izango ziren 250 agurretik gora, 1.800 bertsotik gora, eta ohartu naiz gehienetan errimatu dituzuela preso, senide, lagun, besarkada, muxu...

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

J. Maia

Hamasei urte izango dira
edo gehiago agian
ximur berriak irtengo ziren
gutakoen aurpegian.
Hitza berriro errepikatuz
plaza haundi honen erdian
gure hizkuntza eraiki degu
borrokaren hiztegian.

I. Elortza

Elkartasuna ta besarkada
senideak ta herria
hitz hoiien bueltan eman dugu guk
gure ibilbide erdia
baina kontzeptu berri asmatzen
zertan bota izerdia?
Hutsunea ere egunero da
zaharra baina berria.

J. Maia

Gure errima jarri ohi dugu
kartzelan edo juezan
nahiz eta beti etortzen geran
ez gatoz inoiz perezan
ta hitzak ez dira inoiz gastatzen
errepikaren lainezan
indar berria hartzen baitute
zenbat ta gehiago esan.

I. Elortza

Bertsolariak beti behar du
sentimendu ta zentzumen
hamasei urte ziren berberak
igual bota ditugu lehen.
Badakizue bertsolariak
presoa nola maite duen
guk badakigu dakizuela
berriz esan nahi genuen.

J. Maia

Bertso barruan agertzen dira
 sentimentu eta kate
 beste hainbat aldiz esan ditugu
 “Aurrera” eta “Jo ta ke”
 ta zenbat aldiz “Ongi etorri”
 zenbat aldiz etortzeke!
 Laister kantatu behar ditugu
 “Gurekin” eta “Zaudete”.

I. Elortza

Bertsoak ahalik baldin baleuka
 denak hona ekartzeko
 gaur premiarik ez luke inork
 Elorsorora sartzeko.
 Biok gogoia badugu noski
 hitz berritan ausartzeko
 bada garaia herri zahar honi
 bertso berriak jartzeko!

M. Lujanbio-J. Soto

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ac5c>

Gaia: Atzo Donostian zineten biok, paseoan. Kaleak jendez lepo zeuden: kabalgata. Hor, kale kantoitik zindoaztela ikusi dituzue ume batzuk pozik, irribarretsu. Halako batean, bazen hor bat, izkinan, eskean. Ume bat geratu zaio, eskuan zituen goxoki guztiak hartu, eta poltsara bota dizkio.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

M. Lujanbio

Umeentzako nahiko motibo
izaten da poz hartzeko
ta itsu-itsuan eskale baten
aurretikan pasatzeko.
Borondatea batek izan du
haren poltsa osatzeko
baina ez dakit aski izango dan
mikatx dena gozatzeko.

J. Soto

Txapel beltz bat du buru gainean
“Emaidazu arren, arren!”
eta ume bat dozena erdi
goxo zakuan zekarren.
Gaurko umea hartu ta hartu
eta bizi da pozarren
baino ematen ere badaki
guri ez iruditu arren.

M. Lujanbio

Hiru errege, karroza, oihu
serpentina, bozkario...
ta ertz batean postal txiki hau
une baten ilusio
ta zeinek esan karameluak
ez dula asko balio
baldin ta ume txikitxo horrek
zeukana eman badio.

J. Soto

Auskalo zer gauz nahiko lituzkeen
 eskean dagon gizonak
 izan daitezke ogi barra bat
 Eroskiko *Don Simon*ak.
 Nahiz dirurik ez duen jaso ze
 goxoki goxoak, onak!
 Umeak hala izaten dira
 gazinak eta goxonak.

M. Lujanbio

Gabonetan ze bihurtzen geran
 ez det sinisten oraino
 zenbat erruki zenbat maitasun
 hitz gozotan zenbat “Baino...”.
 Postaltxo horri orain errukiz
 beirutzen diou baina ño
 sarri gure hitzak faltsuagoak
 Meltxorren bizarra baino!

J. Soto

Guk eskale bat ikusten dugu
 ta ez zaigu barrurik nahasi
 ez ikusiana egiten dugu
 hortan hezi hortan hazi.
 Zeozergatik esaten dute
 sinistuta nago kasi
 heldu garenok badaukagula
 umeengandik zer ikasi.

GETARIA (2013-01-18)

*Bertsolariak: J. Uria, J. Soto, M. Lujanbio, A. Estiballes
eta A. Arzallus.*

Gai-emailea: Amaia Agirre.

San Anton jaietan urtero antolatzen duten saioa. Aurten, frontoiko karpan egin beharrean Balentziaga museoko sarrera prestatu zuten emanaldirako. Laurehun lagun inguru elkartu ziren bertsoak entzutera. Kanpoan eguraldi traketsa, barruan giro goxoa eta ona bertsotarako.

M. Lujanbio-A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ad70>

Gaia: Bikote gazte bat zarete, guraso izan berriak. Zuen ume txikiarekin ezinean zabiltzate: ez dizue bularra nahi bezala hartzen, lo ere maiz baina gutxi egiten dizue, eta aldiro negar batean dabilkizue; ez dakizue umea nola lokartu eta nola isilik mantendu. Ea honek laguntzen dizuen.³

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

³ Bideo bat jarri dute. Emakumezko bat ageri da haur jaioberria bainatzen; goxogoxo laztantzen du iturriko urarekin, eta amaren sabelean izan ohi duten posturan jartzen du.

M. Lujanbio

Eskua belarrian
 jarri ta gero ken
 uretan zenbat buelta
 eman dizkioten!
 Gureak ez daki hain
 isilik egoten
 haur horri bolumena
 kenduko zioten.

A. Arzallus

Metodoa ona den
 hemen nork antzeman?
 Hor zebiltzan igurtziz
 urarekin deman
 baina gurea beti
 negarrez ta teman
 horri kentzen diote
 eta guri eman.

M. Lujanbio

Kaka're egiten du
 kentzean pardela
 lotarakoan oihu
 zoroak bezela
 bainatzean putzu bat
 bihurtzen da gela
 pentsa itotzea're
 pentsatu detela!

A. Arzallus

Neuri ere odola
erre ta irakin
honekin nola asmatu
ezin degu jakin
ura bota ta bota
ta ezin lo egin
probatuko al degu
txakolinarekin?

M. Lujanbio

Haurra jaio zanean
denak ongi etorri
denak lore ta irri
ta bisitan korri.
Bideoa're ze pake
ta ze muxu-gorri!
Manipulazioa
deitzen zaio horri.

A. Arzallus

Nik ere ez det hoi
gezurretik jaten
mutil txikia sortu
zan ta egun baten
denek “Zure antza du
didate esaten”
ez dakite ondo ze min
ematen didaten!

M. Lujanbio

Zu bezela jartzen da
 nerbioso, urduri
 hanka ta eskuk moitu
 ta begiak zuri
 eta pentsatzen aitzen
 dala're dirudi...
 Bi inuzente hauek
 tokau behar neri!

A. Arzallus

Eta saiatzen gera
 paketeak jantziz
 eta estomagoa
 tarteka igurtziz.
 “Bi inuzente hauek”
 bere barruan hitz
 berdina uste det nik
 baino alderantziz.

M. Lujanbio

Dena preokupazio
 eta dena kezka
 hauxe da gurea ta
 oain ezin ordezkia
 edozer egiteko
 hemen paper festa
 ta guraso izateko
 examinik ez da.

A. Arzallus

Lehenbizi enfokatu
gertutik ta prestu
kanila zabaldu ta
hautxoa babestu
lau minutu bideo
dituzte erreztu
bideo hori egin dunak
umerikan ez du.

A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13aea4>

Gaia: Amets, hamasei urteko txirrindularia zaitugu. Askoren ahotan, etorkizunean zure izena urrezko orrialdeetan ikus daiteke. Gogor ari zara entrenatzen; ilusio eta motibazio handiak dituzu jarrita egiten ari zaren horretan. Gaur, ordea, Lance Amstrong-en elkarrizketa irakurtzen ari zarela, zer pentsa jarri zara.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Entrenamentu latzak eginez
sufrimenduaren mugan
mendiku batek esan zidan behin
“Bada gaitasuna zugan”.
Neguan gogor saiatu ohi naiz
irabazi ohi dut udan
baina hamasei urte beteta
oraintxe jarri naiz dudan
gezurretazko zeru batean
izar bat izan nahi dudan. (bis)

Nahitaezkoa omen du batek
 dopin pixka'ten laguntza
 ura edanda ezin omen da
 igo mendian goruntza.
 Pentsa dezadan noizbait nigana
 baletor poltsekin kutxa
 ze esango nuke baietz edo ezetz?
 Nere zalantzaren funtsa
 eta ez al da nahiko tristea
 zalantza egite hutsa? (bis)

Gero aitortu nezake baina
 izan liteke berandu
 esango dute "Idolo horrek
 edozein pastilla jan du".
 Ezin ote dut ziklista izan
 eta jokatu ondradu?
 Ahal baldin bada bide garbi bat
 hartuko dut neure kargu
 zeren gezur hau desmontatzeko
 norbaitek hasi behar du? (bis)



Bertsolari Txapelketa Nagusia (16. 2013) Finala

[Gari Garaialderen argazkia]. (Barakaldo. 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. XDZ

MUNGIA (2013-01-20)

Bertsolariak: I. Elorza, U. Iturriaga, X. Paya eta A. Estiballes

Gai-emailea: Iñaki Beitia “Arbildu”.

Sanantontxutan urtero izaten den jaialdia, Taket bertso eskolak antolatua. Eguerdian izan zen, karpan. Jende multzo polita elkartu zen bertsolariak entzutera.

X. Paya-A. Estiballes

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13afcg>

Gaia: Zuek biok gaur Mungiara heldu zaretenean, pintada hau ikusi duzue horma batean: “*Gastos policiales para escuelas y hospitales*”.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

X. Paya

Mungira heldu ta pintadagaz
lotu gara harriturik
gastua aldatu behar ei dala
argi dino beste barik
ta egia esan horrek ez dauka
Arkaitz arrazoi faltarik
ondo hezia dan gizartean
ez baitago deliturik.

A. Estiballes

Aspaldi hontan krisiak gogor
 jotzen gaitu ttiki-ttaka
 ta poliziak ugari daude
 hau sartu besteai saka
 guardia zibilak ta nazionalak
 edo Ertzaintza aparta
 hamabi mila polizi daude
 eta medikuak falta.

X. Paya

Hartu dagigun horko kuartela
 adibide baterako
 nahiz ta ez diran euren zulotik
 horrek erraz aterako
 hortxe hainbeste dagoz sartuta
 gertu esateko “Alto!”.
 Leku ederra ez al da hori
 ikastola baterako?

A. Estiballes

Hezkuntza eta osasunean
 zenbat partxe ta adabaki!
 Dirua zertan gastatu behar den
 zeinek ote du erabaki?
 Errektore bat ere hortxe dago
 ta berak ondo badaki:
 presupuestoa zenbat murriztu
 dizute aurten Iñaki?⁴

4 Iñaki Goirizelaia, EHUKo errektorea.

X. Paya

Azken bertsoa osterar Arkaitz
kantaiko dot horren kontra
Euskal Herria berez dalako
geuretzat gaur herri mota
baina penintsula osoa hartuta
desbardina da erronka:
han polizia asko behar dabe
korrupto asko dago ta.

A. Estiballes

Poliziaren alde hasi da
ministro baten antzeko
ikusien ezker bizkar zabala
ia badauzka bi metro
gorputza dauka sendo-sendoa
ta jarreraz beti terko...
Xabi pentsatzen ote zabiltza
zeu're polisi sartzeko?

X. Paya

Nahiz eta erraz emon neiken nik
maderorako nibela
ez jat gustatu ez on ez txarra
poliziaren papela.
Zer nabil hemen Espainiagaz?
Hau hanka-sartze itzela!
Ebrora bota kokodriloak
ta konpondu daitezela!

A. Estiballes

Dударик gabe sartu zaitezke
 Xabi lasai Ertzaintzara.
 Frantsesa daki inglesa daki
 gaztelania, euskara
 ta alemana eta griegoa
 ikasten dau beharbada
 polizi izan nahi luke baina
 inteligenteegia da.

X. Paya 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ages>

Gaia: Mungia ei da Europa osoan zerotik lau urtera bitarteko umerik
 gehien daukan herria, proportzioan.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Iratitxo ze dekozu?
 Ene sortu jatzu duda
 zelan ta noz jaio zinen
 zalantza zeugan sortu da.
 Ama ta biok joan ginen
 domekan Sanantontxura
 ta bertso saio ostean
 begitu gendun zerura
 euria bota ahala eta
 goian-behean dana ura
 besterik ez eta sartu
 ginan gu kotxe barrura
 farmazia itxita ta
 musu batzuk emon gura...
 Zu hurrengo irailean
 etorri zinen mundura.

Eta horrela bete da
herriko haurtzaindegia
besterik ezin egin ta
alegria-alegria!
Edo beste batzuentzat
kondoiaren alergia
kontua da bete dala
sortu dala komeria.
Zuek ondo hezi eizue
ume eta gazteria
soilik bete dagiela
bihotzaren legedia
eta egin dagiela
gizarte barri handia
eurek hobetu dagien
bihar-etzik Mungia.



Bertsolari Txapelketa Nagusia (16. 2013)

[Gari Garaialderen argazkia]. (Villabona. 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, XDZ

DONOSTIA (2013-01-26)

Bertsolariak: B. Gaztelumendi, E. Lekue, I. Elortza, M. Lujanbio, J. Maia, J. Uria, U. Alberdi, A. Egaña, E. Lazkoz, R. Crhisti, J.M. Irazu eta A. Solozabal.

Gai-emailea: Ahots anonimo bat.

B. Gaztelumendi-E. Lekue 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ahh8>

Gaia: Bikote gazte batzuek eta haien lagunek krisiaren hasiera antzeztu dute. Oso zoriontsu bizi dira, euren hurrekin paseoa, hara eta hona joanez, argazkiak ateraz, eta bat-batean dena jausten da.⁵

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

B. Gaztelumendi

Arratsalde on harritutako
mila bostehun begirada
bertsolariak eskalatzaile
ere bilakatu gara.
Hemen arnesik gabe
baina arnasa bare
bota diogu fatxada.
Ongi etorri erortzen ari
den mundu zahar honetara. (bis)

⁵ Aldamio baten gainetik kantatu dute Beñatek eta Etxahunek.

E. Lekue

Ondo etorri bai dana txarretik
txarrera doan mundura
sasoi bateko mundu eder hura
han lekutan geratu da.
Egoera larria
ez da aldiz berria
nahiz guk ikusi ez gura
lehen izkutuan egoan hura
orain bistan geratu da. (bis)

B. Gaztelumendi

Ezkutukoa bistan geratu
zaigu hamaika arlotan
baina ez galdu galdera estu
ta erantzun potolotan.
Guri aukera gutxi
digute-eta utzi
hemen egoteko lotan
mundua ere hauxe delako
aldamio bat kolokan. (bis)

E. Lekue

Isil-isilik daroa hemen
nork beraren gurutzea
batuta baino ez da lortuko
egoera hau iraultzea.
Badakigu jakina
zein dogun zeregina
pasako bada trantzea
goitik behera erori dena
behetik gora altxatzea. (bis)

B. Gaztelumendi

Akabo mundu AHTduna
 eta faraonikoa
 tren, auto, zubi porlanez eta
 billetez eginikoa.
 Zenbat jende INEMen
 ta gu kantari hemen
 hau da une zinikoa.
 Mundu haundi bat sortu dezagun
 txikieneen neurrikoa. (bis)

E. Lekue

Nor ez da abailtzen eguerdian
 albistegia ikusita
 zein Lanbideko fila luzera
 egin ezkerre bisita?
 Nork beraren buruan
 albokoan moduan
 badugu nahiko krisi-ta
 apaltasunez joka dezagun
 geure lainotik jeitsita. (bis)

J.M. Irazu-E. Lazkoz 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13aijk>

Gaia: Aulkia, egurrezko aulkia, ohiko irudia da bertsolaritzan, betikoa. Bertsogintzan badaude beti errepikatzen diren gaiak, baita bertsolariek behin eta berriz errepikatzen dituzten doinuak ere. Baldintza bakarra duzue bertsoaldi honetarako: ezin duzue doinurik errepikatu. ⁶

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Agur sagar beltzeran*

E. Lazkoz

Doinuik ez errepika
hala digu bota
ta nik pentsatu dut “Hau
dao burutik jota”.
Munduan daude ehunka
bertso doinu mota
ahotsak, instrumentuak
ez dio inporta
musika sor liteke
aulki bati joka.

⁶ Bertsoaldi honen aurretik dantzariak aritu ziren, bakoitza egurrezko aulki banarekin, soinua ateraz eta haren erritmora dantzan.

Neurria: Zortziko txikia
 Doinua: *Errota zahar maitea*

J.M. Irazu

Aulki berri maitea
 oholtza beltzean
 diote lagunena bat
 dezula etxean
 norbait noiz etorriko
 suaren ertzean
 hartaz akordatzen naiz
 zutaz oroitzean.

Neurria: Zortziko handia
 Doinua: *Zorion etxe hontako denoi*

E. Lazkoz

Doinu horretan jarri dituzu
 askoren ileak tente
 nik doinu hontan hasi behar dut
 etxez etxe puska eske.
 Santa Ageda garaia sarri
 izango dugu presente
 santutik asko ez daukagu guk
 ta eskaletik dexente.

Neurria: Zazpi puntuko berezia
Doinua: *Nagusi jauna hauxe da lana*

J.M. Irazu

Repertoriyo estu xamarra
ertzetan zeinek jartzen du marra?
Eremuz zabal baita bertsoa
ikusi nahi bagenu osoa
gai jakinetan
gauz bera doinu desberdinetan
hor'e badira berri-minetan.

Neurria: Hamalauko berdina 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan - ETAre su-etenetik*⁷

E. Lazkoz

Ta doinutan doinuena
ez ote da habanera?
Distantzi luzea dago
lehen hitzetik azkenera
baina behin hasi ezker
ezin da egin atzera
nahiz eta erdiarekin
agian nuen sobera
eta bi doinu bihurtu
litezke doinu bat bera
tokiaren unearen
pertsonaren arabera
berdin du nun, noiz ta nola
bertsoa beti aurrera! (bis)

⁷ Lazkozek lehen lau puntuak doinu batean kantatu zituen eta azken hirurak bestean. Irazuk puntu bakoitza doinu diferente batean kantatu zuen.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Izarren hautsa egun batean-Aita izena kanta beharrak-
Mutil koxkor bat itsuaurreko- Munduko honetan holako
gauzak-Bizia ez da nehoiz egoiten*

J.M. Irazu

Belarri zenbait ba omen dabil
aide berriak eskatzen
hasiko gera Dorronsororen
tomo lodiak freskatzen
gero ez esan “Bertsolai hoiek
hasita zeudek kaskatzen”
mami ta doinu zahar berritan
segi bertsoa dastatzen
lazo berriak egiten eta
koapilo zaharrak askatzen. (bis)



(Bilbo. 2013). Bizkaiko Bertsozale Elkarte. XDZ

U. Alberdi 

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13qjm0>

Gaia: Tentazioa. Gainditua zenuela uste zenuen, baina itzuli egiten da tentazioa, eta itzuli, eta itzuli, eta itzuli...

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Tentazioa da sua
txinparta baten dardara
edo gorputz eder baten
zeharkako begirada
agian zigarrotxo bat
sartzea ezpainetara
edo eta boterea
norberaren patrikara.
Gainditua uste nuen
salbu nengoela jada
baina kalean ixkinan
itzuli egin da hara!
Nahiz eskertzen den tentaldi
gabeko aroen patxada
etortzen da ta orduan
bizirik sentitzen gara. (bis)

Familia izan liteke
toki goxo ta xamurra
ta bikote egonkor bat
hain egitura ziurra
baina zeinen hurbil dauden
egia eta gezurra
zein biguna haragia
ta ze gogorra hezurra!
Hemen nork ez du izan nahi
orekatua zuhurra?
Baina nahasten da sabela
ta lehortzen da zintzurra.
Tentaldiak, bertigoak
dardarazten badu lurra
erortzeko gogoa da
ez erortzeko beldurra. (bis)

Tentazio bakoitzak du
gutxienean bi alde:
hautatu behar da eutsi
edo eta egin alde
baina bietan edozein
ez da izaten debalde
eta zein komeni zaigun
gure buruari galde.
Betiko ezin da ibili
emozioen eskale
zerbait berriaren bila
aroz aro kalez kale
baina tentaldia hori da
egin kale edo bale
ta halakorik ez duena
zahartu egin den seinale. (bis)

URRUÑA (2013-02-15)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M.A. Txoperena, M. Artetxe eta
E. Zelaia*

Musikaria: Mattin.

Gai-emailea: Ion Ansa.

Korrika Kulturalaren barruan antolaturiko bertso afari musikatua.
Laurogei lagun afaltzen eta lau bertsolari hendaia kantuan.

A. Arzallus-M. Artetxe 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13akoc>

Gaia: Gerrak eta maitasunak badute zerbait komunean: biak deklaratu egiten dira; ez beti baina gaur bai. Zuek baduzue zerbait elkarri deklaratzeko. Ez dakigu maitasuna edo gerra den.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Antton eta Maria*

A. Arzallus

Lotsak hartu izan nau
maiz bere esklabo
deklaratu beharko naiz
bestela akabo!
Askatu behar dut zeren
ezin dut gehiago
gerra edo maitasuna
bitan zer nahiago?
Zure erantzunaren
arabera dago. (bis)

M. Artetxe

Hasiera koldarra
 izan da hori arrunt
 maitasun platoniko
 beti izan zaitut
 badituzulako zuk
 kualitate batzuk
 baina beste neska bat
 maite duzunez zuk
 nere barne gerra hau
 deklaratzeko dizut. (bis)

A. Arzallus

Txikitatik ohi ginen
 biak arrimatu
 ta ezin ote dugu
 elkar errimatu?
 Betitik izan zaitut
 oso estimatu
 maitasun aitortza bat
 nahi nuen mimatu
 baina tiroa ez dut
 ongi afinatu. (bis)

M. Artetxe

Tiro gora ta behera
 harritu naiz seko
 gure goxotasuna
 dugula tarteko
 gauzatxo bat nuke nik
 gaur proposatzeko:
 nahiz eskopeta hutsa
 daukazun konpleto
 beranduegi al da
 berriro hasteko? (bis)

A. Arzallus

Ez, ez itxaropena
oraindik mantendu
eta ez nuke nahiko
paretikan kendu.
Miretsi izan zaitut
nahi zaitut omendu
baina maitasunean
jakingo bazendu
hirugarrenak beti
traba egiten du. (bis)

M. Artetxe

Oraintxe egin nau hemen
publikoan ukatu
maitasuna ta gerra
ez dira pekatu
baina ñabardura bat
gaur Amets barkatu:
nahiz ta gai-jartzaileak
halaxe eskatu
zuk neri ez didazu
ezer deklaratu. (bis)

A. Arzallus

Nere larrosatxoa
nere marrubia
akabo poesia
edo irudia!
Betidanik izan naiz
mutil urduria
buka dezagun gerra
goxo ta guria
altxatzen hasi baitzait
bandera txuria. (bis)

M. Artetxe

Ai ze kursia zaren
ze hitz ilun beltzak!
Zure borobil horrek
bazituen ertzak.
Akabo hemen nire
lehengo esperantzak
zeruko gazteluak
ta nere ametsak
bueno barne gatazka
konpondu da behintzat.(bis)



Bertoaroa (23. 2013. Iruñea)

(Iruñea. 2013). Nafarroako Bertsozale Elkarte. XDZ

VILLABONA (2013-02-17)

Bertsolariak: A. Agirre, A. Egaña, M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Martin eta J. Soto.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Herrira plataformak antolaturiko jaialdia. Kiroldegian izan zen igande arratsaldearekin, eta jende asko elkartu zen.

A. Agirre

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13alqo>

Gaia: Badira sei hilabete zure etxearen hipoteka ordaintzen ez duzula. Zenbait jakinarazpenen ostean, duela zenbait egun jaso zenuen behin betikoa: “Bihar goizeko hamarretan etorriko da Batzorde Judiziala zu etxetik botatzera”.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Abokatuak deitu berri dit*

Justiziak ta legeak hemen
zenbat arau zenbat kemen!
Nik burumakur bizi behar al det
gutun hau jaso ondoren?
Baina indarririk nere baitara
helduko balitz bederen
berrogei milioi bizkar gainean
inoiz izan ahal nituen...
Zatozte lasai nere etxera
ta ikusi zer gertatzen den
igual neroni botako bainaiz
zuek ni bota baino lehen. (bis)

Zer da Batzorde Judiziala?
 Ez dakit baina argi da
 ez dela nere adiskidea
 ez erruki ez kupira.
 Hurrei kabi bat ematea zen
 gazte garaiko desira
 ta indar betez jarri nahi nuke
 nere indarra ta tira.
 Zatozte arren etorri lasai
 eman gezurrei segida
 baina egia zuek kontatu
 nere alabari begira. (bis)

Gure gizarte madarikatu
 honek hankak herren ditu
 nahiago nuke hegoak zabal
 aireratuko balitu!
 Ez daukat lanik ta zorrak lepo
 baina ezin naiz errenditu
 ez naiz botako noan aurrera
 nahiz ta inor ez kupitu
 hutsetik hasi beharra daukat
 nahiz eta hutsik sentitu
 nik neuk ez baina nere alabak
 ametsak beteko ditu. (bis)

LOIU (2013-02-22)

Bertsolariak: X. Paya eta A. Estiballes.

Laurotako Jai Batzordeak antolaturiko bertso afaria, Aurregoiti jatetxean. Denboraldiko azken txarriboda izan zen afaritakoa, ohitura den legez. Librean eta afaltiar zenbaitek gaia jarrita jardun ziren bertsolariak. Horietako bat duzue honako hau.

X. Paya-A. Estiballes 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13amt4>

Gaia: Laurotan gertatutako pasadizoa, labur-labur kontatuta. Udan belarra biltzen ibili ziren Palatarteko Txomin eta hari laguntzen Goititiko German. Halako batean, segadora horrek pot egin zuen. Germanek esaten dio “Zer pasatu ba Txomin?”, eta Txominek “Ito egin da”; “Ito hemen, mendian? Han errekan izan balitz!”. Arkaitz izango da Txomin, segadora eta guzti; Xabi German, laguntzailea. Pot egiten duen unean, ea zer pasatu den.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Durangotik gorako*

X. Paya

Segagaz hasi zara
astiro pausoka
mozteko hor lurretik
hasi ohi dan soka.
Plin-plon ta apurtu da
ze-nolako bronka!
Ez zendun arrimauko
taketaren kontra? (bis)

A. Estiballes

Ez dakit egoera
 da nahiko larria
Stihl markakoa zan
 ta barri-barria.
 Ez dakit honek deukon
 gasoil egarria
 edo eta jo dauen
 zure mugarria. (bis)

X. Paya

Klaro ez dakienak
 bazterra dau jotzen
 ta errua ondokoai
 gero bota ozen.
 Nik erraz moztu ohi dot
 eta zuzen-zuzen
 antzinako kodañak
 ez dira itotzen. (bis)

A. Estiballes

Gezur galanta hori
 ezin zeinke uka
 aspaldian ez zabiz
 German makurtuta
 sega beti zeunkon zuk
 txarto pikatuta
 dagoz herdoildu eta
 nahiko kamustuta. (bis)

X. Paya

Harrapatu nozu ta
bazter danak nahastu
ondokoana ikustea
ez jatzu ba ahastu!
Ba bai hontan inor be
ez da aberastu
barriz haziko da ta
zertarako moztu? (bis)

A. Estiballes

Hau lehen segan ibilten
zan nahiko ondradu
hiru kodañakada
eta zazpi tragu
hemen inortxo ere
German ez dau salbu
gasoilean merke
baina ardotan karu. (bis)

X. Paya

Zu beti egoten zara
Germani begira
eta gero kontutan
zenbat tirabira!
Bitan egingo dotsut
sekan hemen di-da
ea bajetan zaren
Germanen neurrira. (bis)

A. Estiballes

Diz-diz egiten deutsu
 gaur begi niniak
 goazen tabernara
 ta argitu begiak
 total haziko dira
 hemen belardiak
 eta danak jango dauz
 Arbildun⁸ poniak. (bis)



Euskal Herriko bertso-eskolen topaketak (3. 2013. Markina-Xemein)
 (Markina Xemein. 2013). Bizkaiko Bertsozale Elkarte. XDZ

⁸ Iñaki Beitia “Arbildu”. Afaltiarretako bat; gai-emaila aritu ohi da han inguruan egiten diren zenbait saiotan.

VILLABONA (2013-02-23)

Bertsolariak: U. Alberdi, A. Martin, J. Labayen eta A. Barandiaran.

Musikariak: Ixak Arruti (gitarra-jolea) eta Eneko Sierra (saxo-jolea).

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Bertso saio musikatua, Villabonako Erreka tabernan. Dena bete zen, eta saio polita atera zen.

U. Alberdi-A. Martin

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13anvg>

Gaia: Ez dakit badakizuen, baina Uxue eta Alaia oso-oso-oso futbolzaleak dira. Arratsalde ederra eman digute gaur Athleticen gol ederra izan zela, bestea, berriz, zuri-gorrien defentsan zulo izugarria dagoela, De la Bella ezinbestekoa dela Realean...⁹ Abiapuntu hori hartuta eskatu nahi dizuet zuek bizitzako zer arlotan zareten zentralak, zer arlotan jokatzen duzuen defentsa modura eta noiz jokatu behar den edo jokatu ohi duzuen aurrelari. Alaiak esango du Uxueren kasua eta Uxuek Alaiarena. Nahi baduzue, erabil dezakezue futbolaz dakizuen hori guztia.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

⁹ San Mamesen historiako azken derdia jokatu zen aurreko egunean. Realak irabazi zuen 1-3.

A. Martin

Uxuek beregan du
 hainbeste enkanto
 zelai erdira gogor
 egiten du salto
 baloiek ez diote
 egiten eskapo
 jokatu egin lezake
 ondo eta asko
 eta inoiz ez dago
 bera jokoz kanpo.

U. Alberdi

Alaiak hitzak hartu
 luzatu, ebaki
 beti daki zer kanta
 nola erabaki
 bertsoa goitik behera
 nolatan eraiki...
 Nahiz Egañak beldurra
 damaion zenbaiti
 honek Messin aurrean
 atakatzen daki.

A. Martin

Hau da Agirretxeetan
 Agirretxeena
 nahi gabe bada ere
 gol sartzen duena
 bandatik, ixkinetik
 noiztik da problema?
 Nekatu gabe dauka
 aldiro kemena
 atakea da bere
 defentsa onena.

U. Alberdi

Barrera jarri arren
topatzen du xenda
zirrikitu topatzen
onena omen da.
Arbitroak nahiz falta
atera, defenda
honek defendatzen du
ta nola gomenda?
Baina epaileekin
txulita jartzen da.

A. Martin

Arbitroari “Kabroi
zara esateko”
edo behar dun dana
duela tarteko
prest dago eraso
gogor jasateko
nola gaitasuna dun
onena izateko
propian gol sartzen du
bentaja emateko.

U. Alberdi

Nahiz ta itxurak ditun
panpina batenak
eta mikroan bota
bertso on zuzenak
gero saio amaieran
ohi datoz eztenak
zuek joan ta botaz
gauza nabarmenak
aldagelan sartzei’tu
golikan onenak.

A. Martin

Beti aukeratzen du
bere momentoa
badu elegantzia
eta talentoa.
Nahiz ta azaldu dugun
bion sekretoa
ez gaizki ulertu ez dut nahi
moztea lepoa
derbia baino ez da
gure artekoa.

U. Alberdi

Ta hemen hasi gera
elkarri kolpeka
dena ezin da eduki
barruan gordeta.
Alaia beti dator
talentuz beteta
bertsolari bikaina
gainera koketa
bertsoak ere Beckham
behar zuen eta.

TOLOSA (2013-03-08)

*Bertsolariak: U. Alberdi, A. Martin, A. Agirreazaldegia eta
M. Amuriza.*

Musikariak: Eneko Sierra (saxo-jolea) eta Xabier Matxain
(gitarra-jolea)

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Ez da kasualitatea izenarekin antolaturiko saio musikatua.
Leidorren izan zen, gauean; berrehun bat entzule.

U. Alberdi-A. Martin 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ap1s>

Gaia: Bikotea zarete, eta gaur ere eztabaida beroa izan duzue zuen artean, jelosia kontuengatik. Aspaldi honetan, Uxue etxetik kanpo dabil desorduetan, gero eta bertso saio gehiago dituelako, bereziki martxoaren zortziaren jiran. Jeloskor zaude, Alaia. Elkarri gaur ere ahotsa altxatu diozue. Nazkatuta, Uxue, balkoira atera zara zigarro bat erretzera.¹⁰ Eseri Uxue, hori da zure balkoia. Alaia, beregana hurbildu nahi duzu, baina urguiluak ez dizu uzten.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ilun ikarak azken argia*

¹⁰ Zigarro bat eman dio Amaiak Uxueri.

A. Martin

Distantziatik eta erdi hotz
 horrela ikusten zaitut zu
 ta azkenean distantziatik
 biok urrundu gaituzu
 arnasa eman nahiko nizuke
 edo emango dizut su
 baina ezin dizut deus ere eman
 alde egiten baduzu.

U. Alberdi

Behin balkoiraino irtendakoan
 zein hotza den maitasuna
 ze distantea zeinen urruna
 bertigoa sortzen duna.
 Nahiz alderantziz ikus litekeen
 gure koadro iluna
 barkatu baina zu izan zara
 bizkarra eman didazuna.

A. Martin¹¹

Baina halere zu joan zara
 berriz ere urrutira
 ta sentitzen dut nigan bildurra
 ta nirekiko gupida
 jeloskor nago galduta nago
 igual egia hori da
 baina ezin dizut hori kontatu
 begietara begira.

11 Eskuko mikroa hartu, Uxue eserita dagoen lekura hurbildu eta atzean jarri zaio.

U. Alberdi

Zure beldurrek preso zauzkate
nahiz ez zaren jakituna
deitu didazu puta zikina
deitu didazu lizuna
lehen asko maite omen zenuen
nik neukan askatasuna
lehen gehien maite zenuena da
orain gorroto duzuna.

A. Martin

Lehen sobran neukan goxotasuna
mimoa eta lorea
baina gaur egun edonorena
denez zure kolorea
berriz zugana hurbiltzeko ez
dut niregan adorea
seguru aski merezi duzu
norbait ni baino hobea.

U. Alberdi

Ba nik horretan ezin ba kendu
duzun arrazoi partea
zure ahotik jaso baititut
iraina ta atakea.
Askio maite dut bertsolaritza
eta hitzaren artea
nere kartzela ez da izango
lau paretaren artea.

A. Martin

Zugan pertsona desagertuaz
joan da poliki-poliki
kartzela bat da sortu dudana
ezin dudana iriki.
Berez badakit zu ez zarela
ipurdi bat ta bi titi
zure onduan ordean nola
sentitzen naiz horren txiki?¹²

U. Alberdi

Txikitasuna irudikatuz
makurtuz aurpegi larriz
agian pena sortu nahiean
segurtasun harrigarritz.
Barka nezake baina ez gauez
ez zaitut hartuko irriz
ikas ezazu maitatzen eta
hitz egingo dugu berriz.

A. Martin

Nahiz eta hitzak batzutan diren
soilik ausarten ondasun
zeloek kendu didate aski
bake, sosegu, osasun...
Baina ez zaitez horrela jarri
eta goxoki erantzun
nik koilare bat erosi dizut
berriz barkatu nazazun.

12 Uxueren ondoan pikotxean jarrita kantatu zuen bertso hau.

U. Alberdi

Barkatu baina ez dut sinisten
eta azaltzera noa:
zure opariak ta barkamenak
erraz joaten dira, doan
baina nik irmo jarraituko dut
aske izateko asmoan
lagunengana noa hobeto
nago-ta haien ondoan!



'El patrimonio cultural a través de sus protagonistas' jardunaldiak (2013.madril)
(Madril. 2013). Mintzola Fundazioa. XDZ

ERMUA (2013-03-09)

Bertsolariak: A. Martin, On. Enbeita, U. Alberdi eta A. Agirreazaldegi.

Musikariak: Eneko Sierra (saxo-jolea) eta Xabier Matxain (gitarra-jolea).

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Korrika Kulturalaren barruan, Ermuako Emakumearen Udal Kontseiluak antolatu zuen *Ezer ez da kasualitatea* izeneko saio musikatua. Lobiano kultur etxean egin zen, giro goxoan. Emanaldia deskribatzen hasita, adjetibo zerrenda luzea idatz genezake: intimoa, barrura begirakoa, goxoa... Aldarrikapenak eta umoreak ere izan zuten lekua.

On. Enbeita-U. Alberdi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13aq48>

Gaia: Zuek biok trenean zoazte. Ez duzue elkar ezagutzen, baina elkarren aldamenean eserita zoazte. Erabat isilik orain arte, eta bat-batean Uxueri asperdura eta jakin-mina biak batera sartu zaizkio, eta aldamenean eserita daukan Onintzari galdezka hastea pentsatu du. Ondoan jarri eta, “Onintza”, esan dizu “Zer, lanetik?”, eta Onintzak “Zuri zer inporta zaizu?”; eta jarraitu du: “Bai eguraldi ona, giro ona”, eta Onintzak “Bai, zu hizketan hasi arte bai!”. Hori izan da hasiera. Gustura entzungo genuke jarraipena.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

U. Alberdi

Kaixo! Zu nor zara ba?
Nik izena Uxu
nahi baduzu emango
dizkizut bi muxu?
Zertan lan iten duzu
umeak al dituzu?
Hortxe ikusten zaitut
erantzuten sutsu
beti hola zara edo
egun txarra duzu?

On. Enbeita

Berez ez banitu nik
hamaika arazu
orain ondokoak be
tapa enbarazu!
Galdera eginean
zabiltza jo ta su
konbertsazio eske
ari bazara zu
hor aurrean aulki bat
libre badaukazu.

U. Alberdi

Galdera arruntekin
hasi naiz jo ta su
baina ondokoak ez dit
niri egin kasu.
Ondo molda gintezke
agian ni ta zu
igual intelektuala
izango zara zu
Saharako egoeraz
zer pentsatzen duzu?

On. Enbeita

Mundu honetan bada
 hainbeste majara
 ta orain be batekin
 topo egin hara!
 Zer esango duen ta
 esan du Sahara!
 Joan nahiko bazenu
 oraintxe bertara
 leihotik salto eta
 iritsiko zara.

U. Alberdi

Hartu behar dut gairik
 unibertsalena
 Reala da munduko
 talde trebeena
 edo igual Athletic
 ere ez da txarrena
 biak partida baten
 kokatuz hurrena
 enpate egitea
 ez al da onena?

On. Enbeita

Honek ukitu dizkit
 alu eta uzki
 kontzientzia ezin dut
 isilik eduki.
 Futbolaren atzetik
 eguzkiz eguzki
 hitz egin zazu lasai
 niregatik busti
 ta har zazu haizea
 baloi eta guzti!

U. Alberdi

Hemen nenbilen ba zu
lagundu xedean
konpainia egiten
zure mesedean.
Pausatuz koloreetan
gorri zein berdean
ondo moldatzen gara
gu biok geurean
fijo jeitsiko gara
geltoki berean! (bis)

On. Enbeita

Insistentzian behintzat
gogorra da bera
futbola, eguraldia
Sahara ta zera
nire ondoan dago
irradi berbera.
Bai iritsi gintezke
leku berdiner
baina ez gara joango
kale berdiner.

U. Alberdi

Nahiz ta disimulatzen
ahalegindu neurez
nik ezagutu zaitut
famosa zarenez
ta errespetu pixka't
eduki mesedez
ze Onintza Enbeita
zabiltza aldrebes
Rajoy aguantatzen du
eta Uxue ez.

On. Enbeita

Hasieratik zuen
 Uxuek gogoa
 hori botatzea zen
 ai zure asmoa.
 Bete-beteta daukat
 jadanik kolkoa
 nire jarrera bada
 zure oztopoa
 hurrena lasai eman
 Rajoyri botoa.



Ahoa Bete Hots jardunaldiak (4. 2013. Villabona)

(Villabona, 2013). Mintzola Fundazioa. XDZ

GASTEIZ (2013-03-16)

Arabako txapeldunaren agurra

O. Perea

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ar6k>

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke*

Ekaitz ta Iratxe aipatu gabe
ez naiz joango inola
Unai ta Oier, nere txikiak
a zelako merendola!
Talderik gabe bakarkakoak
ez du gehiegi axola
bonbo soinuak eta zuek jartzen
didazue borborka odola
hau ere bada zuena eta
Lautadako Bertso Eskola.

IRUÑEA (2013-03-23)

Nafarroako txapeldunaren agurra

X. Silveira

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13as90>

Neurria: Hamalaukoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Azken urteetan gure herrian*

Egoi, Arane, Jon eta Gaizka
 aipatu nahiko nituzke
 ama, izeba, aita, Igoa,
 Erki, Esti ta hainbeste
 muxu haundi bat agur ta ohore
 presondegi zein erbeste
 zuei ere bai nafar euskaldun
 su hau ez baita dena ke
 Beñat itxoin ordubete
 amets bat behar dut bete.
 Baina Silveira goizero jasan
 dutenak zuek zarete
 zuentzat beraz azken txapel hau
 Solete eta Txabete. (bis)

ZUMAIA (2013-04-05)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, J. Uria, A.M.
Peñagarikano, O. Barroso eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Jon Maia.

Santelmo jaiei hasiera emateko urtero antolatzen dute bertso saioa Zumaian. Gauean izan zen, eta aretoa erabat bete zen, denera laurehun lagunetik gora. Kanpoan euria, txingorra, hotza, eta barruan bertso giro.

J. Uria-M. Lujanbio-U. Iturriaga
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13atbc>

Gaia: Herri askotan aurkitzen ditugu arazoak. Andonik aipatu du Hondarribiko alardea; egin genezake ezikusiarena ere, baina Zumaian sartzean ikusiko zenituzten zabor poltsak balkoietatik zintzilik. Iristen gara herrietara, eta herri askotan daude bertsolariak arazo baten, liskar baten aurrean. Horren aurrean ez da erraza bertsolari baten papera. Gaur ere hemen denetarik egongo zarete, zabor poltsak zintzilikatu dituztenak eta zintzilikatu ez dituztenak. Ez da erraza bertsolariaren ofizio hori, zer egin horrelakoen aurrean. Horri buruz kantatzeko eskatuko nizueke.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

M. Lujanbio

Bi bertsio ta igual gehiago
 ta hamaika zirrikitu
 ta guk esan nahi esan nahi deuna
 ta ez nahi dena aditu
 ta kritikatu egin nahi baina
 ahal dela ez zauritu
 bapatekoan hari meheak
 korapilo asko ditu.

J. Uria

Atez ateko bateko eta
 beste aldean alarde
 gaiak aditu eta mikrora
 hurbiltzen gara xuabe
 informazio guztia daukan
 jende pila parez pare
 ta lezioa guk eman behar
 gaiaz asko jakin gabe.

U. Iturriaga

Baina ez gara beti ezjakin
 aritzen Jone kantari
 noski txistea erraz egiten
 diogu erregeari
 baina nik berriz beti izan dut
 barnean nolabait argi
 denen gustoa egiten badut
 ez naizela ondo ari.

M. Lujanbio

Festa ofizial ta alternatibo
eszisio eta batu
alarde edo ta kultur etxe
atez ate mila zaku...
Eskerrak hitza geurea dugun
ta genezakeen hautatu
nahiz ta askotan nahio gendukeen
bertso zaharrak kantatu.

J. Uria

Bai egia da beti ez gabiltz
Unai ezjakin planean
baina zaila da gauzak kantatzen
beti aldarte onean.
Nahiz ta jendeak erreparatu
zorrotz gure esanean
ez zazuela ahaztu gabiltza
beti geure izenean.

U. Iturriaga

Geure izenean aritze horrek
ba al du ezer eskasik?
Egun osoan hala gabiltza
hasita goizean goizik.
Pena da baina ezin da euki
beti parekoa pozik
ez dut eskatzen adostasunik
entzun nazatela baizik.

DONOSTIA (2013-04-11)

Bertsolariak: M. Lujanbio eta A. Egaña.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Jorge Oteizaren heriotzaren hamargarren urteurrenaren harira jardunaldi batzuk antolatu zituzten Aldatzen Laguntzen antzerki taldeak eta DOKAk, *10 urte bete eta HUTUSUNEak gure ARTEan darrai* goiburupean. Amaierako ekitaldia izan zen bertso saioa. Jon Martinez aktoreak jokatu zuen Jorge Oteizaren papera, pare bat minutuko zortzi *sketch* antzeztu zituen eta horietatik abiatuta jarri zituen gaiak Elizasuk. Ehunen bat lagun elkartu ziren saioa entzutera.

M. Lujanbio-A. Egaña 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13audio>

Gaia: Urte dexentean zabiltzate plazaz plaza bertso onak eginaz. Beraz, esan liteke bertsolari osoak zaretela.¹³

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Gogoratuko zara*

A. Egaña

Hara Jorge Oteizak
ze indar ze kemen!
Irudigintza utzi
nahi dula nabarmen.
Bertsotan segiko det
aitortzen det hemen
eta zure aurrean
gainera Maialen
bertsotan segiko det
aitortzen det hemen
nere bertso onena
aurkitu baino lehen.

¹³ Oteiza sartu da esanez “Pues dejarlo! dejarlo!”)

M. Lujanbio

Hori esan duena
pentsa Andoni da!
Besteok ere gabiltz
beraren harira
nahiz iritsi nahi dugun
gure obra haundira
kantuan segi behar
tira eta tira
nahiz iritsi nahi dugun
gure obra haundira
gure bertso guztiak
bozetoak dira.

A. Egaña

Bapatekotasuna
nolako altxorra!
Perfekziorik eza
ez al da gogorra?
Nik segi egin nahi det
aitortzen det horra
nahiz jadanik indarrik
ez daukadan sobra
nik segi egin nahi det
aitortzen det horra
ia noiz suertatzen den
bozeto bat obra.

M. Lujanbio

Estetika kontuan
badaukagu senik
ezin baztertu aditz
ez eta izenik
zer hobetua asko
daukagu maizenik
nahiz izan bide oker
ta bide zuzenik
zer hobetua asko
daukagu maizenik
ez det uste inora
iritsi naizenik.

A. Egaña

Bertso bat ez da ekartzen
perfekto patrikan
bapatekotasunaz
beti ika-mikan
ez dedila gertatu
bilatze faltikan
aurkitzeko bilatu
behar da praktikan
ez dadila gertatu
bilatze faltikan
ez dedala aurkituko
jakinagatikan.

M. Lujanbio

Nahiz ta akaso izan
zerbait kategori
beti nahi degu hobetu
nahiz sarri erori.
Gaur ere nahiz ta bota
bertso on bat edo bi
ta nahiz beste guziak
joan diren ongi
gaur ere nahiz ta bota
bertso on bat edo bi
etxera daramagu
arantzatxo hori.



Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa (25. 2013. Orio)
(Orio. 2013). XDZ

GASTEIZ (2013-04-19)

Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Arzallus, F. Paia, J. Uria, I. Viñaspre, J. Maia eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Gaztetxearen 25, urteurrena zela-eta antolaturiko jaialdia. Gaztetxean bertan izan zen, eta leporaino bete zen, denera hirurehun bat lagun. Sarreran borondatea eskatu zuten.

U. Iturriaga-J. Maia-M. Lujanbio
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13avg4>

Gaia: Sexuaren kalitateaz hitz egingo dugu. Izan ere, zuretzat, Unai, sexurik onena bikotean sortzen da, bi pertsonaren artean, intimitate horretan. Zuretzat, Jon, gauza interesgarria jartzen da bi pertsona baino gehiago daudenean. Maialen, zure ustez, aldiz, sexurik onena bakarka lortzen da.

Neurria: Lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

U. Iturriaga

Nik plazeraren goren bezala
 aizue bikotea daukat
 eske informatikoa naiz ta
 dena da zero edo bat.

J. Maia

Ba niretzako sexoa ona da
 gurutzatzen den unean
 zer heltzen duzun eta zerk heltzen
 zaitun ez dakizunean.

M. Lujanbio

Neri beste bat aguantatzeko
bukatu zait pazientzia
onena autodeterminatzea
eta independentzia.

U. Iturriaga

Alboko honek dio hobe dala
izan hiru ta igual lau
zenbat garen ez jakite horrek
odolkitu egiten nau.

J. Maia

Nere ustetan zure barruan
bakardadea daukazu
anexionatu nahiean dagon
Trebiñotxo bat zera zu.

M. Lujanbio

Nere buruak nahikoa amets
eiten baitu seguraski
nik nahi badet bi izaten gera
ta nahi badet hamazazpi.

U. Iturriaga

Nik ulertzen dut berak beretzat
bakarrik eragitea
umetan ere ez zun pasatzen
gusanitos paketea.

J. Maia

Eta ni ez naiz inoiz nekatzen
multitudean erdira
eurak ez dira nitaz oroitzen
bai bai oroituko dira.

M. Lujanbio

Ba ni berriz'e nere buruaz
hala aukeratuta nahita
sosteniblea, berdea eta
reziklagarria baita.

U. Iturriaga

Azken batean onena beti
bakoitzak duen mota da
pozten naiz zuek ezagutzeaz
banoa misiotara.

J. Maia

Ba ni zurekin noa ba haruntz
uzten ditut gaurko markak
ezin det eutsi ezker ta eskubi
ja bi pertsona badauzkat.

M. Lujanbio

Zuk ezin dezu ba nik eutsiko
diot bai nekarren horri
zuek misiota bazoazte ta
Trebiñora ez etorri!

HENDAIA (2013-05-03)

*Bertsolariak: O. Barroso, S. Colina, I. Elortza, A. Martin,
M. Artetxe eta M. Sarasua.*

Gai-emailea: Maddalen Arzallus.

Badira urte batzuk Bertsularien Lagunak Elkartek eta Hendaiako Udalak elkarlanean saio hau antolatzen dutela. Mendizola aretoan izan zen, gauean.

O. Barroso-S. Colina-A. Martin-M. Artetxe 🎵
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b0ig>

Gaia: Atzeko laurek *Facebooka* daukate, egungo gazte ia guztiek eta zenbait helduk bezala, eta esaten dute erabiltzen dutela ideiak zabaltzeko, gustatzen zaizkien artikulak aipatzeko, musika, bideoak, baina gezurra da; ligatzeko erabiltzen dute, beste gehienek bezala. Hasi dira elkarrekin hizketan, eta konturatu dira laurak elkarren artean ligatzen ari direla.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

O. Barroso

Facebooka nola nahiko
kontu berria zen
ni ere hasi nintzen
sare hortan sartzen.
Sustrai ez zaite hasi
nerea zapaltzen
ni izan nintzen lehena
hauekin ligatzen. (bis)

S. Colina

Biktimarik ez bada
 ez da errudunik
 ez da *Facebook*ik pasa
 gabeko egunik.
 Beste inorentzako
 ez dut maitasunik
 aizu Odei zurekin
 ligatu nahi dut nik. (bis)

A. Martin

Odeirekin ligatu
 nahi dugu hainbestek
 agian lortuko du
 noizbait baten batek
 bihotz handia dauka
 ta lortu dezaket
 bihotzetik hirurak
 atsegin zaituztet. (bis)

M. Artetxe

Sustrai ta Alaiak behintzat
 nahikoa beltz dute
 ze nik ere Barroso
 neretzat nahi nuke.
 Ligatzen daramatzat
 jadanik bi urte
 “Atsegin dut” emanaz
 “Atsegin dut” truke. (bis)

O. Barroso

Nik ere atsegin zaitut
Miren berdin-berdin
Alaia eta Sustrai
zuek nahi ta ezin.
Nahiz konformatzen nintzen
ni bakar batekin
orain hirurek nahi al
dute Odeirekin? (bis)

S. Colina

Odeik bihotza egin
digu mila zati
baina ahaztu ditut kleenex
eta muxuzapi
zuekin ere prest nago
jatorrak izaki
iritziz oso errex
aldatzen dut beti. (bis)

A. Martin

Ikusi dut harreman
batean zaudela
eta beste batera
pasatua bela
ta Odei erakargarri
goxo ta itzela
batzutan pentsatzen dut
birus bat zarela. (bis)

M. Artetxe

Edozein onartzen dut
 inork nahi ezker
 tranpan eroria naiz
Facebooken bezero.
 Mundu postmodernoa
 ez besteik espero:
 lagunak larehun ta bost
 txortaldiak zero. (bis)

O. Barroso

Polita txortaldien
 zure parabola
 baina horrekin erraz
 galtzen da kontrola.
Facebook kontu hauekin
 ikusi dut hola
 nor ligatu ez dakien
 gehiegi dagola. (bis)

S. Colina

Esker txarreko hiru hauek
 alboan lagata
 ni Elortzarengana
 noa tipi-tapa:
 klaseduna, sutila
 dandi baten planta
 gainera modernoa
Twitterra dauka ta. (bis)

A. Martin

Dandiarenak hola
sortu dit algara
ze desberdina dugun
gure begirada.
Nik ligatu egin nahi dut
ta beti ahal bada
hiru perfil sortuak
ditut badaezpada. (bis)

M. Artetxe

Hiru perfil jo neska
zuk duzu gogoa!
Sare sozialen kontu
hau ez da sanoa.
Odei harrapatzeko
alda dut asmoa:
Sustraik pista eman dit
*Twitter*erra noa. (bis)

LASARTE-ORIA (2013-05-04)

Bertsolariak: A. Egaña, J. Maia, U. Munoa, A. Labaka eta X. Paya.

Lasarteko Semblante Andaluz elkarteak, Bertso Eskolak eta Ttakun Euskara Elkarteak *Hango eta hemengo* goiburupean antolaturiko jaialdia. Jende asko pasatu zen oholtzatik – musikariak, dantzariak, euskaldun berriak...- eta gaiak hainbat modutara eman zituzten. Xabi Payak bertsoak gaztelaniara itzuli zituen, bertsolariek kantatu ahala, eta oholtzaren atzeko pantaila handian irakur zitekeen itzulpena.

A. Egaña-U. Muñoa

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b2n8>

Gaia: Semblante Andaluzeko Amigos del Sur (musikariak) eta Zambra (dantzariak) taldeek herrimina adierazten zuen kanta bat kantatu eta dantzatu zuten, “*Pero estoy contento*” esanez amaitzen zena.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Ai gure antzinako*

A. Egaña

“*Estoy contento*” esan
beharko xuabe (bis)
kontentu egotea
bizitzan zutabe
estoy contento hainbat
jende parez pare
eta txapelketara
joan beharrik gabe
Unai *etoy contento*
zu pozik al zaude? (bis)

U. Muñoa

Arrazoi du Andonik
txapelketa hor dago (bis)
ta ni ez nintzen sailkatu
ez al da arraro?
BECen lehen zuk bezela
kantatu nahiago
baina hobetu behar
det zerbait gehiago
la enviada me corroe
baina pozik nago. (bis)

A. Egaña

Inbiriari eutsi
barruan mutiko (bis)
benetan lagun txarra
baitegu betiko.
Txapelketa gogoko
du bai nereko
hala're epaimahaiak
ez zuen begiko
klaserik ez du eta
no se clasificó. (bis)

U. Muñoa

Erderaz ari zera
esto es un disfrute (bis)
hortan'e badaukazu
hamaika bertute!
Andoni Egaña da
hala nahiko luke
baina erderaz kantatuz
gero horren truke
“Antonio de España”
deituko dizute. (bis)

A. Egaña

Aprobetxatu behar
 holako aukeraz (bis)
 aldatu egin gera
 gaur ohiko hizkeraz
 euskeraz soilik beti
 gaur pixka't erderaz
 Antonio de España
 izango naiz beraz
 arrazoia: *el arte*
no tiene fronteras. (bis)

U. Muñoa

Ez dakit badakizun
 maite zaitut asko (bis)
 oso gertukoa ta
 argi zarelako
 ta bertsotan gainera
 egiten du bapo
 baina erderarena
 utzi neretzako
 ez daukazu adinik
 abenturatako! (bis)

A. Egaña

Behin honezkero hobe
 ez zama gurdia (bis)
 ta betiko lekuan
 euki ipurdia.
 Nola hor bi hizkuntza
 bi sistema dia
 ta erderaz pentsatzen
 hau da izerdia!
 Bueno ein degu Xabin¹⁴
 lanaren erdia. (bis)

14 Xabi Payak bertsoak gaztelaniara itzuli zituen, bertsolariek kantatu ahala.

OREXA (2013-05-05)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, S. Colina, A. Agirre eta
J. Soto.*

Gai-emailea: Jokin Soroazabal.

Santakrutz jaiak zirela-eta antolaturiko saioa. Arratsaldean izan zen, eta jende multzo polita elkartu zen bertsoak entzutera.

A. Mendiluze-S. Colina-A. Agirre 🎵
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b2n8>

Gaia: Aitor aitona, Sustrai aita eta Amaia alaba zarete. Aitona Gerra Zibilean gorriak ikusitakoa, Sustrai bere garaian kartzelan egona, eta Amaia Donostiako Boulebarrean egon da duela astebate, kanpatuta, herri harresian. Telebistari begira zaudete, elkarri zehar-begiratuak eginez. Elkarrekin asko eztabaidatzen duzue, eta entzungo genuke elkarriketa horietako bat.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Mendiluze

Gure garaia latza izan zen
bizitzeko garai txarra
ondorengoei zerbait utzi nahi
ta borrokatu beharra
baina ondoren ere izan da
joera berdin xamarra.
Sarri dirudi urtea dela
aldatzen doan bakarra.

S. Colina

Nahiz ta urteak aldatzen joan
 gure historiara begira
 aita geu ere aldatzen goaz
 gizalditik gizaldira.
 Bestela begiratu ezazu
 horko herri harresira:
 gu izkutatu egiten ginen
 hauek bistan jartzen dira.

A. Agirre

Ta aurpegia emate hori
 nola ez degun pekatu
 kalera irten beharra degu
 eta kale denak hartu.
 Lehengo borroka ez omen hura
 hara attona barkatu!
 Orain bakean gaudela baina
 gerra hau ez da bukatu.

A. Mendiluze

Ni hemen nago gerra garaien
 okerrena probatua
 semea berriz kartzelan egon
 ta sarri ezkutatua
 zuk astebetetz protesta egin
 eta gero libratua...
 Zuena ere gerra bat da bai
 baina deskafeinatua.

S. Colina

Herri harresiai begira jarri
eta nunbait harro nago
baina kontuak aldatu dira
garaiz garai aroz aro:
gure garaian izaten ginen
bi mila baino gehiago
ta abisurik ez zen izaten
kargatu baino lehenago.

A. Agirre

Ez det ukatzen zuen garaia
gendunik gordin xamarra
hartu fusila eta frontera
zindoazten ttirri-tarra
ta gu eseri eta etzaten
gera eginez indarra
gaur egunean hitza delako
daukagun arma bakarra.

A. Mendiluze

Bai baina arma boteretsua
bada arrazoiz jantzia
alperrik baita ados egon ez
eta horretan etsia.
Nik izan nuen ta zuek ere
bizirik kontzientzia
ni hil aurretik jaso dezute
aitonaren herentzia.

S. Colina

Aitak frankisten miliziar
egiten bazion tira
neronek berriz grisen aurrean
zenbat buelta zenbat jira!
Alaba berriz kasko gorriek
hartu eta erretira...
Uniformeak aldatu arren
etsaiak berdinak dira.

A. Agirre

Abertzaleak ta euskaldunak
gera hori argi dago
zuen borrokak irauten baitu
zoritxarrean luzaro.
Armarik gabe zuen gisara
borrokatzeko prest nago
gerra alu hau luza ez dadin
belaunaldi bat gehiago.

S. Colina

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b3pk>

Gaia: Adanek eta Evak izan zuten aukera paradisuaz bizitzeko, baina dena izorratu zuten. Paradisuaz asko hitz egin da, apaizek, filosofoek... Bakoitzak bere bertsioa du. Hiri zer iruditzen zaik? Existitzen da? Non dagoen badakik?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Erligioak berekin ditu
teologo adina gako
beti irtenbide xamurrago bat
bilatu nahian biharko
baina bakoitzak bere fedea
garatu behar dulako
paradisuaz ez dut sinisten
irakurri nuelako
paradisuaz omen daudela
bai Fraga eta bai Franco.

Ametsek badu osaba obispo
zahar bat mintzo dena hola
Bolivia aldean eman zuena
misio ta epistola.
Oraindik ere gogoan daukat
gizon haren parabola
“Paradisurik ba al da?” galdetu
eta borborka odola
esaten zigun baldin badago
berau lurrean dagola.

Gure inguruan nun-nahi nagusi
 denez paraferalia
 pertsonak ez al du izan behar
 xumea bezain zolia?
 Neretzat zer den paradisua
 pentsatzen naiz ibilia:
 izan liteke mendi buelta bat
 muxu bat zein familia
 lagunartea, afari on bat
 kafea ta tertulia.



U.morez: Generoa Bertsolaritzan jardunaldiak (3. 2013. Vilalbona)
(Villabona. 2013). Euskal Herriko Bertsotze Elkarte. XDZ

DONOSTIA (2013-05-05)

Bertsolariak: A. Sarriegi, A. Estiballes, A. Arzallus eta A. Egaña.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Altza auzoko Bertso Asteko egitarauaren barnean antolaturiko jaialdia. Plazan izan zen, arratsaldean, eta entzulez bete zen plaza.

A. Sarriegi-A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b4s0>

Gaia: Gaur bi grafiko ikusi ditut, eta biak igual samarrak ziren. Grafiko bat zen etxerik ez duten pertsonena eta bestea zen pertsonarik ez duten etxeena. Eta biak ziren igualak.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

A. Arzallus

Bi grafikoek azaltzen dute
problematika osoa
etxe gabeko pertsonarentzat
bizitza ez da eroso
pertsonik gabe dagon etxea
ze hutsa ta ze lausoa!
Ikus liteke partizioan
dagoela arazoa.

A. Sarriegi

Etxe batean inor ez dago
 beste baten bost lagun ba
 arazo horrek gizarte hontan
 sortzen du nahiko burruna
 baino ez nago oso konforme
 Unai hitz hoiek entzunda
 etxe bat baino gehio dauzkaten
 pertsonen grafika nun da?

A. Arzallus

Zazpi etxeko pertsonak nahiz ta
 ez ditudan konprenitzen
 etxe gabeko pertsonen baitan
 zer ote da ba ibiltzen?
 Sarri etxe bat erosi eta
 ezin ordainduaz hil zen
 igual ikasi behar genuke
 alokairuan bizitzen.

A. Sarriegi

Baino horien prezioa ere
 hobe da ez aipatzea
 irtenbidea agian laster
 kobetara bueltatzea.
 Normala degu gertatzen diren
 gauza hauek gertatzea
 bizitzeko ez edukitzeko
 erosten bada etxea.

A. Arzallus

Umore pixka't jartzea ere
komeni denez taldean
nahiz Andoniri behin edo beste
ibili naizen galdean
nork ez du ikusi izan Donostin
ta izan Zarautz aldean?:
pagatu ehun milioi etxea eta
egun guztia kalean.

A. Sarriegi

Baino holako bizimodurik
ez diot opa inori
etxearena pentsatuz gero
aztertu liteke ongi:
etxegabea ta etxe hutsak
ta beste asko galzori
hutsik daudenak okupatuta
errez konpontzen da hori.

A. Arzallus

Nik bankerorik ez dut zuritzen
ta aitortzen dut serio
lukurrerian aritzen dira
gu garela-ta medio
ehun ta hoge milioi dela etxea
ta esan dugu "Dedio!"
erosten dunak saltzaileari
arrazoi ematen dio.

A. Sarriegi

Baina zail dago etxea izaten
 ez bazera hortan sartzen
 zuk eta biok ere badugu
 zentzudun izan gaitzen.
 Baina kontu hau lehertuko da
 beste kontu askoren antzen
 ez ladriluak ta ez diruak
 ez dute tripa betetzen.

A. Arzallus 

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b5uc>

Gaia: Azkenaldian askotan entzuten duzun esaldi bat jarriko dizut gaitzat, eta esaldia da: “Lasai, gauzak aldatzen ari dira”.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Ekonomia zuhaitz batekin
 alderatzea onena:
 lehenago zuhaitz oparo bat zen
 ta hostoz betea dena
 baina pixkana bakantzen joan da
 azkenaldian barrena
 aldatzen doa zeren aspaldi
 negutu da udazkena
 baina haizerik ez da aldatzen
 ta horixe da problema.

Hostoz bakantzen halaxe doa
zerutik bailetor berez
nahiz eta batzuk beren barrutik
manejatzen duten errez
aldatuko da agian hostoz
aldatuko da kolorez
aldatuko da agian kabiz
bai eta txori dotorez
baina haizerik ez da aldatzen
ta pertsonarik ere ez.

“Zu lasai gauzak aldatzen dira”
jendeak ohi dio hola
baina txarrerantz dira aldatzen
ta haieri bost ajola.
Hola iraun nahi duenak sortu
du zenion parabola
ta horren kontra nik sinisten dut
sor liteke zirimola
sinis dezagun aldaketa hori
geure barruan dagola.

ZALLA (2013-05-17)

*Bertsolariak: A. Martin, A. Egaña, J. Uria, A. Arzallus eta
B. Amezaga.*

Gai-emailea: Jon Martinez.

Gazteek antolatzen duten jaialdia. Antzokian izan zen,
ilunabarrean.

A. Martin-A. Egaña

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b70o>

Gaia: Bertsolariak beti dabilta hona eta hara, euren artean abesten
plazarik plaza, eta hor adiskidetasuna asko jorratzen da;
noizbehinka adiskidetasuna baino gehiago. Zorionak Alaia,
haurdun zaude, eta asmatu nor den aita (Andoni). Gaur
esan diozu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Egaña

Herriz herri oholtzan gu
beti ika-mikan
haurrarena sorpresa
izan da kasikan.
Ez nago nerbioso
triste ez pozikan
guk ez baitugu egin
kantatu baizikan. (bis)

A. Martin

Ameslariak ginen
ta orain bi loti
plazaz plaza elkartuz
geltokiz geltoki.
Beste ezer izatez
ez dago egoki
ni haurdun geratu naiz
metaforikoki. (bis)

A. Egaña

Beraz haurra izaten
ez daukazu lanik
ez degula deus egin
neronek esanik
baina hainbeste grina
badauka Andonik
metaforaz gaindikan
egingo nuke nik. (bis)

A. Martin

Egitea ipini
ezkero helburu
argi zegoen ni ez
nengola seguru
ta orain zenbat lotsa
ta zenbat apuru!
Errimatu nahiean
poto egin dugu. (bis)

A. Egaña

Haur hori izango da
 gu bion zatia
 oholtzan sortu genuen
 ume tematia
 bertsoan amestua
 doinuei atxikia
 ta deituko diogu
 zortziko txikia. (bis)

A. Martin

Beraz izango dugu
 betirako lagun
 zu saiorik saio ta
 ni berriz alargun.
 Sexuan horren txukun
 zinenez zu jardun
 hamarreko txikia
 izenda dezagun. (bis)

A. Egaña

Izen aldaketanak
 egin dit grazia
 nik mingaina dut luze
 bestea gezia
 eta izan ezkero
 nahiko malezia
 deitu behar genioke
 neurri berezia. (bis)

A. Martin

Izengintzan zabilta
ilusioz trebe
honek izan lezake
hainbeste botere
ni erdi neurotiko
zu oholtzan errege
berezia izango da
izen gabe ere. (bis)



Bertso korrika ekimena

(Larraul. 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. XDZ

USURBIL (2013-06-15)

Bertsolariak: S. Lizaso, A.M. Peñagarikano eta A. Agirre.

Kalezar Auzoko Jai Batzordeak antolaturiko saioa. Auzoko plazan izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

A.M. Peñagarikano-S. Lizaso 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b834>

Gaia: Peña, janari-denda handi baten aurrean dagoen edukiontzi baten aurrean ari haiz janaria biltzen, haiek botatako jana biltzen, etxera eramateko. Burua altxatu, eta hor non ikusten duan kalera bota hinduen nagusia poltsa batekin datorrela.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Gure herriko bikariuak*

A.M. Peñagarikano

Nik bezelaxe hainbat arazo
makina't famili gaztek
gu ikusita esaten dute
"Orain ere bazetoztek".
Zakarrontzian janari bila
nik beste biderik ez det
nagusi jauna ontzi zahar hontan
zeorri sartuko zintuzket!

S. Lizaso

Bota zintudan gorroto nauzu
ta ez nauzu ikusi nahi
ze egoera daukagun hemen
ohartzeko ez zera gai.
Zerbait hartzeko hor egon zera
nik zerbait botatzeko zai
lehen jaten nik ematen nizun
eta oraindik ere bai.

A.M. Peñagarikano

Baina mesedez ez eman neri
horren arrazoi zorrotzik
ondo ezagutzen degu guk elkar
inortxo ez da arrotzik.
Poltsa hartuta oaindik fanfarroi
ta gainera oso pozik
hori egiten duen gizonak
ez du lotsa ez bihotzik!

S. Lizaso

Nagusi eta langilean hau
da aspaldiko burruka
krisiak jota bota zintudan
ni ez negon zure aurka
zu babesteko poltsakin nator
hori ez zaidazu uka
ez nizun ezer'e ekarriko
bihotzikan ez baneuka.

A.M. Peñagarikano

Poltsa hartuta horrela zabiltz
 hori da nahiko delitu
 langile batek inondik ere
 hori ezin ametitu.
 Dirua berriz gainezka dauka
 etxean ezin kabitu
 nahiago nuke zure semeak
 guztiak jango balitu!

S. Lizaso

Ez dakit nola egin litekeen
 nagusi on bat gorrota
 trastornaturik egongo zera
 edota burutik jota.
 Arrazoi hori ezin zitekeen
 hemen aurpegira bota
 zeuk zer janikan ez daukazu ta
 besteri jatea opa.

A.M. Peñagarikano

Ni bezelaxe hamaika joan da
 gaur egun lantokitatik
 gainera zintzo hitz eiten dute
 gero hauek telebistatik.
 Ze ingo nizukeen oraindik ere
 ez dakit eta ez dakit
 eta mesedez alde egin zazu
 nere begien bistatik!

S. Lizaso

Gorroto nauzu berriro diot
eta zeuretzat kaltean
orain artean hementxen zeunden
zeure aukera betean.
Berriro ez det jarraituko nik
daukadan borondatean
jaki hondarrak botako ditut
beste tokiren batean.

A.M. Peñagarikano 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13b95g>

Gaia: Lehen, hor, marmarka eta eztabaidan sumatu ditut gizonezko batzuk. Batzuek esaten zuten Peña mutilzaharra dela, ezkongabea; beste batzuek ezetz, ezkonduta dagoela; batzuek esaten zuten seme-alabak badituela, besteek ezetz, ez etxean behintzat; batek edo bestek hirurogei urte pasatuta omen dituzula, besteek ezetz; non bizi zaren ere inork ez zuen asmatzen. Jakin-nahi handia eta Peñaren oso informazio gutxi dago auzo honetan. Informazio pixka bat eman ezazu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

Izanez ere aspalditxoan
honera egin gabe jira
“Mutilzaharra da, ezkondua da”
hemen zenbat tirabira!
Ezkondu nintzan ezkondu nintzan
egi garbia hori da
ekainaren hoita hamarrean
hamahiru urte dira.

Ta familia ere badaukat
 ez al da gauza normala?
 Argi ta garbi aitortuko det
 seme jator bat dedala
 bederatzi urte Jokin izena
 sendoa eta zabala
 hura ikusita esaten dute
 “Peñaren igual-iguala”.

Emazteik gabe bizi izana
 berrogeitaka urtetan
 orain ze pozik bizi naizen ni
 lagun ona nola detan
 ta “Nun bizi zan?” galdetzen dute
 Kalexar auzo honetan
 oiartzuarra det emaztea
 ta bizi naiz Anoetan.

Berrogeita hamabost urte dauzkat
 guardia zibil edadea
 jubilatzeke ezin da izan
 sekula adin hobia.
 Beste gauza bat ahaztu egin zaizu
 gizon kalamidadea:
 kirolzale naiz, futbolzale naiz
 gainera Athleticzalea.

EREÑOTZU (2013-06-16)

Bertsolariak: U. Iturriaga, M. Lujanbio, J. Soto, I. Zubeldia eta J.M. Irazu.

Gai-emailea: Amaia Otxotorena.

San Antonio jaietako igande arratsaldean ohikoa den jaialdia. Pilotaleku inauguratu berrian izan zen, 19:00etan. Entzule asko.

U. Iturriaga-M. Lujanbio-J.M. Irazu
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bba8>

Gaia: Gazteago zinetenean, gazteriaren erreferente izan zarete. Lehen esaten zen bezala, gazteak baina prestatuak: iritzi sortzaileak, artistak, okupa... Hainbat adjektibo jar daitezke. Programa batean ere izan zenuten zerbait. Orain, gazteak bazarete ere, aldatuta zaudete. Zein aldatu da gehien? Norberarena edo bestearena ere esplika dezakezue.

Neurria: Lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

J.M. Irazu

Buruak nola engainatzen dun
ez nuen pentsa hainbeste
bi ume ere baditugu ta
gazteak gerala uste.

M. Lujanbio

Ni gaztea naiz ez naiz kanbiau
gaur gauzak garbi esanda
ta kanbiatu naizen apurra
mejoratzeko izan da.

U. Iturriaga

Esperientziaren ahotsetik
egin gurako nuke hitz:
ni arduratu egingo nintzake
aldatu izan ez banintz.

J.M. Irazu

Hogei urtekin etorri nintzan
Hernani aldean barrena
eta Hernani bera ez al da
gehiago aldatu dena?

M. Lujanbio

Etorri zinan eta berriro
Larraula juan horretan
eta ez dakit zu're ez zauden
dauneko bigarren bueltan.

U. Iturriaga

Azken batean esaera zaharrak
denboraz betetzen dira:
ahuntzak mendira bueltatzen dira
ta hernaniarrak Hernanira.

J.M. Irazu

Iturriaga zerorrek ere
bilintzi eta balantza
lepotik gora oaintxe daukazu
ezker paretaren antza.

M. Lujanbio

Bakoitzak estereotipo batzun
hala da Unai aditu:
gutxien espero ziran gauzak
Iturriagak egin ditu.

U. Iturriaga

Nire ile urdin hau dala ta
badago festa makala
gixarajoek ez dakite ondo
tindatu egiten dudala.

J.M. Irazu

Maialenekin garai batean
ere fijo zan itxura
jakin nahi nuke nun gorde dezun
buruko traputxo hura.

M. Lujanbio

Trapu zahar hori ibili nuen
bai urte batzutan zehar
oain burua ez zait juaten ta
zapirikan ez det behar.

U. Iturriaga

Jexux Mari ta ni zaharragoak
Maialeni buruz aitu
“Honek badaki honek badaki”
ta hara pasatu gaitu!

J.M. Irazu

Iturriagak lehen ehun zerbeza
hala're zutik mantendu
ta orain bata kendu diyo ta
zero zero edaten du.

M. Lujanbio

Egia esan makarra pinta
izan zuen garai baten
baina edade baten patilla hoik
ja ez dute ondo ematen.

U. Iturriaga

Zerbezaren kontu horretan ai
zuzen zabiltza ez uste
orain bakarra edaten du baina
mila edango lituzke.

J.M. Irazu

Eta Lujanbio Vancouberrera
hizkuntzak bere mentua
gustora asko entzungo nuke
zure ingles azentua.

M. Lujanbio

Nik inglesari atera nion
Irazu ahal nuen punta.
Zu haur zinala okupa ta orain
haurrekin okupatuta.

U. Iturriaga

Mundializatu egin da Maialen
joan zaigu Vancouberrera
ta orduan asko joaten zan
Tilosko banku berdera.

J.M. Irazu

Urteak asko pasatu dira
ta ez gera lehengo bera
lehen eta orain Ereñozura
gustora etortzen gera.

M. Lujanbio

Ia pasa dan gazte aroa
ia pasa dan denbora
gabea hemen geratu eta
probatu ein beharko da.

U. Iturriaga

Berrogeiera hurbiltzen eta
ni oso konforme nago
baina hori bai egingo nuke
apurtxo bat lo gehiago.

I. Zubeldia-J.M. Irazu

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bba8>

Gaia: Saioa ezin genuen bukatu frontoia aipatu gabe. Irazu etorri da bere semearekin frontoira, eta hor ari da jolasten. Iker geroxeago etorri da, eta hor dago zain eta zain. Bi ordu daramatzazu Irazuri eta haren semeari begira.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Praixku Galtazarreta*

I. Zubeldia

Irazu jaunak dauka
eundoko sasoia
semeak eman dio
seigarren jipoia
hau beti izan danez
okupa kabroia
lehenor etxean eta
oain berriz frontoia.

J.M. Irazu

Frontoia okupatzeko
on da familia
semearen gantxoa
ze erregalia!
Zu zai zaudela eta
sutan kiskalia
lehendik behintzat ez zaude
asko ibilia!

I. Zubeldia

Dejada eta gantxo
guztiak tupusten
gaztetan guk'e onak
egiten ginuzten.
Jokatzeko gogoz nau
ez al 'zu ikusten?
Nola plakatuko naiz
ez baiazu uzten!

J.M. Irazu

Premi pixka bat behintzat
badu alajaina
semeak ezkerrakin
lehenon nau engaina
beste ordubete behintzat
nik saio apaina
Ugaldetxon badago
zuretzako aina!

I. Zubeldia

Aditzen nuen honen
izardi usaia
bertan pasa nahi ditu
astelehen ta jaia
ta iritsi danean
bazkarin garaia
lau koadron montatu du
kanpineko mahaia.

J.M. Irazu

Lau koadron montatuta
osatu det plana
partidua jarraitzeko
nolako afana!
Euzkitzek bezala zail
Zubeldiak esana
baino egin zenezake
Joxean Tolosana.

I. Zubeldia

Euzkitzena ez dut nahi
ez dakit zertako?
Joxean Tolosa're
ez dabil galako
zahartzen ari da eta
ez dago hain guapo
igual hil egingo da
zuk bukatzerako!

J.M. Irazu

Aspertu xamar dabil
aurrera-atzera
koloriak'e oaintxe
gorritu antxera
zai asko egin dezu
ta bildu sailera
bostok txokoaketan
ibiliko gera.

LONDON (2013-06-22)

Bertsolariak: J. Uria, X. Gallettebeitia eta Igor Elortza.

Gai-emailea: Garikoitz Ibarluzea.

Urtearen erdialdera *bertso luncha* egin ohi dute Londonen, bertako Euskal Etxeak antolatuta. Bertso bazkari formatutik bertso saiorako aldaketa egin zuten, eta gustura geratu ziren emaitzarekin. Antolatzaileek esan digutenez, berrogeita hamarren bat lagun inguru elkartu zinen eta giro ederra izan zuten.

I. Elortza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bcck>

Gaia: Zer da izana eta zer da identitatea? Desberdintasunik ikusten duzu?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Filosofiko ipini gara
eta zer behar dut esan?
Behinola hezi ninduten haurra
ikastolan zein elizan
gero abiatu nintzen mundura
nortasunaren peskizan
tarteka libre izan naiz eta
tarteka inoren gerizan
identitateaz aparte ere
izan bat badugu izan. (bis)

Nik ere bena filosofiko
 txiki bat badut eta ai!
 Zeini ez zaio pasatu hemen
 denaz gain gehiago izan nahi?
 Beti munduan ezin da ibili
 itxaropentsu ta alai
 batzutan bila joaten gara
 beste batzutan gaude zai.
 Hemen guztiok garena gara
 ta ez garena ere bai. (bis)



Jornada Iberoamericana de niños y jóvenes poetas, troveros y versadores
 (5. 2013. Puebla, Mexiko) / (Mexiko. 2013). Mintzola Fundazioa. XDZ

ANDOAIN (2013-06-24)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, S. Lizaso, A. Egaña, M.
Amuriza, A. Martin eta O. Barroso.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

San Juan egunarekin aspaldidanik antolatzen duten jaialdia. Goiko Plazako pilotalekuan izan zen, lehenbizi herri kirol jaialdia eta ondoren bertsolariak, arratsaldeko zazpitan. Berrehunen bat lagun egon ziren saioa entzuten.

A. Egaña-A. Martin

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bdf0>

Gaia: Erretzaile ohia zara zu, Andoni, baina erretzeko gogo ikaragarria daukazu, monoa daukazu, eta Alaiia erretzailea da; laguna duzu. Zigarroa piztuta daukala, bere ondora joan zara. Hurbildu egin zara pixkanaka-pixkanaka, kea usaintzeko, baina Alaiak beste zerbait ulertu du.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nahiz ta hiltzea derrigorra den*

A. Egaña

Herriko jaiak ditugu eta
piztu didazu alarma
aspaldidanik lagunak gera
ni gizonezko zu dama
zure ondora hurreratu naiz
gainera ahal dudana
ene Alaiia zerbait badezu
neri gustatzen zaidana.

A. Martin

Barkatu baina bete-beteta
daukat ligen agenda
gaurkoan ere bihurtu zara
trago bat hartuta prenda.
Berriz harantza joan zaitezen
nahiko nizuke gomenda
holako aitzaki bat ipinita
ia edozein hurbiltzen da.

A. Egaña

Ba oraintxe det ta ez det galduko
hurreratzeko aukera
nahiz ta zenbaitek hartuko didan
viejo berdean tankera
ene Alaia neska berezi
neska espezial antzera
begietatik baino gehiago
sudurretik sartzen zera.

A. Martin

Ligatzekotan aldatzen dira
konturatzerako modak
gehiegi behintzat ez zaitu aldatu
azkenaldiko denborak.
Sudurzulotik sartzen naizela
agintzen dizu ganorak
jo ba zigarro bat piztu nahi dut
ba al daukazu metxero bat?

A. Egaña

Erretzailea izandu nintzan
haundia edo itzela
gero kolpetik utzi egin nion
oso naiz tipo txepela.
Nik metxeroa beti eukitzen det
nolatan bizi bestela?
Ondo baitakit zure sareetan
noizbait jausiko naizela.

A. Martin

Nahiz ta agian esan diozun
hori ia edozenei
zigarro bat nahi nuke gaur piztu
gero bi, hiru, lau, bost, sei...
Finantziatu egiten ditut
zigarro eta ke-hodei
alper-alperrik ez dut ordaintzen
lau euro eta berrogei.

A. Egaña

Tabakoari utzi ondoren
hor ibili naiz lur jua
tristetasuna bihurtu baitzait
garai bateko ujua.
Zuk ukatu ta atzetik¹⁵ eman
hortikan dator lujua
hau deabruak eman dit eta
ni inpernura nijua.

15 Atzeko bertsolariak seinalatu ditu.

A. Martin

Hurreratzeko eduki duzu
 horrenbeste zeremoni
 ta orain monoz egia esan
 jartzen hasita nago ni.
 Beraz ez zaitez hain egoista
 orain bihurtu Andoni
 azken kalada eman zaidazu
 zuri ez zaizu komeni.

A. Egaña

Adiskideak azkenerako
 lagun ditugu askotan
 eta lagunek segitzen dute
 bikote izan asmotan.
 Kaladatxo bat eskatu dezu
 eta ni ez nengon lotan
 kaladatxoa emango dizut
 dena konpartitzekotan.

A. Martin

Nikotinaren bila emango
 nizekizuke ehun muxu
 baina urruti ta interesante
 gisan ikusten zaitut zu.
 Nola tabernan berez badagon
 atmosferan nahiko putzu
 nahiz ta maitatzen ez zaitudan maiz
 zuk sutan ipintzen nauzu.

A. Egaña

Ta bota dezun aitortza horrek
badu bere balioa
ia Alaia osa dezagun
harreman bat serioa
ta sexualki nobedadea
egin dezagun trioa
a ze taldea neska gaztea
kalboa ta rubioa!

A. Martin

Nahiz umorea ta estiloa
zuga ditzakedan maita
zure nibelak ta arrazoiak
nahiz ta nitzakeen goraipa
ez naiz hasiko zure atzetik
hori erretzea baita
lehen *Ducadosa* zinen sexual
orain zara *Lucky ligtha*.

M. Amuriza-A. Mendiluze 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13behc>

Gaia: Aita-alabak izango zarete zuek. Aita eta ama banandu berriak dira, eta zu, Miren, amarekin zaude bizitzen, baina noizbehinka bisita egiten diozu aitari. Andoainen pisu txiki bat hartu du aitak, sartu zara etxean, eta sofan triste-triste aurkitu duzu aita. Pentsatu duzu zerbait egiteko garaia iritsi dela, eta bere itxura berritzen lagundu behar diozu aitari.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

M. Amuriza

Gabon aitatzko gaur be
 hementxe naukazu
 triste zaude ta kasu
 egin behar didazu
 goialdetik ilean
 premian zaude zu
 baina gazteagoa
 eman dezakezu.

A. Mendiluze

Guapoago nengoke
 ni ilearekin
 lehen dexente neukala
 behar dezu jakin
 guapo orrazten nintzen
 orraziarekin
 baina denak joan zaizkit
 disgustoarekin.

M. Amuriza

Serio jarri behar
 dugu buruz buru
 disgustoa ez dizut
 kenduko seguru
 baina beltzez jantzita
 zabitz munduz mundu
 dibortziatu egin zara
 ta ez alargundu.

A. Mendiluze

Baina lehenbizi nintzen
etxean gustora
orain luze egiten
zait neri denbora
ez nabil inorekin
ez noa inora
hortik alarguntzera
ze alde dago ba?

M. Amuriza

Laguntzen saiatu ta
zu arazoz bete
beste zerbait pentsatzen
saiatu ninteke
aldea badago ta
jarri zaitez tente
dibortziatuta berriz
berpiztu zintteke.

A. Mendiluze

Horretan ere ezin
lehengoaz konpara
“Jarri tente” esanda
ze planta den hara!
Herrena daukadala
bistan dezu jada
nere hanka-sartzeen
oroigarria da.

M. Amuriza

Hanka sartuta dago
ta dagoeneko
igual ez zara egongo
lehen baino hobeto.
Animatu ta ez zaite
jarri horren terko
baten bat behar duzu
besotik heltzeko.

A. Mendiluze

Ene alaba asko
saiatu zera zu
baina animatzea
lan zaila da aizui!
Zoaz amarengana
aukera daukazu
edo laister ilea
eroriko zaizu.

M. Amuriza

Ilea soberan dut
ta ez nazazu eten
triste-triste zabiltza
aita baina aurten
egia esan etsi dut
ta zer otu jaten:
hobe zaude usoei
ogia ematen.¹⁶

16 Aurreko bertsoaldi bati egiten dio aipamena.

A. Mendiluze

Egi bat bota dezu
gordin eta gorri
eta ate ondora
berehala korri.
Irrifarrez erantzun
diot egi horri
hau da behar dudana:
maizago etorri.



Bertso Eguna (45. 2013. Donostia)

[Alberto Elosegiren argazkia]. (Donostia. 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. XDZ

ZARAUTZ (2013-06-27)

Bertsolariak: A. Egaña, A. Martin, A. Estiballes, I. Zubeldia eta O. Aizpurua.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Iñurritza auzoan, Sanpelaio jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Ohi bezala, jendetza elkartu zen plazan, bostehun lagun baino gehiago. Jarritako aulki guztiak bete egin ziren, eta plazaren ertzetan eseri ziren bertsozaleak.

A. Estiballes

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bfjo>

Gaia: Azken urteetan, langile arruntok haziendarekiko kontuak garbi eduki behar izaten ditugu. Bertsolariak ere lupaz begiratzen zaituztete. Bitartean beste batzuk diruarekin nolanahi dabilta, monopolioan jolasten bezala.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator iparraldetik*

Gai honek hemen emango luke
berrogei bat bertsorako.

Hainbat langile eta enpresa
dabiltzan artean txarto
hamaika jende bizi da ederki
hamaika jende galako
gure hurbileko agintariak
hor esate baterako.

Nafarroa aldean hainbat urtetan
bizi izan dira bapo
bankuan sartu hiru bilera
dieta denak eurentzako
diru faltarik ez dute izan
honako eta harako
eta hain errez ibili dira
gure dirua zelako.

Behar lukete hau konpontzeko
hamasei orduz lanean
kontzientzi pixka't behar lukete
euren bihotz barrenean
baina lapurtu egiten dute
justiziaren izenean
guk aukeratu gabe hor daude
ta hor segi aidanean.
Inortxo ere espetxerantza
ez da joango zuzenean
baina hori bai inork ogi bat
gaur lapurtzen duenean
ze diferentzi garai bateko
bertsolarian esanean:
lapur txikiak kartzelan daude
lapur handiak kalean.

Barcnas sartu dute kartzelan
ez da egongo luzaro
Caja Madriden zegoenak ere
bi egun ez zitun igaro
eta Cristinak gure infantitak
pasa ditu zenbait trago
hainbeste etxe bere izenean
bereak ez ziren ze arraro...
Hemen Barcina dute Nafarroan
diru kontuetan mago
baina justizi gutxitxo dago
ta ez gara harritzen zeharo.
Langilea berriz behin zapalduta
gero ta zapalduago
hemen azpian dagoenarentzat
justizirik ez baitago.

ASTEASU (2013-06-27)

Bertsolariak: J.M. Irazu, J. Maia, M. Lujanbio eta A. Agirre.

Gai-emailea: Haritz Mujika.

Sanpedrotan urtero izaten den jaialdia. Orain arte frontoian egiten zuten, baina aurreko lehengo aldiz plazako karpan. Berrehunen bat aulki jarri zituzten, eta gutxi geratu ziren hutsik.

M. Lujanbio-J. Maia 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bgm4>

Gaia: Aita-alabak zarete, zu, Maialen, alaba, eta Jon aita. Zure aita adinean aurrera joanda dago, eta gaur klinikara eraman behar duzu urteroko azterketa pasatzera. Zure senideekin eztabaidatu ondoren, erabaki zenuen zuk eramatea, baina ederki damutu zaizu. Autoan sartu eta halaxe esan dizu: “Auto txikiagorik ez al zegoen?”. Gero, Villabonara ailegatzerako “Asko falta al da? Non gaude? Bide erdia baino gehiago egin al dugu?”. Andoain parean, nazka-nazka eginda, autobide erdian autoa geratu duzu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

M. Lujanbio

Dena keja ta marmar
dena zure kalte
isildu're ez zera ein
Andoainera arte
atta mututu eta
geldik egon zaite
edo residentzin ni
ingresauko naute. (bis)

J. Maia

Haseratik naukazu
buru berotua
hankak ezin luzatuz
gerri gogortua
ta konbertsazioa
ere agortua
eta kendu zazu ja
haize girotua! (bis)

M. Lujanbio

Haizia kenduko det
ezin egin uko
baino bilatuko'zu
beste zerbait truko
beti ibili zera
eoskor moduko
ta urteek ez zaituzte
zu mejoratuko. (bis)

J. Maia

Nola jarri didazu
neguko jertsia?
Ta autobian gelditu
hau atrebentzia!
Nun atera zenuen
txofer lizentzia
zuk nahi dezuna ez al da
nere herentzia? (bis)

M. Lujanbio

Ondo gobenartua
zenuen etxia
larogei urte ta ezin
harturik etsia
hutsaren hurrengoa
zure herentzia
eta bizi zerala
ze penitentzia! (bis)

J. Maia

Gezurra ematen du
zarenik etxeko
ze aldrebesa zeran
aurrekoz atzeko
ez ospital ez etxe
eta ez kotxeko
ez dezu balio ezta
briskan jokatzeko! (bis)

M. Lujanbio

Zenbat balio dezun
atta zuk kalkula
tentsioa igota
hezur batzuk zula
gota omen daukazu
gainera fistula
uste al dezu hogeita hamar
urte dituzula? (bis)

J. Maia

Badauzkat hogeita hamar
ta hogeita hamaika
goizian segarekin
ibili naiz aupā!
Zuk hil behar al dezu
sano zegon aita?
Goazen Asteasura
gaixotzen ai naiz ta. (bis)

A. Agirre 

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bhog>

Gaia: Azkenaldian, ingurura begiratuta, beste konturik ez da: krisia, langabezia, diru falta, gosea... Dena txarra, baina zure kezka, horien gainetik, beste bat da.

Neurria: Hamabiko ertaina

Doinua: *Gai honek badu mamia*

Nere bizitza da hiru
zutabe dituenā
ta bat da bertsolaritza
eta hau naiz naizena
bertso eskoletan hamasei
urteetan barrena
ikasleei eman nahian
barruan nuen denā
batzuk plazaz plaza dabiltz
ta harro det barrena.
Hoi da irakasle batentzat
lorpenik haundiena. (bis)

Bigarrena harremanak
 zutabe printzipala
 badaukat bikotea ta
 familia zabala
 ta ondorengoak ere
 badatoz ta ojala
 inoiz itzaliko ez balitz
 maitasunan bengala!
 Gaur egun badakit lehen
 ez nekien bezala
 zoriontasuna ere
 bilatu egiten dala. (bis)

Lanak dakar hirugarren
 zutaberako printza
 badaukat etxe bat eta
 hori ordaintzeko ditxa
 siniste't auzolanean
 maite det herrigintza
 guregan sinistea da
 lehenbiziko baldintza
 bizitzari minutuak
 eman nahian gabiltza
 baina hobe da ematea
 minutuei bizitza. (bis)

MUNGIA (2013-06-29)

Bertsolariak: U. Alberdi, J. Maia, X. Paya eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.

Urtean zehar hainbat hitzordu izaten dituzte bertsolariek Mungian, eta horietako bat Sanpedro jaietako izaten da. Andra Mari eliza zaharrean egiten dute. Elizaren hormak erorita daude, baina egurrezko itxiturarekin areto ederra dute plazan. Hirurehun bat lagun elkartu ziren.

X. Paya-U. Alberdi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13biqs>

Gaia: Zuek lagunak zarete, aspaldian elkar ikusi gabekoak. Hara non, Berlinen aurkitu zarete; bata zein beste, lan bila edo lana bitarteko dela.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

U. Alberdi

Hegoa pobre omen zen eta
iparraldera begira
gazte pila bat etorri gara
gure etxetik urrutira.
Bizimodua jada ez dago
gure patriken neurrira
harresi batzuk erori arren
beste batzuk jaso dira. (bis)

X. Paya

Ba bai hala da ekonomiak
 badau hainbat ika-mika
 ta harresiak altxatzen dabil
 gaur egungo politika.
 Zuk zeuk ostera beharko dozu
 barruko kemen polita
 nik neuk ezingo neuke etorri
 alaba hantxe itxita. (bis)

U. Alberdi

Zilbor-hestea ere mozten du
 etxean bizi ezinak
 eta nik hemen jasango ditut
 alaban hutsaren minak.
 Gaur gutxira arte beste batzuei
 ezikusia eginak
 ohartu al zara orain gu biok
 bihurtu gara etorkinak? (bis)

X. Paya

Hainbat etorkin gara jadanik
 bardin mutil edo neska
 eta Berlinek geugaz sikira
 egin behar dau gainezka.
 Heriotza zan geure lurrean
 ia eguneroko kezka
 hemen bizirik irauten dogu
 baina bizitzerik ez da. (bis)

U. Alberdi

Orain artean Euskal Herrian
ona zen bizi nibela
protesta haundirik ez genun eiten
bero zenean sakela
ta orain berriz ohartu gara
gu lan eske gatozela
batzuk aberats iraun dezaten
pobreak behar direla. (bis)

X. Paya

Baina gosea zabaltzen dabil
geurean alderik alde
ta konponbide eskean behintzat
ez politikoei galde.
Abiadura handiko tren
egin behar zan debalde
ta abiadura handienera
ein behar izan dogu alde. (bis)

U. Alberdi

Sillan jarrita herri hobe bat
batzuek dute helburu
ta bitartean gazte pobreak
hor gabiltza munduz mundu.
Zerbait aldatu nahi baldin bada
ezin da egon seguru
politikoak pobretuz gero
agian lortuko dugu. (bis)

LASARTE-ORIA (2013-06-29)

*Bertsolariak: A. Labaka, B. Gaztelumendi, A. Azpiroz,
P. Etxeberria, M. Lujanbio eta A. Egaña.*

Gai-emailea: U. Muñoa.

Sanpedro egunarekin urtero egiten duten jaialdia. Hainbat belaunalditako bertsolariak oholtzan eta jende asko haien bertsoak entzuten. Saio polita osatu zuten; umorea izan zen nagusi.

B. Gaztelumendi 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bjt8>

Gaia: Beñat asko estimatzen dut, baina gehien gustatzen zaidana da Habaneran nola egiten duen bertsoan, bakarka, eta gaur hori eskatuko diot. Gainera, aurten Kuban ibili da, Aste Santuan. Kubak zeresan handia ematen du, politikoki gehienbat: sozialismoa badela, ez dela, Fidel, hilko dela, ez dela hilko... Horren inguruko hausnarketa bat eskatu nahi diot Beñati, baina hiru ikuspegi desberdinekin, eta bertso bakoitzean ikuspegi bat erabiltzea nahiko nuke. Lehenengo bertsoan, zure bertsolari izaera baliatuz herriari, plazari kantatuko zeniokeena; bigarrenan, konfiantzazko lagun bati, gertuko bati, pribatuan kontatuko zeniokeena, eta hirugarren bertsoan, Kubako gazte bat bazina, kantatuko zeniokeena.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Kubaz ze esan nezake?
Ai Euskal Herri maitea!
Herri bat amesten duna
guk bezelaxe jatea
belaunaldiz belaunaldi
aurrerantza joatea
askatasuna, elkartasun
laguntasun ta pakea
dadukana ezkerreko
munduen borondatea
baina ai hain da astuna
Amerikaren katea!
Ni Kuban konturatu naiz
ze nahi dezu esatea
batzutan zeinen zaila den
uharte bat izatea.

Han ez da ezer oparitzen
regateatzen da dena
ohitura haundia dute
dantza egitearena
eta ai Muñoa zer da
jakin nahiko zenukeena?
Ni izanik hain mutiko
formala eta zuzena
kresala arnasten dela
sarri Habanan barrena
ta pertsonak edukita
aldatzeko ahalmena
lehengo tokian bizi naiz
lehengoa daukat izena
Kubatkan bueltatu naiz
baina ez naiz joan zena.

Ta demagun kubatar bat
 naizela esan bezala.
 Kuba uhartetxo bat da
 ez luzea ez zabala
 diruz ez da aberatsa
 baina ez da horren apala
 badakit munduarentzat
 eredu izan gerala
 baina guztia ez degu
 guk nahi bezain mundiala
 pare-parean daukagu
 Floridako kapitala
 eta atzean Haitiko
 pobreziaren kresala
 itsasoak bereizten du
 Kuba ta bere itzala.

A. Labaka-P. Etxeberria

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bm20>

Gaia: Badakizue aurten eguraldia ez dela ondo portatzen ari, eta baratzetik bizi behar duenak nahiko komeri badauzka, dena berandu, eta horixe da Patxiren arazoa: baserritarra, eta aurtengo uztak ez ditu aurreikuspen onak ematen. Krisia, gainera, tarteko. Ane, ikusten duzu aitona kezkan eta kezkan. Ane ere jardun da bueltak ematen, eta halako batean aurkitu du zerekin lagundu, baina beldurra ematen dio proposatzeak. Legez kanpokoa da, ez daki aitonak nola hartuko duen, baina egia da gazteek asko erretzen dutela, eta egia da merkatuan garesti saltzen dela, eta dirua ematen duela. Orduan, Patxi, Anek proposatu dizu marihuana jarriko bazenute, agian aurtengoak pasatuko zenituzketela. Ez dakit Patxiri ze irudituko zaion, nola hartuko duen...

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Labaka

Baratzeko galera
ezin da kalkula
badakizu guztia
galduko zaizula
aukera ona dela
ezin disimula
probatu ezker baietz
esango dezula. (bis)

P. Etxeberria

Maitea badakarzu
hainbeste pikardi
nik zertako bota det
lehen hainbat izardi?
Baratza egin nahian
al zatoz bi erdi?
Aitonak mantentzea
nahiko luke garbi. (bis)

A. Labaka

Bilobak ere nahi du
garbitzea azkar
azkenaldian dago
hoi usteldu xamar.
Baietz asko eskertu
urte hontan zehar
ongarririkan ere
ez dulako behar. (bis)

P. Etxeberria

Ez al dezu hartu zuk
 Ane arretikan?
 Hortarako ez dauka
 aitonak betikan
 baina ez zait faltako
 zuretzat bueltikan:
 lehen ere aski daukat
 belar txarretikan. (bis)

A. Labaka

Ez dela horren txarra
 da nere aukera
 probatu nahi al dezun
 hor nere galdera
 reumarekin zabiltza
 gora eta behera
 probatzen dezunean
 sendatuko zera. (bis)

P. Etxeberria

Konturatu zaitea
 nere esanean
 esplikatuko dizut
 gauza zuzenean:
 gaitzak etortzen dira
 bat zahartzen denean
 sendatuko naiz egualdik
 ontzen direnean. (bis)

LESAKA (2013-07-07)

Bertsolariak: X. Silveira, E. Fernandez, M. Lujanbio, A. Estiballes eta S. Lizaso.

Gai-jartzailea: Bortzirietako Bertso Eskola.

Gai-emailea: Alaitz Rekondo.

Sanfermin egunez herriko gazteek kiosko aurrean dantza egin ondoren, bertsolariak igotzen dira oholtzara aspaldidanik, Lesakan. Herritar asko elkartzen da plazan eta giro ederra izaten da.

S. Lizaso-X. Silveira 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bm20>

Gaia: Bi apaiz zarete. Urte aunitz daramazue lan horretan. Agerian da jendeak gero eta arropa gutxiago eramaten duela, batez ere jende gazteak. Iritzi desberdinak dituzue gai horren inguruan.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

X. Silveira

Demoniuak egingo zuen
urtero datorren uda
gaztek arropak kentzen dituzte
txapela jarriz burura.
Tokitan dago garai bateko
fedez zintzotasun hura!
Dudarik gabe mundu honetan
Satanas nagusitu da. (bis)

S. Lizaso

Orain daukagun moda klaserik
ez zegoen ez lehenago
Eleizak ere aldatu behar
edo bestela akabo!
Erropa gutxi gaizki dagonik
nik behintzat ez dut esango
animak ez du zer sufriturik
gorputza fresko badago. (bis)

X. Silveira

Freskotasunak berotasuna
ez du inoiz urrunean
batzun freskurak besteak jartzen
ditu berotasunean
lau zentimetro oihal bertzerik
ez dabilkite soinean
pentsatu nola ote dabiltzan
bistan inor ez denean! (bis)

S. Lizaso

Zaharkitua zer arraiotan
jarri zera zaputzean?
Zer ajola du bikiniakin
edota tanga hutsean?
Hemen bakoitzak jakin behar du
zer ibili gorputzean
Jesukristok'e erropa asko
ez zedukan gurutzean. (bis)

X. Silveira

Hori egia da baina bere
borondatezko ote da
edo behartuta igoko zuten
gurutze hartara bera?
Bekataria zigorrarekin
bakarrikan sendatzen da
pozik igoko nituzke gazte
guzti hauek gurutzera! (bis)

S. Lizaso

Gazteak ere zenbat gurutze!
Noski bakoitzak beriak.
Modan ez dagon apaiz zaharrak
zer-nolako komeriak!
Eta ulertu ezin baditu
gizartearen egiak
betaurrekoak ez dira aski
itxi itzazu begiak. (bis)

X. Silveira

Horretarako ez ote nuke
hobea ez begiratu?
Tentazioak ez nazan bere
atzapar beltzetan hartu.
Arropa ia dena erantziz
ez dakit zer nahi den lortu
kanpokaldea erakutsi o
barrukaldea tapatu. (bis)

S. Lizaso

Kanpo ta barru bere erara
osatzen dirade fedez
zer ari zera konponezina
nola konpon leiken galdez?
Soberan zaude zeure kargutik
dimititu zuk mesedez
Aita Santuak egin bazuen
apaiz zaharrak zergatik ez? (bis)



Bertso Eguna (45. 2013. Donostia)

[Alberto Elosegiren argazkia]. (Donostia. 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.

IRUÑEA (2013-07-11)

Bertsolariak: M. Lujanbio, E. Lagoma, X. Silveira eta A. Martin.

Gai-emailea: Alaitz Rekondo.

Sanferminetan izaten diren jaialdietako bat, Takonera parkean, *Oinez* gunean. Denera hirurehun bat entzule, zuhaizpeko mahaletan eserita.

M. Lujanbio-X. Silveira

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bn4c>

Gaia: Iruñeko Udaleko bi zinegotzi zarete. Aurten txupinazoarekin gertatu dena ikusita, hurrengo urterako lege berri bat pentsatu edo proposatu nahi duzue, berriz ere gauza bera ez gertatzeko. Dena lege berriekin konpontzen da, eta zuek ere zerbait pentsatu nahi duzue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Dama askoren engainagarri*

M. Lujanbio

Zinegotzien amor propio
haizatuak, mailatuak
biolento hoiek orain'e ze
zirrikitu bilatuak!
Hurrengo urterako ideiak
jar ditzagun pilatuak:
nik prezintatu eingo nituzke
balkoiak ta teilatuak.

X. Silveira

Bai baina pixka bat inbertitu
 behar da prebentzioetan
 ta gaizkilea zein den igerri
 daiteke aurpegietan.
 Bada tokia eraiki berri
 dugun kartzela horretan
 beraz txapel ta bizar dutenak
 sartuko ditugu bertan.

M. Lujanbio

Txapela ta bizarra duena
 hala're jende asko da
 ez litzateke ideia ona
 ezin leike egin proba.
 Nik plazan soilik hartu nahi ditut
caballero ta *señora*
 sarrerako kale kantoietan
castinga egin beharko da.

X. Silveira

Baina *castingak* faltsu gainditzen
 ikasia du jendeak
 pendejo hutsak direnak berez
 dira *mocico* nobleak.
 Hemen etxeetan dago errua
 teilatutako kableak
 uztailan zehar bihur ditzagun
 etxe deskapotableak.

M. Lujanbio

Etxeak egin deskapotable
eta herritarrak urtu
ta gure aldekoek dauzkaten
neuroma apurrak ximurtu.
Ez, abilago izan behar da
ta egoera neurtu
ta jakin nola euren meritua
gure onura bihurtu.

X. Silveira

Beraz aurrekoak zapaltzean
du oinarria gure dantzak
esan nahi duzu burutik behera
jartzen has gaitezen galtzak.
Nahiz txuriz jantzi guk esatea
diozu direla beltzak
iruditzen zait gu ez garela
hainbesterako kapazak.

ALEGIA (2013-07-12)

Bertsolariak: N. Elustondo, I. Elortza, J. Maia eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Iker Iriarte.

Karmen jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Kultur etxean izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

N. Elustondo-I. Elortza 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bo6o>

Gaia: Nerea baserritarra da, eta Igor dendaria; denda txiki bat dauka Alegian. Nereak egunero bere barazki eta produktu freskoak jaisten dizkio Igorri dendara, Igorrek dendan saldu ditzan, baina kontua da gaur Igorrek Nereari esan diola bihartik aurrera ez barazki eta ez produktu gehiago ekartzeko.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ari naizela ari naizela*

N. Elustondo

Nahiz ta neguan eduki degun
 nik ez dakit zenbat laino
 produktu onak bildu ditut ta
 gerturatu dendaraino.
 Gehiagorikan ez duzu behar
 baina zer diozu? Joño!
 Nere produktuk hobeak dira
 MercaBilbaokoak baino.

I. Elortza

Zuk badakizu kostu haundia
daukala ondo jateak
ta Alegiko nire erosleak
ez dira hain tunanteak
dendan sartu ta gero erosteko
asmorik ez du jenteak
Golden sagarra ematen du-ta
zure aurtengo tomateak.

N. Elustondo

Itxura denez produktu hoiek
ez daude berdetik salbu
bainan hala're nik gaur ez zaitut
somatzen halako malgu.
Zure jokaldi horrek inongo
zentzurikan aizu ba al du?
Hogei zentimo ordaindu neri
ta zuk bost euroan saldu.

I. Elortza

Gure denda honek igual uda hau
ez du errez pasatuko
gurean ere bada krisia
faktura eta asunto.
Lau euro ere jenero hori
pozik nuke ordainduko
gaitz erdi gero erdia ez balitz
neure dendan ustelduko.

N. Elustondo

Hainbeste tasa ta hainbeste gastu
 hor agertu zara kexu
 zer dela-eta bota dituzu
 beltzak diren hainbat mezu?
 Orain artean geizki antxean
 ohituta ez al zaude zu?
 Nik merkeago ezin det saldu
 zuk bai egin dezakezu.

I. Elortza

Gu biok ere larri gabilta
 hau nola doan begira
 bai baserri ta bai denda txiki
 laister erre kara tira.
 Hemen jendea ustez gure alde
 baina itxurakeri hori da
 gero erostera joaten dira
 Tolosako Eroskira.

N. Elustondo

Egia da bai Tolosaldera
 ematen dute pausoa
 ekologiko ta organiko
 nahiz pasa egun osoa
 biztanleekin gertatzen dena
 bai baita kurioa
 diskurtso oso polita dute
 baina hoixe diskurtsoa.

I. Elortza

Kontua beltza ipini dugu
ta beltzegia akaso
geure herritarrei geure erosleei
zer dela-ta egin eraso?
Baina ohartu beharko dira
argiak baitira oso
geure lurrean landatu ezik
gero ezin dela jaso.



Bertso Eguna (45. 2013. Donostia)

[Alberto Elosegiren argazkia]. (Donostia, 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkartea. XDZ

MARKINA-XEMEIN (2013-07-16)

*Bertsolariak: I. Ibarra, J. Maia, F. Paia eta B.
Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Haizea Caminos.

Herriko jaietan antolaturiko jaialdia. Uhagon kulturguneko kanpoaldean izan zen, parke zoragarri batean, eta hirurehun bat lagun inguratu ziren saioa entzutera.

I. Ibarra-F. Paia 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bp94>

Gaia: Zu, Iratxe, madalena bat zara, eta zu Fredi galleta *Maria*.
Denbora pasatu ahala, zergatik gogortzen da Iratxe madalena,
eta Fredi galleta bigundu?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Igande arrats eztiño batez*

F. Paia

Nahiz jakituna ez izan oso
bolleriarren zientziaz
ideia batzuk botako ditut
nire izaera nagiaz.
Askok daukagu sukalde armairu
bete galleta *Mariaz*
ta denboragaz bigundu ohi naz
esnearen nostalgiaz.

I. Ibarra

Beraz bigundu egiten zara
denporaz ta nostalgiaz
eta besteok barriz ez gara
bigun mantentzeko kapaz.
Arazotxo daukazu antza
neuk legez zuk esneagaz
nik esneagaz pentsatze hutsagaz
gogortu egiten bainaz.

F. Paia

Gure amamek sukalde bete
galleta zuten uneka
mendeetan zehar galletalogiak
eman ditu ehun buelta.
Ni biguntzen naz jaten nauena
ere bigunduz tarteka
gauza bat galleta *Maria* da
bestea maria galleta.

I. Ibarra

Liburuetan be *Magdalena*
dabil lehenengo ileran
nahiz ta batzuek nire lakoa
gurago daben aukeran.
Beti negarrez ibili ohi naz
beti kejaka ta teman
ta historia aldatzearren
gogortzea pentsau neban.

F. Paia

Hasia naiz ba zeozer ulertzen
 gaur zurekin hara hara!
 Zita bibliko bat ekarria
 duzu bertatik bertara.
 Hura negarrez zebilelako
 zu gogortzen omen zara
 orduan zure gogortasuna
 jarrera feminista da.

I. Ibarra

Beti negarrez ezin da egon
 hoba barrea, algara
 ta aldatzea pentsatu neban
 egun baten beharbada.
 Zuk dinozun lez igual batzutan
 hau jarrera hori bada
 baina txokolatetan bustita
 agudo biguntzen gara.

F. Paia

Ta zer gehiago esan litekeen
 hementxe nabil ezbaian
 bolleriarren transformazioei
 zentzu bat aurkitu nahian.
 Azken bertso bat abestuko dut
 entzuleak uler daian:
 barkatu otoi ni jaio nintzen
 txokokrispien garaian.

I. Ibarra

Halan ta guzti gozetan doguz
hainbat jenteren barrenak
gu jan ostean uxatzen dabez
hainbatek barruko penak.
Beraz alperrik gogortu eta
biguntzeko emon ordenak
jan daiazala napolitanak
gu maite ez gaituenak!

B. Gaztelumendi-J. Maia

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bqbg>

Gaia: Zuek biok Asier Illarramendi zarete. Real Madridera joateko erabakia hartu orduko gauean, zu, Beñat, Asierren bihotza zara, eta zu, Jon, Asierren poltsikoa.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ilun ikarak azken argia*

J. Maia

Poltsikoa naiz pragmatikoa
esateko ez naiz lotsa
kontu korronte senti ninteke
koltxoipeko edo poltsa.
Taupa ta taupa hor entzuten det
non dabilen zure hotsa
bila ta bila ari naiz eta
hementxe zaude bihotza.

B. Gaztelumendi

Ta bihotzari eskudotxo bat
jartzen zaio kamisetan
ez dakit ziur ez naizen galdu
bizitzaren balizetan.
Nahiz ta bihotza ta poltsikoa
maiz egoten diren bertan
nolako hotza egiten duen
izara zuri hauetan!

J. Maia

Nolako hotza egiten duen
baina egin behar da zirt zart
poltsikoori igual zaizkigu
izenak, eskudo markak...
eta gainera minori baten
zaudete zuek erabat
poltsikoak gu pila bat gera
ta bihotza bakarrik bat.

B. Gaztelumendi

Eta zaila da bihotz bakarrek
hori dena berdintzea
futbolak duen enpresarien
gose hori arintzea.
Futbola zer da baloi batekin
mundu oso bat harritzea
edota gure sentimenduei
ostikoka aritzea?

J. Maia

Egin daiteke zelai gainean
ostikoa zein karrera
joka daiteke txuriz jantzita
zein txuri ta urdinera.
Zerrek mugitzen ote gaituen
egiten dezu galdera
sentimentuan finkatzen gera
dirutan mugitzen gera.

B. Gaztelumendi

Baina tamalez diruak nekez
beratuko du bihotza
hala gabiltza beti dirutan
oparo ta beti lotsa
erakargarri izan daiteke
Florentinon txintxin hotza
baina gai ote da isiltzeko
Anoetako txistu hotsa?

J. Maia

Txistu hots hori txorrada bat da
zer ari zera esaten?
Zer ajola du haize pixka horrek
denek txistu jo dezaten?
Milioi bat edo bi milioi t'erdi
jarri biak mahai baten
zuek pentsatu horren aurrean
zer egingo zenuket.

B. Gaztelumendi

Guztientzat da gauza ederra
 arrakastaren lurrina
 baina nik ere espinillera
 jarri nuen ikurrina.
 Maiz errexa da guk segitzea
 diru hotsaren uhina
 nere ametsek ordea dute
 kolore txuri-urdina.



Arabako Bertsolari Txapelketa (11. 2013) Finala

[Haizea Pastorren argazkia]. (Gasteiz. 2013). XDZ

ZUMAIA (2013-07-19)

*Bertsolariak: J. Soto, S. Lizaso, I. Elortza, A. Mendiluze,
S. Colina, J.M. Irazu, M. Lujanbio, E. Abasolo, U.
Iturriaga, A.M. Peñagarikano, A. Agirre eta I. Zubeldia.*

Gai-emailea: Jon Maia.

Zumaiako Arraun Elkartearen alde antolaturiko jaialdia. Aitamari zineman izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Dena bete zen, eta giro bikaina sortu zen. Urtero egiten dute egun-pasa bat bertsolariek Zumaiara, arraunean ibili, bazkaldu, afaldu... Eta arraunean egiteko Arraun Elkartearen tresneria erabili izan dute. Oraingoan, egun-pasaz gainera, jaialdia egin zuten, Arraun Elkarteari laguntzeko.

A.M. Peñagarikano-S. Colina 🎵
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bsg8>

Gaia: Lehen azaldu dut zergatik gauden hemen bertsolariak, baina jendeak ez du seguruenik historia guztia jakingo. Hain zuzen ere, nondik datorren azken hamabi urteotan bertsolariak Zumaiara arraunera etortzeko ohitura, zer motibo dauden hor: gida-baimen bat dago tartean, Peña ere arraunlaria izana da Tolosan... Bertsolariak hemen ibili izan gara bai Erribera kalean zipriztinak ateratzen, bai errioan. Kontatu ezazue bertsotan gaur hona ekarri gaitun motiboaren historia.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Dama askoren engainagarri*

A.M. Peñagarikano

Geratu gabe ibiltzen gera
 batera eta bestera
 hamabi urtez huts egin gabe
 danok Zumaia aldera
 ta hasera zer izan ote zun
 hori da zure galdera
 ni Tolosatik etorri nintzan
 arraunen erakustera.

S. Colina

Neri're noizbait jarri zidaten
 hona etortzeko zita
 lehorrekoa izanagatik
 pozik egin nun bisita
 aldageletan sartu ta jantzi
 eta preparatu ti-ta
 ta batelean han zegon Peña
 ziklista guantek jantzita.

A.M. Peñagarikano

Hemen jendeak sinistuko al du
 txistea izan leikena?
 Nik azalduko det motiboa
 edo zioa zuzena:
 “Peña hemen dek esaten zuen”
 Maiaren ahots ozena
 hain zuzen ere nere batelak
Emendek zuen izena.

S. Colina

Kontuak kontu pasa ditugu
trainerua zein batela
liga asmatu baino lehenago
hartu gendun *San Miguela*.
Arraunarena ere ez al da
Peña inbentu itzela?
Hemen bakarrik esan didate
etzaten txarra naizela.

A.M. Peñagarikano

Etzaten ere jakin behar du
neurriaren arabera.
Hasi baginan gu hasi ginen
gustora etortzen gera
legorrekoa naizen ezkerro
garbi noa esatera:
Zumaiara etorri beharra zegoen
kakalardoa jatera.

S. Colina

Kontuak kontu pozik ibili
gara hamabi urtean.
Horrexegatik utzi nahi gendun
hondar ale bat trukean.
Beitu zazute atzekaldera
ta pentsatu bapatean
nor ibiltzen zen traineran eta
nor joaten zen yatean.

A.M. Peñagarikano

Motiboak asko ditugula
guk garbi asko esana
Maiaren proiektu erraldoiak
bildu gintun elkargana.
Dana ez dezu zuk garbi esan
ene Colina laztana:
Sebastian bakarrik degu hemen
trainerun sartu ez dana.

S. Colina

Xebaxtiani utzi pakean
nahiz ez dezun egi faltik
uretara ez da arrimatu
hola ez zun sartzen hankik.
Gaur bezalako egun haundiak
ederrak dira badakit
eta hau dena posible izan da
Maiaren karnetagatik.

A.M. Peñagarikano-I. Zubeldia 🎵
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13btik>

Gaia: Ikerrek ere lehengoa goresten duten mentalitate horietakoa du. Baserritarra da, eta berezko sasoi eder hori badu, eta pentsatu du bere indar hori arraunean probatzea. Entrenamendua baino ordu laurden lehenago, lege zaharrean, kriston xerra bokadiloa jaten ari da, hantxe, lokalean bertan, aldageletan. Oraingo fisioterapeuta modernoa, Peña, begiak zabal-zabalik, ezin sinetsita, begira dauka: “Hik zer uste duk dela arrauna, indarra bakarrik?”.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria*

A.M. Peñagarikano

Baserritar hauekin
nago harrituta
hauekin darabilkit
hainbeste disputa.
Basatiak dirala
ez leike izkuta.
Zer egin behar dezu
hoi dana sartuta?
Behi puska hori janda
txala eingo dezu-ta! (bis)

I. Zubeldia

Nik tripa betetzen det
horrelakoetan
nola hasi aurretik
nik gosea detan
hiru xerra sartuta
ogi baten bertan
laxte presentauko naiz
ziabogan bueltan
ze gehio behar da ba
potzu xahar honetan? (bis)

A.M. Peñagarikano

Holako zebreak
etorri mundura
jatea beti izan da
beraien kultura.
Barkatu ez daukazu
deportista itxura
ja'itzazu espagetiak
edan zazu ura
zuk hartu nahi badezu
behar dan figura. (bis)

I. Zubeldia

Beti deportistea
 izan naiz mahaikoa
 nik zertzuk jan ditudan
 alajangoikoa!
 Baina sasoia daukat
 kategorikoa
 bat'e urik probau be
 a ze mutikoa!
 Lehen'e hemen badago
 hortatik nahikoa! (bis)

A.M. Peñagarikano

Muturra dauka gorri
 azkazalak zikin
 zer egin behar ote da
 horrelakoekin?
 Jo ta ke hemen hasi da
 ekin eta ekin
 palai hola beidatuz
 harridurarekin
 arraunan ez da egiten
 atxur kertenekin. (bis)

I. Zubeldia

Arroza eta fibra
 ez det entenditzen
 komonen zaile dago
 patxaran gelditzen.
 Zeoze egingo det
 ez banaute hiltzen
 xerra edar bat janda
 arraunak astintzen
 gasoilekin ez dira
Ferrarik ibiltzen! (bis)

A.M. Peñagarikano

Zer egingo ote du
ez dakit ez dakit!
Igual alde eitea hobe
gure traineratik.
Tankera txarra hartu
ta horra zergatik:
benga heldu arraunai
behar dan lekutatik
ta atera itzazu eskuak
zure patrikatik. (bis)

I. Zubeldia

Nola sentitzen dedan
kolore gorria
traineru baten nago
patxaran jarria.
Ardo ta sagardoa
ditut iturria
ta aldatzeko zuen
egoera larria
ni izan ninteke gaur
fitxaje berria. (bis)

ZORNOTZA (2013-07-22)

Bertsolariak: O. Bartra, J. Soto, I. Zubeldia eta I. Elortza.

Gai-emailea: Xabier Irakulis.

Zornotzako Kultura eta Euskara Zerbitzurako Herri Erakundeak antolaturiko jaialdia. Plazan izan zen, gaueko bederatzietan.

I. Elortza-J. Soto 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bul0>

Gaia: Zuek biok Astilleroetako bi langile zarete. Azken epaia entzun eta gero, galdetu duzue: “Orain zer?”.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Garai bateko baserritarra*

I. Elortza

Soldata bat da familia bat
eta makina bat ames
lortuko gendun lortuko ez gendun
baebilen nahiko esames
ta orain datoz diru laguntzaik
ez dagoela esanez.
Babes pixka bat espero gendun
nahiz laguntzarik izan ez.

J. Soto

Babes pixka bat espero genun
belaunikatuz “Mesedez”
baina Brusela urruti dago
dena aurkako interes.
Jaso genitun diru laguntzak
itzuli beharrak berez
lehen geunden hari batetik zintzilik
orain haririk ere ez.

I. Elortza

Baina nik jada ontzioletan
behar egin dot luzaro
gure bezero gertuko hainbat
izan genduen lehenago
gero joan ginen urruntxoago
gero askoz urrunago
eta munduan inorentzako
familiarik ez dago.

J. Soto

Gure etxea gure famili
epaiketan bost ajola
eurek badute sakela bero
jarraituko dute hola.
Diru laguntza gabe zer gara?
Jarraitu al leike? Nola?
Itsasoan galdu den untzi bat
horixe da ontziola.

I. Elortza

Orain joan zaitez beste lanpostu
 baten bila hona, hara
 honek gerorik ez daukala da
 eta nire bihozkada.
 Ingurutako panorama ere
 bene-benetan txarra da
 icebergaren kontra jo dugu
 baina aterako gara.

J. Soto

Gugan tematu eta jarri zun
 zabaldua atzaparrak
 irtengo gara bai baina nora?
 Gaude ezkortu xamararak.
 Krisi deritzo eta ekarri ditu
 garai gogor garai txarrak
 kontsolamendu ezin da izan
 baina ez gara bakarrak.

I. Elortza

Ez gara noski hemen bakarrak
 asko dabiltz jo ta kean
 baina jaia ere egiten dugu
 baten ez bada bestean.
 Almunia ta koadrila hori
 bizi izango da bakean
 ezer pasako ez balitz legez
 egiten dugun artean.

J. Soto

Behera joan da ostalaritza
behera joan da industria
horrek ekarri du langileon
oinazea, angustia
nahiz ta gure bi begi pareta
den itsaso bat bustia
hodeiak pasatuko ahal dira
ta irtengo du eguzkia.

J. Soto 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13bvnc>

Gaia: Bizarra moztu barik etorri zaren arrantzalea zara. Itsasoa harro
egon arren, gaur lana daukazu.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Itsasotik bizar luze
baina ez bizar zikina
Nafarroaruntz bidea
festa haundi Sanfermina
Miurak Estafetan gora
ta jendearen esprina
gaur uztaïlaren seia da
eguna argi egina
hamaika t'erdia dira
erlojuaren rin-rina
teilatura igo gara
disimuluz ahalegina
buru gainean txanoa
bizkarrean ikurrina. (bis)

Hemen euskararen aurka
 dena aitzaki, poesi
 ikurrina debekatzen
 eskuineko txit burgesi
 ikastolak diru gabe
 ia ezin da sinetsi
 baina guk kaskagogorrek
 ta ezin genuen etsi.
 Ikurrina bota dugu
 aurpegi zuri berezi
 balkoia tapatu dugu
 ta joan gara ihesi.
 Izorratu ez zenuten
 beste gauzarik merezi! (bis)

Balkoira Vall eta Maya
 minberatu, amorratu
 “Viva San Fermin San Fermin”
 esaten dutela altu.
 Jendeak ziztua jo du
 plaza aurea ze erretratu...
 Guk kendu dugu txapela
 ta Jarautan izkutatu.
 Bandera zer da finean
 forma koloredun trapu?
 Bandera oihal puska da
 masta punta baten altu
 baina munduan ez daude
 bandera aina estatu. (bis)

ARANO (2013-07-27)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, I. Zubeldia, J. Soto eta
S. Lizaso*

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

Santiago jaietan urtero izaten den saioa. Arratsaldean izan zen, frontoian jarritako karpan.

S. Lizaso-I. Zubeldia 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c0po>

Gaia: Zuek ezagutuko duzue noski Karabeleko arbola, panpano beltz hori; Goizueta eta Aranokoak han denbora luzea egindakoak zarete, auzokoa noiz pasatuko edo autoan zeinek eramango. Iker, gaur saio honetara etortzeko, trena hartu, Karabelen jaitsi eta arbola hartan zaude, zein pasatuko zain. Inor ez da pasatzen eta jada larritzen hasita zaude. Oraintxe, aurrean gelditu zaizu Joxe, bere Land Rover Santa Ana zaharrarekin, eta sartu zara barrura. Joxe lasai doa, bere bi ahari atzean hartuta eta konbertsazioa emanez. Ez dakit ordurako iritsiko zareten.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijo*

I. Zubeldia

Aranora netorren
bertso aitzakian
ta Zegamatik nola
dagon urrutian
egidazu leku bat
modu egokian
hiru kabitzen dira
bi dauden tokian. (bis)

S. Lizaso

Lasai bisita ez dut
eta gaitzetsiko
hau da hau suertea
ez dut sinetsiko!
Nahiz ta inor hartzea
ez izan graziko
ahari buru-gorri hau
nik ez dut utziko. (bis)

I. Zubeldia

“Atsalde on! Zer moduz?”
hasi naiz esaten
horrelakotan ez da
erreza izaten
hiru abere arrak
Land Rover zahar baten
aurten nahiko lan bada
arkumea jaten! (bis)

S. Lizaso

Lasai ez da izango
hainbeste endredo
arkume faltarikan
ez degu urtero
eta ahari hauekin
edozer espero
oporretara doaz
lanak einda gero. (bis)

I. Zubeldia

Oporretara doaz
nolako suertea!
Batzun bizimodua
ez da arlotea
Land Roverra daukazu
mozorroz betea
zein da ibiltzen dezun
desodorantea? (bis)

S. Lizaso

Galdera horrek jarri
mila konpromisu
desodoranteak ez du
hainbestean pisu
eta jakin-minetan
kezkati zaude zu
aharian buztanpean
errepara zazu. (bis)

I. Zubeldia

Harek buztanpean du
zuk dezun figura
aspaldi ikusi gabe
iturriko ura.
Uztaia gora-gora
lurretik zerura
gaur'e Land Rover-ean
nijoa kantura. (bis)

S. Lizaso

Rand Rover-ean zoaz
aitzaki ta usai
noizbaiten iristea
ez da zure etsai
iritsiko gera ta
egon zaite lasai
ta presa badezu egon
atzekoaren zai. (bis)



BBK Sariketa (21. 2013)

[Aitor Gonzalez Kintanaren argazkia]. (Bilbo. 2013). Bizkaiko Bertsozale Elkarte. XDZ

VILLABONA (2013-07-27)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, I. Zubeldia, A. Egaña, J. Soto eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Jaietan, urtero antolatzen dute jaialdia Villabonan. Ikastolako patioan izan zen, gauean.

J. Soto-I. Zubeldia 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c1s4>

Gaia: Bikotea osatzen duzue, elkarrekin ezkontzekoak zarete, baina ez zarete ados jartzen. Zuk, Julio, elizatik eta dotore jantzita ezkondu nahiko zenuke, gonbidatu pila batekin, eta nola ez, Gorritin. Zuk, Iker, ezkontza xume bat, elizatik kanpora, gertuko lagunekin, eta ahal dela udazkenean ez; eta Zegaman.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

J. Soto

Gorritin ezkontzea
nere kutizia
hirurehun gonbidatu
bazkari bixia
erregin-erregina
arroz delizia
zu izan Felipe ta
ni igual Letizia. (bis)

I. Zubeldia

Sartu behar al degu
 printzesa ta printzen
 traje bana jantzita
 jendea harritzen?
 Gero hirurehun lagun
 ez det entenditzen
 Gorritin ez baitira
 hainbeste kabitzen. (bis)

J. Soto

Aita, ama, lehengusu
 tia, koinatua...
 nere zaldia zure
 etxeko katua
 eliza txikia da
 madarikatua!
 Ba orduan ezkontza
 telebisatua. (bis)

I. Zubeldia

Ze espero lezake
 korbata nahi dunak?
 Gaur dana kabiarrak
 bihar azeitunak.
 Hobe abarkak jantzi
 aupa euskaldunak!
 Gero etorriko dira
 uniformedunak. (bis)

J. Soto

Nik traje kola-zuri
dotore soinean
zu korbata gorri ta
traje urdinean.
Hori bai elizara
ta maiteminean
eramango gaituzte
astoan gainean. (bis)

I. Zubeldia

Orain astoa nahi du
zail dago kunplitzen
lehen ere horretatik
osatua nintzen.
Hobe parranda egin
belaunak astintzen
eta apaiza jarri
platerak garbitzen. (bis)

J. Soto

Apaiza ezkontzetan
da norbait laikoa
plater ezin garbituz
ze katolikoa!
Elizara astoan
moda arkaikoa
lasai gauez izango
zara zaldikoa. (bis)

I. Zubeldia

Honekin nola nago
 posible ote da?
 Askotan egiten det
 holako galdera
 Joan zaiz Gorritira
 haizea hartzera!
 Ezkondu baino lehen
 dibortziatzen gera. (bis)

B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c2ug>

Gaia: Ez dakit ikusteko aukera izan duzun, baina esango nuke munduko bazter guztietara iritsi dela bideo bat, non hamaika urteko neskatala bat azaltzen den, Yemengo neskatala bat, bera baino hogeitaz urte zaharragoa den gizonezko batekin ezkondu nahi dutena bere gurasoek. Hori dela eta, bere osaba baten bitartez, ihes egin du. Bideo horretan kontatzen du ezkontzera behartzen badute, bere buruaz beste egingo duela.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Sarritan Yemen sentitu arren
 guregandik urrundua
 zure esanek jarri didate
 begirada lurrundua.
 Hamaika urteko horren bizitza
 ez dago ez leundua
 matxismoa da-eta sare bat
 herriz herri ehundua
 umetatikan ikas dezaten
 nolakoa den mundua.

Gizona baita akosadore
ta salbatzaile hurrena.
Egia esan ez da entzun dedan
historia txukunena.
Hemen bakoitzak aurkitu nahi du
bizitzan bide zuzena.
Hala're badet nik galdera bat
dardarka jartzen nauena:
zer da ni eta gizon horiek
desberdintzen gaituena?

Iruñean plazan gertatu zena
ez da aski kritikatzeko
ta antza denez Baionan ere
erasoren bat izan zen.
Ez dakit ziur non bizi geran
ondo geran konturatzen
ze errexa den maiz urruneko
gertakariak miatzen
ta gero zenbat kostatzen zaigun
ingurura begiratzen!

DONOSTIA (Zubieta) (2013-07-28)

*Bertsolariak: J. Soto, I. Zubeldia, B. Gaztelumendi eta
A. Laburu.*

Gai-emailea: Asier Azpiroz.

Santiago jaietan urtero antolatzen dute Zubietako jaialdia. Plazan hasi ziren kantuan, baina pilotalekura sartu behar izan zuten, euria hasi baitzuen. Ordurako agurra kantatuak ziren, baina berriz kantatzeko eskatu zien gai-emaileak, saioa behar bezala haste aldera.

A. Laburu-J. Soto 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c40s>

Gaia: Agin, hi ere atzo parrandan ibilita hago. Kostata baina esnatu haiz, begiak ireki dituk, eskua luzatu duk mesanotxera, eta hor papertxo bat, ohartxo bat, aurkitu duk. “Oso ondo pasatu dut zurekin. Behar banauzu, deitu”. Azpian telefono zenbaki bat ageri zen. Hamar-hamabost minutuz zalantzan egon zara, deitu ez deitu. Azkenean, deitu duzu, eta Juliok hartu dizu telefona.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

A. Laburu

Bederatzi zenbaki
sakaturik kontuz
gogoratu nayian
atzo gaueko suz
baina oraindik nola
ez nahastu pausuz?
Kaixo egun on zuri
gaur goizeko orduz
ondo pasa zenuen
eta nik zer moduz?

J. Soto

Gauaren hasieran
txupito vodka-ron
ta egin behar denez
dagonean bonbon
guk hala egin genun
bestea hor konpon!
“Nik zer moduz pasa nun?”
aizu egon egon!
Despistatuarena
ez egin tontorron!

A. Laburu

Nik maite ditut oso
bikote gaztiak
ahots femeninoak
leun ta eztiak
honek ahots zakarra
gizon ta ostiak...
Horrelako konturik
aipatze ez diak...
Merezi al du benetan
gogoraraztiak?

J. Soto

Memoria frestaku
 nahiko zizun kartak
 kendu nizekizun galtzak
 zuk niri abarkak
 hemengo uju eta
 hango zalapartak
 momentu ahaztezinak
 momentu apartak
 oaindik ez zaizkit joan
 latigoan markak!

A. Laburu

Ez dakit ba esnatu
 ote naizen garaiz
 edo oraindik gauden
 atzoko ameskaitz.
 Kasik hobe nun sartu
 izan banintz apaiz
 maitasuna itsua
 izate omen da maiz
 ta ni ONCEko kupoiak
 saltzen hasiko naiz.

J. Soto

Gaua iluna baino
 gure eguzkia
 ni zure mago eta
 zu nire aztia
 mahaian, sofan, sukalden
 gaina ta azpia.
 Orain kupoiak saltzen
 zure angustia
 nik erosiko dizut
 serie guztia.

B. Gaztelumendi-J. Soto

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c538>

Gaia: Hogeita bost urte ezkondata daramatzan bikotea izango zarete.
Gaur, afaltzen ari zinetela, denboran atzera egin duzue, eta
gogoratzen hasi zarete zuen bikote harremanaren hasiera:
lehenengo zita, lehenengo zirriak, lehenengo muxuak...

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Antton eta Maria*

J. Soto

Zubietako plazan zen
ta elkar aurkitu
zuganantza joan nintzen
gorputz izarditu
ta zuk “Goazen atzera”
ta atzera abitu
ai lehenengo muxua
ze oroitzapen ditu
ezpainik bi astetan
ez nuen garbitu! (bis)

B. Gaztelumendi

Trakets jotzen ari zen
ta plazaren jiran
lehenengo dantza eskatu
zenun ta segidan
han desagertu ginen
izarren distiran
zure antsia dana
hustu zenun nigan
ezpainak odoletan
utzi zenizkidan. (bis)

J. Soto

Zapoa uretan gisan
 ni ezpainetara
 oroitzen naiz galderak
 sortu zun ikara
 oroitzen naiz nola izan
 zen lehenengo gaba
 oroitzen naiz muxuaz
 ta haren zirrara
 ta latigoarenaz
 oroitze al zara?¹⁷ (bis)

B. Gaztelumendi

Bai bizkarrean marka
 bat nahi nizun utzi
 bihotz forma zeukana
 hori ez zen gutxi
 baino urteek berea
 dute erakutsi
 orain ezpainak dauzkat
 lehor ta itsusi
 honezkero armiarma
 sare eta guzi! (bis)

J. Soto

Esaten nun “Hau dek hau
 neretzako andra!
 Honekin pozik egon
 behar diat etzanda”
 ta ai lehen urte haiek
 pasio eztanda
 lo hartzen genun “Maite
 zaitut” bat esanda
 baino aspaldi elkarri
 ipurdi emanda. (bis)

17 Aurreko bertsoaldi bati egiten dio aipamena.

B. Gaztelumendi

Bere lana egiten
joaten da natura
hasiera bateko
gure abentura
iritsi zen negura
edo abendura
bizkarra bizkarrakin
hau da hau piura!
Baino gezurra zer da
gaurkoa edo hura? (bis)

J. Soto

Pentsatzen nun “Andre hau
hiri komeni zaik
ta nerekin bazeok
zoriontsu ingo naik”
ta urteak aurrera
joan dira nolabait
ezin dut deszifratu
kosta egiten zait
baino oaindik sentitzen dut
zurekiko zerbait. (bis)

B. Gaztelumendi

Lehen hasi ohi ginenak
gu antsietatez
lehen gehiegi genuna
orain ia batez
baino dena ez degu
eta gure kaltez
lotu nazazu muxuz
eskuz edo katez
ta maitatu nazazu
aspaldiko partez. (bis)

ALTZO (2013-08-02)

Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Arzallus, A. Egaña, J.M. Irazu, M. Lujanbio eta U. Muñoa.

Gai-emailea: Manu Olano.

Saninazio jaietan urtero izaten dute hitzordua bertsolariek Altzon. Ohi bezala, gauean izan zen, eta ohi bezala pilotalekua entzulez bete zen saioa jarraitzeko.

*U. Iturriaga-A. Arzallus-A. Egaña-J.M. Irazu-M.
Lujanbio-U. Muñoa* 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c65k>

Gaia: Bertso bana eskatu behar dizuet, baina sei puntukoa edo goragokoa izan behar du bertso horrek, eta gaia haxe da: aurtengo Sanferminek zeresan ugari eman dute, era guztietako irudiak, argazkiak, iritziak entzun eta ikusi ditugu. Zuek horietatik zer azpimarratuko zenukete?

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

U. Iturriaga

Lehenengo egin behar dut
nik nire autokritika
aurten ez nagoelako
irudi asko ikusita.
Bi alabek egin zuten
behinola etxean bisita
ordutik egunkariak
pasatu ohi ditut ti-ta.
Argazki baten bazegon
ministraren bat korrika
zezen-plazan ta esan nuen
juxtu begiak itxita
“Zezenak egingo balu
ai gorputz horrekin zita
hori bai izango zala
oso argazki polita!”.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

A. Arzallus

Txupinazo egunean
nahi dut koka gaitzezela
begira egon nintzen ni
hemengo asko bezela.
Teilatutik teilatura
bazen soka bat itzela
ikurrina bat haundia
geure zapi ta mantela
hoge minutuz berandu
ta ze alkate ze txepela!
Pazientzia gutxi horrek
kezkutzen nau dena dela
gu badira bostehun urte
itxoiten ari garela. (bis)

A. Egaña

Ta beste argazki bat zen
 begientzat a ze mina!
 Festen hasieran zan ta
 ze-nolako imajina!
 Neska bat lepo gainean
 eskuak pila, majina
 neretzako behintzat ez zen
 hain irudi atsegina
 a ze esku pare lizun
 nazkagarria, zikina!
 Zoritxarren ulertzen dut
 ar esku likitsen grina
 neskaren irrifarrea
 zitzaidan ulertezina. (bis)

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Gaztalondo handian*

J.M. Irazu

Andonik aipatua
 hain txuxen lehenago
 hain argazki berria
 ez da zeharo
 kontzientzi pixka bat
 behar zan itxaro
 animalia festa da
 geroz ta gehiago
 eraso, esklabo
 burua akabo
 lotsatuta nago
 esan beharra dago
 zezen asko da baino
 zerri gehiago. (bis)

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Larogeita hamar urte*

M. Lujanbio

Txupinazoko argazkiei
begira nahiz eta jarrai
argazkirik gabekoek
utzi naute malkotan blai
bortxaketak, bortxaketak
Iruñan, Baionan nunahi
autoritatea ez da
ia ikusteko're gai (bis)
“A hori pasatu al da?
Ez gera enteratu ai!
igual mereziko zuten
mozkortuta dabiltz alai”.
Gauak emakumeentzat
prohibitu izaten darrai
jaietan pasatzen da ta
jai ez denetan ere bai. (bis)

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

U. Muñoa

Ikurrinaren auzia
mendeetako katea
neskekiko bortxaketa
zaila dago sinestea
pausoz pauso kalez kale
dena kanpoko jentea
musika elektronikoa
taberna bete-betea
ez da erraza Iruñan
bueltatxo bat ematea
ondorio bakarra dut
eta noan esatea:
aukera onena dela
Lesakara joatea. (bis)

ABADIÑO (2013-08-03)

*Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Egaña, M. Lujanbio eta
I. Elortza.*

Gai-emailea: Maite Berriozabal.

Salbatore jaietako bertso saioa. Gaueko hamar eta erdietan izan zen, eta jende multzo polita elkartu zen bertsoak entzutera.

U. Iturriaga-I. Elortza 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c780>

Gaia: Entzule gehienek badakite lagun onak zaretela, eta horregatik joan zarete elkarrekin oporretan, aspaldiko sasoieta moduan. Hiru egun daramatzazue, eta egun hauetan, goizetan izan dituzuen eztabaiden ondoren, erabaki duzue bakoitzak bere aldetik turismoa egitea, eta iluntzean afaltzeko batu zarete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ari naizela ari naizela*

I. Elortza

Costa Bravara etorri ginen
hoixe gendun gogo eta
bi egunean haserretuta
bazan nahiko errieta...
Gaur neuk bakarrik bainadoreaz
ein dot hondartzara buelta
baina krema zeuk eroan dozu
ta hemen nator erreta.

U. Iturriaga

Lehenagotik zagoz zu erreta
hori da pasau jatzena
urteak aurrera doazela
galtzen joatzen zentzena
ez dozu gura gura dodanik
ez dot gura zuk dozuna
bikote txarra konbibentzia
ta adiskidetasuna.

I. Elortza

Sasoi batean be ibiliak
ginen hona eta hara
oin biok aita egin gara ta
urruntxo azken bolada.
Opor giroan guk erabaki
joateko abiada
umeengandik alde egin gura
ta barriz umetu gara.

U. Iturriaga

Zeuk dinozu eta egia da
gu gabiz umien eran
haserraldiak bihamonean
eta bardintsu bezperan
aita responsableak garela
ta ez gendun gura edan
amistadea zerbeza barik
a ze gauza triste da!

I. Elortza

Lehen esan deutsut hondartzara joan
 ta han egon naz begitzen
 gero paella jan ta tabernaz
 taberna izenik izen
 pasiada bat eta barriro
 kanpineraino afaltzen
 zu egun osoan egongo zinen
 ispiluaz diskutitzen.

U. Iturriaga

Ez dot gehiago diskutiduko
 eztabaida bertan bego!
 Zure proposamenekin behintzat
 ez nozu ipintzen bero
 paellak, hondartza ta pasiau
 proposamen bat da-edo?
 Holako gauzak egiten dira
 jubilatatu eta gero.

I. Elortza

Baina urte osoan ibili gara
 gure ume gure mobida
 bakarrik egon gura genduen
 etzunda gora begira.
 Oin paella bat jan dodala ta
 hasarretu zara tira
 Costa Bravara etorri ginen
 eta ez New York Cityra.

U. Iturriaga

Peñiscolara joan baginen
 igual hori zuk nahiago.
 Egia esanda Costa Brava nun
 dauen seguru ez nago
 baina zuri kalte egin deutsu
 aldatu zaitu zeharo
 Costa Bravara etorri gara
 ta ipini zara brabo.

AIA (2013-08-07)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, X. Paya, A. Estiballes, I. Zubeldia eta A. Egaña.

Gai-emailea: Sebastian Lizaso.

Berezia izaten da Aiako probalekuan urtero egiten den saioa. Gaueko hamarretan izan zen, mila lagunetik gora entzuten zirela.

M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c8ac>

Gaia: Justiziaren irudia zara. Andrezkoa, bi eskuak zabalik, esku bakoitzean pisu bana eta begiak estalita. Hainbat urtetan horrela egon zara. Gaur kendu dizute begietako benda.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Gazte jendea eiten ari da
bere sorterritik alde
etorkizuna iluna dago
ta despidoa debalde
politikari asko aberats
diruz beteta goi ta behe.
Nere balantzak ezker ta eskuin
hara baditu bi alde
bata ustela zela banekin
baina biak ustel daude. (bis)

Langabetuen pena gordina
dabil luza eta luza
ta bitartean puztu ta puztu
banketxeen diru funtsa
etxe gabeko hainbeste jende
ta hainbeste etxe hutsa
injustizia ta zapalkuntza
bortxaketa den hizkuntza.
Ai baneukake zeini sartua
nere ezpata kamutsa! (bis)

Justiziak du balantzatxo bat
den-dena dedin enpate
justiziaren ezpata ere
askok ezautu lezake
justiziak du benda begitan
ikusi ez dezan bat'e
ta justizia injustizian
bizi da hemen gaur arte
begitatikan benda kendu ta
ahoan jarri didate. (bis)

A. Estiballes 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13c9co>

Gaia: Azken bolada honetan sarri samar ikusi haute, gauetan batik bat, etxeko leihotik zerura begira, zerbaiten bila bezala.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator Iparraldetik*

Hilabete bat ez da igaro
aita hil zitzaigula ai
eta gauetan esnatu ohi naiz
sarritan izerditan blai.
Etxean daude bere argazki
bere arropa ta usai
eta zerura begira nabil
ia etorriko den zai
ama ta biok utzi baikaitu
ez senide ta ez anai
hasera baten bertsoan ere
ia ez nuen egin nahi
baina gauero kantatzen diot
ta ahal baldin bada alai.
Berarengatik egiten dut hau
ta neregatik ere bai.

Gazte aroan pentsatzen duzu
 aita beti dela kate
 hogei urtekin pentsatzen duzu
 egiten dizula kalte.
 Geroxeago eredu dezu
 norbere eskaparate
 eta aitona eiterakoan
 berriz familian parte.
 Ez pentsa gero nik nere aita
 gorroto nuenik bat'e
 maitatzen nuen bere jenio
 umore eta aldarte
 bene-benetan ta harro diot
 "Asko zintudala maite"
 baina ez nekin zenbateraino
 albotik joan den arte.

Ia gauero egiten ditut
 lo hartzeko ahaleginak
 baina ama ta biok hartu gaitu
 gaur lorik egin ezinak.
 Duela gutxi izan da eta
 barruan dauzkagu minak
 nahiz ta min hoiek ta lo hartzeko
 badauzkagun medizinak.
 Farmazian ere pilulak daude
 berdeak eta urdinak
 ta beste batzuk sendatzen ditu
 fedeak edo doktrinak.
 Hoiek bakarrik sendatze'ituzte
 barreneko min arinak
 ta kantatzeak sendatzen dizkit
 dauzkadan minik haundinak.

GASTEIZ (2013-08-09)

*Bertsolariak: S. Colina, A. Martin, M. Lujanbio eta
M. Agirre.*

Gai-emailea: Olatz Bayer.

Gasteizko jaietan izan ohi diren saioetako azkena izan zen honako hau. Jende asko hurbildu zen eguerdian Aihotz plazara, bertsolariak entzutera.

M. Agirre

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13caf4>

Gaia: Efemeride bat. Duela hogeita hamar urte, Gasteizko jaietan, ez gaur bezala azken egunean, baizik eta lehen egunean, *hala bedi* irratia jaio zen.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*

Hogeita hamar urte joan dira
a ze-nolako pasada!
Azken urteetan hori hausnartzen
apur bat aritu gara.
Agintarien zirikatzaile
stablismenaren karga
irreberente xamarrek beti
baina ondorioa hara:
batzutan nonbait nabarmentzeko
zarata egin behar da.

Garai baten manifa ateoak
 ziren elizen neurrira
Suelta la ollak hainbeste urtetan
 edukia du segida
 euskara hutsezko irrati baten
 bila ari gara di-da
 behatza begian sartzen dugu
 onartu behar da tira
 baina *hala bedi* ja Gasteizeko
 historiaren zati da.

Propaganda apur bat egin dut
 aldez aurretik barkatu
 laguntza ere behar dugula
 nahi dut mezua luzatu:
 bazkide egiteko eskatzea
 gehitxo da ta ez pasatu
 baina azkeneko gauean behintzat
 txosnatara gerturatu
*hala bedi*ko txosnara joan
 eta tragotxo bat hartu.

LEITZA (2013-08-13)

*Bertsolariak: A. Laburu, M. Lujanbio, J. Zelaieta eta
A.M. Peñagarikano.*

Gai-emailea: Migel Mari Elosegi “Luze”.

Santiburtzio jaiak zirela-eta antolaturiko saioa. Entzule ugari elkartu zen plazan, eta Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi zuen hirukoteak agurra kantatu zuen.

M. Lujanbio-A. Laburu 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13cbhg>

Gaia: Zuek biak urte askotan Leitza bizi izandako atzerritarrak zarete. Hemen bizi izan zineten urteetan, adineko pertsonak zaintzen, baina buelta egin zenuten zuen herrira. Jakin nahi duguna da zer kontatu behar duzuen Euskal Herriari buruz eta hemengo jendeari buruz.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Emazte baten bihotz xamurra*

M. Lujanbio

Ecuadortik Leitza aldera
artian nintzan gaztia
gizon zahar bat zaindu aurrena
gero haren emaztia.
Ai euskaldunak jende jatorra
baino errexak ez dia
bihotz haundia dutela baino
kostatzen da iristia.

A. Laburu

Lehenengo hartu nau Anttoniok
 ta gero amona Juanik
 urte hauetan Leitzan sekula
 ez zait falta izan lanik
 baino diyozun gisan azala
 oso gogorra izanik
 oraindik oso ziur ez nago
 barrura heldu nintzanik.

M. Lujanbio

Sillai tiraka ibiltze nitzan
 ni Leitzako plazan erdin
 atton-amonek elkarri kaso
 ta neri nahiko desberdin
 ze egoskor ta ze burugogor
 nahiz eta hitzez atsegin
 harek ezetza esaten bazun
 baezpa kontraik ez egin!

A. Laburu

Alde on eta alde txar asko
 zu ta nere langintzanak
 baino oraindik miresten ditut
 gure gisa dabiltzanak
 bi armadura dituztelako
 kultura eta izanak
 ta neri asko lagundu zidan
 euskera ikasi izanak.

M. Lujanbio

Nik ere ein nun hortan ahalegin
nik ere burmuinak hautsi
baino hizkuntza zelebren hori
ai zeinen zail zeinen bitxi!
Gure amonai nahi izan nion
nik erderaz erakutsi
euskera pixka't nik ikasi nun
harek gaztelera gutxi.

A. Laburu

Nik entzimera garbitzen niyon
baietarekin tristrastis
ta hala ere esaten zidan
“Oraindik hautsez zio gris”.
Nere herrira bueltatu nintzan
noski sorterri egarriz
Leitzan lan gorra izan nun baino
bueltauco nintzake berriz.

M. Lujanbio

Gure etxera itzuli ginan
hemen zahartzeko planian
garai zailtan baino gustora
jardun ondoren lanian.
Euskal Herrian garai zailtan
omen dabiltz aidanian
euskaldunen bat igual gu zaintzen
gu zahartzen geranian.

A. Laburu

Ba nik gustora izango nuke
holako jende klasia
baino denbora nola ez dagon
horren aurrera pasia
nik zer esango niyekeen orain
alde degunez haizia
denok degula zeini erakutsi
eta zeini ikasia.

BILBO (2013-08-20)

*Bertsolariak: U. Alberdi, A. Iturriotz, O. Aizpurua eta
I. Apalategi*

Gai-emailea: Ibon Aristi.

Bertsoak urtero izaten du lekua Bilboko Aste Nagusian, eta besteak beste, jaialdi bat izaten da egunero, eguerdi partean, Santiago plazan. Astearteko saioan bost gipuzkoar igo ziren oholtzara, Santutxuko bertso eskolan ibiliak edo dabiltzanak guztiak ere. Hirurehun bat lagun egon ziren entzuten, eguzkitatik ihesi.

U. Alberdi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ccjs>

Gaia: Uxue, festa giroan gaude. Euskal Herriko herri eta hiri guztietan festak ditugu; entzun besterik ez hango txaranga, hemengo kantu, hango dultzain eta txistulari. Baina festetako zenbait datu emango dizkizut: Sanferminetan bi izan ziren eraso sexistaren bat salatu zuten emakumezkoak, Baionan ere bi emakumek bortxatu egin dituztela salatu dute, eta Bilbon ere badirudi lehena iritsi dela. Horiek ditugu festetako datuak.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

Sanferminetan begiak
hango argazkietara
ze gorputzen kontaktua
ez zen laztan-besarkada
ta Baionako festetan
goazen datuetara
Bilbon hasi berriak ta
salaketa bat da jada.
Ispilu egizko honek
 guztia daki-ta
 nik galdetu orduko
 eiten dit kritika
 ia triunfatzen dudan
 aldrebes jarrita:
 esaidazu ez dudala
 ipurdi polita.²⁴ (bis)

24 Bizkarra emanda jarri da hori kantatzearekin batera.

On. Enbeita

Ta *farruco* jarri da
orain mutikoa
goitik behera dotore
zelako tipoa!
Gestoa egin dozu
nahiko erotikoa
ta ipurdi bat al da
gerri azpikoa? (bis)

M. Lujanbio-On. Enbeita 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13d6cs>

Gaia: Maialen, 60 urteko emakumea izango zara, 80. hamarkadan hainbat gizarte mugimenduren bueltan ibilia, tartean abortu eskubidearen aldeko manifestazioetan, baina denborak aurrera, apartatzen joan zara mugimendu hauetatik, eta gaur egun urruti samarretik bizi dituzu. Gabon buelta honetan, Onintza, hogeita hamar urteko alaba, bere urtebeteko alabarekin etorri zaizu etxera, bazkaltzera. Bazkaldu duzue, garbitu dituzue ontziak, eta alabatxoa motxilan hartu eta esan dizu “Bagoaz!”, eta zuk “Nora?”; “Abortu eskubidearen aldeko manifestaziora. Bazatoz?”.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ilun ikarak azken argia*

M. Lujanbio

Manifa baten oihartzunekin
suminak hartu du gaina
neroni ere nere garaian
ibilia alajaina!
Gaurkoa bada *sesenta y ochon*
izan zan maiatza aina
garai zaharrak itzuli dira
ni ez naiz gaztetu baina.

On. Enbeita

Aldarrikapen zaharrekin goaz
 ama barriro plazara
 zuk ere lehengo lema zahar haiek
 hautsak kendu ta atara.
 Garai zaharrak ez dira etorri
 beti hemen egon gara
 gure gorputza oraindik ere
 Estatu arazoa da.

M. Lujanbio

Guk frankismoan pasa genitun
 prohibizioa ta traba
 kontra borrokan ahaleginduz
 gazte aroko bolada.
 Zu nere alaba ta zure haurra
 belaunaldien ilada
 agintariak ere hoixe dira:
 lehengoen seme-alaba.

On. Enbeita

Lehengo lepotik dute burua
 ta ze buru alafede!
 Lehen eskuina eskuinerago
 orduko haien titere.
 Seme-alabak ez dira ama
 semeak bakarrik daude
 erabakiak hartzen oraindik
 gehienak gizonak daude.

M. Lujanbio

Dena gizonen eskutan dago
ta zenbat lege nahasi!
Emakumeen gorputza nahi da
dominatu, irabazi.
Zuek gazteen eskutan dago
orain ia dana kasi
ekin lanari erlojua ez
dadin atzeruntza hasi.

On. Enbeita

Kalera joan pankarta hartu
eta lehen lerroan parau
sasoi bateko aldarrikapen
eslogan eta enparau
egingo dodaz borrokaldi bat
bi, hiru edo hamalau
zuri-beltzeko argazkietan
gelditu dadin lege hau.



Munduko Kantu Inprobisatuaren Jardunaldiak Mintzolan (2013. Villabona)
(Villabona. 2013). *Mintzola Fundazioa*. XDZ

ORDIZIA (2013-12-30)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, U. Iturriaga, A. Arzallus,
I. Elortza, A. Mendiluze, B. Gaztelumendi, A. Martin eta
A. Sarriegi.*

Gai-emaileak: Ainhoa Mujika eta Inaxio Usarralde.

Goierriko Bertso Eskolak Txapelketa Nagusiko finalistekin antolaturiko jaialdia. Majori kiroldegian izan zen, astelehen arratsaldeko seietan. Bi aste lehenago agortu ziren sarrera guztiak, salgai jarri eta pare bat egunen buruan. Alai Martinek kantatu zuen Sustrai Colinaren lekuan, urruñarra eztarria itxita baitzegoen.

U. Iturriaga

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13d7f8>

Gaia: BECeko finalean txapelketatik agurtu egin zinen. Eta gure partetik bejondeizula eman dizkiguzun momentuengatik, zure ibilbideagatik, zorionak! Ez dugu hala ere gaurkoa agur bat izaterik nahi, baina beharbada bai balantze bat egitekoa. Zer eman dizute txapelketek eta zer kendu dizute txapelketek urte guztiotan?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*

Autofikzio deitzen zaio honi
aspaldiko generoa
ia askatzen dudan nolabait
txapelketen endredoa.
Eman zidaten orain bat noski
akaso ireki geroa
eman zidaten tentsio pixka't
txaloa eta beroa
ta zertarako ukatu behar dut?
Puztu didate egoa.

Lagunarte bat ere eman dit
ez naiz ibili ihesi
benetan jende horrekin leike
ikasi, ibili, hezi...
Baina bidea dena ez da laua
ta baditu zenbait hesi.
Justu alde bat da puntuena
eiten duena berezi
ta horri gaizki beiratu ezker
jadanik ez du merezi.

Ze txapelketak horixe dauka
gehiegi egiten dela hitz
trago batekin bat hasi leike
“Eta ni gorago banintz...”
baina bertsoa ez da hori soilik
ez da hain eremu murriz.
Zertan ukatu badela apar
badela olatu ta bits?
Gaur ere ez ginake hainbeste
BECengatikan ez balitz.

A. Arzallus-A. Sarriegi i

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13d8hk>

Gaia: Hotza kendu eta berora joan behar dugu. Hemen daukagu gurekin Jokin Aperribay, Realeko presidente hautatu berria. Zure hitz hauek batzar hartan inork adi-adi jarraitu bazituen, Aitor Realzale porrokatua izan zen, eta irteeran, gainera, hala esan zizun: “Aizu Jokin, zuri aritu zara, obrak gora eta obrak behera, obrak egin behar direla Anoetan... Ados nago. Bat nator zurekin. Baina beste obra klase bat egingo nuke: Anoeta dena estali. Eta datorren Bertsolari Txapelketa Nagusia, hartara, Donostiara ekar dezakegu”.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

A. Sarriegi

Obrak aipatu dituzu baina
nere iritzi zuzena
behin hasiz gero estaltzea da
egin litekeen onena
bertsolariak buelta daitezen
hori baita errezena
eta gainera hobetuko du
Errealaren izena. (bis)

A. Arzallus

Bertsolarien txapelketa horrek
ze ikusmin ta ze mira!
Hamahiru mila ezin kabituz
ze olatu ze dizdira!
Nahiz finalaren eguna beti
den Santaluziko jira
aire librean ein dezatela
hain onak baldin badira! (bis)

A. Sarriegi

Baina buruak egin lezake
aire libre hortan alde
bertsolariak ezin du ekin
bat'e isiltasun gabe.
Zuk entenditzen ez dezula ta
oaindik ezetzean zaude
baino bertsoak maite ditugun
Realzale asko gaude. (bis)

A. Arzallus

Baina ai gure ekipoakin
eduki zerbait akordu
Hego Amerika erdiak ia
txuri-urdinez dihardu.
Tapatuz gero pentsatu zazu
gero zenbat ilun ordu
Mejikanoak korri eiteko
eguzki pixka't behar du. (bis)

A. Sarriegi

Zaila dago zu konbentzitzea
benetan gaur egunean
Mejikanoa aipatu dezu
zure harrotasunean.
Horrexegatik estaltzea da
onena etorkizunean
korrika gehio eingo du hala
euria ari dunean. (bis)

A. Arzallus

Mejikanoaz gain badauzkagu
 hamar bat Euskal Herriko
 eta tapatzen baldin badugu
 teilatu edo plastiko
 gure azokan aspaldi hori da
 produktu estrategiko
 ta eguzkirikan ez bada sartzen
 ilarra ez da haziko. (bis)

A. Sarriegi

Illarra dago dagon tokian
 dirua baita botere
 izan baitzera madrileñoen
 ustekabeko titere.
 Nere aldeko arrazoi asko
 daude baino alafede
 bertsolaria daukazu eta
 entrenadorea ere! (bis)

A. Arzallus

Bertsolaria berritxuarra
 aurtan egin debuta
 idea bat eduki det baina
 Bizkaiara aldenduta:
 San Mamesen eska ezazue
 han ez dute behar junta
 han errexago tapa liteke
 denok pagatzen degu ta. (bis)

DURANGO (2013-12-30)

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Arzallus, M. Lujanbio eta
U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Igor Elortza.

Badira urte batzuk “Urteko azken bertso saioa” antolatzen hasi zirela Durangon. Plateruena kafe antzokian izan zen, gauean, eta sarrera guztiak saldu ziren.

A. Egaña-U. Iturriaga 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13d9k0>

Gaia: Zuek biok zarete anaia bi Gabon zaharreko afaria prestatzen. Zu, Andoni, zara PNVko PNVkoa, hau da, jeltzale genetikoa; zu, Unai, ezker abertzaleko betiko militante bat, HBkoa. Afaria prestatzen zabiltzaten bitartean, irratia daukazue piztuta, eta irten da autogobernua berritzeko gaiaren kontua. Biok dakizue beharrezkoa dela abertzaleen arteko batasuna, eta hor zabiltzate pentsakor eta berbak neurtzen. Orduan, eskatuko dizuet bakoitzak albo banatako mikrofonotik kantatzea zuen baitan pentsatzen ari zaretena, eta gero erdiko mikrofonora hurreratzea benetan pentsatzen duzuen bakoitzak besteari kantatzeko.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

A. Egaña

Mahaian gainean jarriak dauzkat
 bai edari ta bai opil
 urtean behingo afaritxo hau
 egin behar dugu mutil
 almeja batzuk, esparragoak
 preparatu trankil-trankil.
 Haize berriaz mintzo da beti
 hau indabak janda dabil.

U. Iturriaga

Ba bai egia banan joanda
 ibiltzen garela txarto
 uste badozu kontu horregaz
 engainau nozula guapo...
 Ba bai almejak merezi doguz
 euskaldunak garelako
 zureak soilik zabaltzen dira
 Alderdi Egunerako.

A. Egaña

Eta herri bat eraiki dugu
 almeja ederrak janez
 gaur afaria buka dezagun
 “Anaiak gara” esanez.
 Ezker-eskubi hara ta hona
 mugitua zara errez
 tiobiboan gisa dabil hau
 Ezker Abertzalea lez.

U. Iturriaga

Neu be bat nator anaiak gara
ta horretan armarik ez
bat egin dogu zure urtetako
aholku zahar hori betez
baina aiztoa eta kipula
neuk deukodaz hain suertez
zuk egindako lanaitik balitz
beti azak jango geunkez.

A. Egaña

Bion artean hau prestatzeko
izandu degu aukera
PNVkoa izanagatik
ni ez naiz alperra keba.
Eman tipula eman labana
nik sukaldari papela
PNVkoak mende batean
negarretik bizi gera.

U. Iturriaga

Baina ez dogu eze be lortu
ez guk alkar estututa
zetan sakatu Iñigo Urkullu
berak errurik ez du ta!
Artau dagigun ardau baltz bana
deukot ondo prestatuta
honetan ez dau dibergentzirik
gora Euskadi askatuta!

BAT-BATEKO SARIKETAK

DONOSTIA (Añorga) (2013-03-22)

Añorgako Orixe sariaren finala

*Bertsolariak: N. Gabilondo, F. Zubia, X. Sukia,
A. Barandiaran, Mantxi eta I. Zelaia.*

Gai-emailea: Unai Gaztelumendi.

Añorgako Jolas Etxean izan zen Orixe sariaren azken saioa, aurten lehen aldiz afari formatuan. Jende asko elkartu zen, eta giro bikaina izan zuten, aurretik jokatu ziren bi kanporaketetan ez bezala.

Mantxi-N. Gabilondo 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13damc>

Gaia: Ospitaleko gela berean ingresatutako bi haur zarete. Kezkatuta ikusten dituzue zuen ingurukoak.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Hauxe da gauza zelebrezkua*

Mantxi

Orain lau egun sartu ninduten
lau horma hauen erdira
bata txuridun gizon bat dabil
hona eta hara bira
harriturikan nago ordea
jarri ezker begira
nere aita-amak raro dabilta
zureak hola al dira?

N. Gabilondo

Nereak ere lasaitasunez
 ez dabiltz oso konpleto
 amak aspaldi gutxi falta du
 negar malkotan hasteko.
 Egia esan hari begira
 lanik badet ulertzeko
 gero zergatik esaten didan
 neri lasai egoteko.

Mantxi

Amai malkoak atzo ihes egin
 zion neronen aurrian
 txurizkoakin behin eta berriz
 hor dabilta marmarrian
 ta Aitor nere anai zaharrena
 atzo izan nun hurrian
 eta eskutik heldu ez zidan ba
 ostiyana jo beharrian!

N. Gabilondo

Gure inguruan denak dabilta
 beldur ikaren bezero
 erizainekin beti isilpean
 zerbait ezkutatz edo
 baina hobeto egon litezke
 kontrakorik ez espero
 agian barre egingo dute
 guk ere egin ezkeru.

Mantxi

Zure izena Nahikari dela
lehen hala esan didate
gogorik gabe parre egiteak
nahiz grazirik ez dun bat'e
gure gurasoek zerbait badute
diotenataz aparte
bueno gu hemen egongo gera
beraiek sendatu arte.

N. Gabilondo

Aizu gaixorik gu biok gaude
ez zaitez izan ergela!
Batak bestea degu lagun ta
gure etxea da gela
gogoan hartu Ane pirata
eta sinetsi horrela
edozer gaindi dezakegula
Mari Mototsek bezela.

X. Sukia 

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13dboo>

Gaia: Egunero bezala etxera iritsi zarenean, zerbait aldatu dela sumatu duzu.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Neska zaharrak eta apaizak I*

Etxera nator ttipi ta ttpa
 iluntzeko argi printzan
 eta gau freskoan brisan
 etxe ondoan kubo marroi bat
 nik espero nuen gisan. (bis)
 Aldaketa bat gertatuko da
 beraz ja gure bizitzan
 igual hala komeni zan
 zeozer aldatu egin da baina
 ez dakit zertan gabiltzan:
 asko esaten ari zeraten
 bezain txarra ez da izan. (bis)

Aldaketa bat estetikoa
 ta aldaketa bat gudan
 kubo marroiaren gudan.
 Beraz aldatu behar sailkatu
 zaborra neguan, udan. (bis)
 Aldaketakin batzuk haserre
 ta beste batzuk liluran
 bagoaz abiaduran.
 Jendea kontra soma dezaket
 fede txarrez eta dudan
 birziklatzeko premia duen
 zenbat ikusten ditudan. (bis)

Euskal Herria aldatuko da
 lehen aldatu zen Europa
 herriai hau diot opa
 etorkizuna ona izango da
 gero txin-txin eta topa. (bis)
 Astelehenean, asteartean
 erabaki da zer bota
 ez doa inoren kontra
 bainan ez dakit zergatik dagon
 hainbeste arrazoi mota
 ate bat dagon tokian beti
 irtenbide bat dago ta. (bis)

Mantxi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13dcr4>

Gaia: Egunero bezala etxera iritsi zarenean, zerbait aldatu dela sumatu duzu.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Arratsalde on ta aupa zuek*

Goizean goiztik etxetik irten
ta joan naiz lantokira
egun osoa bertan igaro
ta iluntzean erretira (bis)
Ainhoarekin ustez osatu
dedan neure familira
baina atea zabaldu eta
sartu orduko kabira
han ipini naiz begira
ispiluaren aldameneko
argazkiak falta dira. (bis)

Garai batean agian nintzan
golfo ta kalamidade
baina aspaldian txintxo nenbilen
dena utzita xuabe (bis)
baina argazkiak jada ez daude
atearen parez pare
buruai mila buelta emanda
ez det ulertzen hala're
ez naiz erantzunan jabe
etxetik joan da baina zergaitik
adiorik esan gabe? (bis)

Mobila hartuta bere amari
 deitu ezer baino lehenago
 galdetu diot “Arantxa, Ainhoa
 zure ondoan al dago?
 Motiborik ez ta joan egin da
 ez al da nahiko arraro?
 Ta hor badago etortzeko esan
 ni zain nagoela klaro
 maiteginaz haratago
 berak hamaika barkatu dizkit
 ta barkatzeko prest nago”. (bis)



Munduko Kantu Inprobisatuaren Jardunaldiak Mintzolan (2013. Villabona)
 (Villabona, 2013). Mintzola Fundazioa. XDZ

GABIRIA (2013-04-06)

Osinalde sariaren finala

Bertsolariak: N. Ibarzabal, N. Zinkunegi, J. Oiartzabal, I. Uria, I. Aleman eta P. Ormazabal.

Gai-emailea: Eñaut Asurabarrena.

Urteroko hitzordua Osinalde Elkartean. Ohi bezala, aretoa beterik eta giro bikaina.

N. Ibarzabal-N. Zinkunegi
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13ddtg>

Gaia: Bikotea zarete. Larunbat arratsaldea da, eta zuen semeari begira zaudete. Ispilu aurrean makilatzen ari da.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

N. Zinkunegi

Nahiz telebistan holako gauzak
hamaika aldiz agertu
sekula inork ez du pentsatzen
tokatzerik horren gertu.
Ondo ari da behar lituzke
bere lotsa denak lehertu
onartu nahi dut baina oraindik
aizu ezin dut ulertu.

N. Ibarzabal

Ispilu aurrean pintatzen dabil
gure mutiko gaztea
nahiz eta ez dan erraza egiten
hau horrela ikustea
hobeto dauko oin askatuta
bera izaten hastea
txarragoa da gizartearen
makillajea janztea.

N. Zinkunegi

Bai gogorra da jasan beharra
gizartearen itzala
baina ez dakit bide onetik
ote dijoan ba hala
pintatzen ditu bere begiak
ta pintatzen du azala
makillau gabe ez al du hobe
agertu dena bezala?

N. Ibarzabal

Makillatuta igual hobeto
ikusiko dau burua
armariotik ateratzeko
izan dau eta ordua.
Beti maitatu egingo dogu
horixe da helburua
ta maitasuna izan dadila
beti bere ispilua.

N. Zinkunegi

Makillajea emate horrek
ez dit egiten ez traba
nahiz auzokoek jo dezaketen
horren indartsu aldaba.
Bera kapaz da ta gu biok bai
kapaz izango al gara?
Babes dezagun onena baitu
bera pozik baldin bada.

N. Ibarzabal

Bai egia da mundua sarri
izan daiteke krudela
ta beti ondo etorriko da
gurasoaren epela.
Guazen berana eta ez egon
hemen begira bezela
esan daiogun nahi dabenean
hor eukiko gaituela.

N. Ibarzabal-I. Uria 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13devs>

Gaia: Bi arrantzale zahar zarete. Bizitza guztian elkarrekin arrantzan
aritu zarete, baina inoiz ez zarete ausartu elkarri pentsatzen
duzuen esatera.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

N. Ibarzabal

Batera zenbat egun
 eta zenbat kasu!
 Konpainiak ez digu
 egin enbarazu
 baina behingoz gauza bat
 jakin behar dozu:
 lehenengo egunetik
 zorauta naukazu
 zure bihotzan sarean
 harrapatu nozu. (bis)

I. Uria

Metafora bota du
 erabat sakona
 holakotan abila
 ez ei da gizona.
 Gustokoa nauzula
 izango da broma
 oraindik ez didazu
 altxatu-ta gona
 bada ez zara oso
 arrantzale ona. (bis)

N. Ibarzabal

Sarritan hurratu naz
 zure ingurura
 baina eskua sartzeko
 eiten neban duda.
 Begiratu zeruan
 kaioen lilura
 bizi gaitezen biok
 nahi dogun modura
 zugaz ukitu nahi dot
 behingoz ortzimuga! (bis)

I. Uria

Oheratzean daude
antza zure metak
baina niri balantza
egin dit orekak
eman nahi badituzu
ohe baten bueltak
utzizu ortzimugak
eta gogoetak
arrantzaleak gara
eta ez poetak. (bis)

N. Ibarzabal

Ez eizu poesia
oin lurretik bota
urak be biguntzen dau
sarritan arroka.
Ointxe hozka eingo'tsut
hamengo kokota.
Bardin dost bota ezker
zuk oin niri bronka
gehiago itxarotea
ja ez doste inporta. (bis)

I. Uria

Esan didazuna da
hain gauza polita
eta ezetz banio
a ze hipokrita!
Eskatu nahi didazu
gauerako zita
nahi baduzu gelara
egizu bisita
gauez ez dut utziko
atea itxita. (bis)

ETXARRI-ARANATZ (2013-04-12)

*Bertsolariak: A. Iturriotz, J. Soto, A. Illaro, M.A.
Txoperena, E. Gorosterrazu eta O. Arbina.*

Gai-emailea: Joseba Beltza.

Euskal Herriko Bertso Afari Txapelketaren laugarren edizioa, Euskal Herriko bertsolari gazteak ezagutaraztea helburu duena. Karriskestu Elkartean izan zen, eta hirurogei lagun inguru elkartu ziren mahai bueltan.

J. Soto-A. Iturriotz 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13dg28>

Gaia: Lehen esan dugu binaka aritzeko gai bat izango zenutela, baina librean egin beharko duzue.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

J. Soto

Orain artean Mosku, gorroa
taxia eta Yolanda
desenpatea iritsi zaigu
ta lehen gai bat izan da
“Nahi den hura kantatu
nahi den hura kontatu”
diozu baina karanba!
Gu estuago sentitzen gara
askatasuna emanda. (bis)

A. Iturriotz

Egia esan nik'e Julio
ez dakit zer den hobia
zurekin saio orok baitauka
erritmoa, kolorea...
Zuzen zabiltz Julio
asko dezu balio
neretzat da ohorea.
Halere berriz izan nahi ote
dezu txapeldunordea? (bis)

J. Soto

Udaberria behar zuena
bilakatu zen udazken
nahiz bigarrena izateak ez
duen esan behar azken.
Joe Anaitasuna
zuk aipatu duzuna
ez da errex adierazten
depresioak jota nago ta
utzidazu irabazten. (bis)

A. Iturriotz

Zuk oso errex betetzen dezu
sukalde eta areto
agenda beti eukitzen dezu
ta Julio saioz lepo.
Irabazten utzi ez
hori txarra da berez
eon nahi badezu hobeto
Arraterekin joan zaitea
depresioa kentzeko. (bis)

J. Soto

Anaitasuna jo ze putada!
 Bai nik baneukan nibela
 baina Silveira haundi da haundi
 hitz neurtudun pasarela
 zer da ba txapelketa?
 Hari belzdun boneta
 zuk ahaztu zazu txapela
 esaten dute lehenengo galtzen
 ikasi behar omen dela. (bis)

A. Iturriotz

“Galtzen ikasi behar omen da”
 esan didazu astiro.
 Halere hemen gustora nago
 ze animo ta ze giro!
 Esan dezu Silveira
 eredua da tira
 ta esango dizut berriro
 nik dianaren erdi-erdian
 eman behar det gaur tiro. (bis)

J. Soto

Beraz aipatu nahi zenukeena
 bi asteetako lana
 eta tiroa bakarkakoan
 aipatu zuen ai ama!
 Eta zuk berriz tiro
 eingo duzu astiro
 erdi-erdian emana
 hori neretzat ere ez da txarra
 segun nun dagon diana. (bis)

A. Iturriotz

Aizu Julio miresten ditut
zure dohaiak, arteak
ahaztu ditzagun zu xaxatzeko
hartu ditudan tarteak.
Zara hitzen lapurra
eman duzu egurra
neretzat bueltan kalteak
banekien ze ekarriko zun
suarekin jolasteak. (bis)



[Gari Garaialderen argazkia]. (Barakaldo. 2013). Euskal Herriko Bertsozale Elkartea. XDZ

OIARTZUN (2013-04-19)

Kataxulo Txapelketaren finala

*Bertsolariak: A. Iturriotz, O. Aizpurua, M. Artola,
M. Goiogana, M. Akizu eta Tx. Ormazabal.*

Oiartzungo Gaztetxean izan zen, ostiral gauean. Saioa jarraitzeko ehunen bat lagun elkartu ziren gaztetxean. Giro beroa izan zuten kanturako, eta saio umoretsua osatu zuten.

M. Artola-M. Goiogana

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13dh4k>

Gaia: Aitona-bilobak zarete. Herriko jaiak badatoz, eta zu, Mikel, egun horiek noiz iritsiko zain, ilusioz beteta zaude; Manu, aitona, berriz, jaiak heltzeko beldurrez.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

M. Artola

Festarako egin det
berriz ere plana
oraingon tokatzen da
gauetako lana
baino bildurra ez da
ez zurea dana
nik'e badet bildurra
baino resakana. (bis)

M. Goiogana

Ba orduan ibili
zaitez gizalegez
nik resakarik ez det
edukitzen berez
baina jaiei beldurra
diet nik mesedez:
lorik ez dezu egiten
ta utzi ere ez. (bis)

M. Artola

Baino badegu antza
jar zazu arreta
pastillatik berdintsu
gabiltza puñeta!
Ta balantzan ere bai
zenbat ariketa!
Utzidazu bastoia
beharko det eta! (bis)

M. Goiogana

Itxura denez zaude
parranda planean
eta bastoia behar
zure esanean
zer-eta etortzeko
bastoian gaingan
holakorik ez zegon
gazte nintzanean. (bis)

M. Artola

Ba nik zahartu arte
 ez det ba etsiko
 ohea txikia det
 metro eta piko
 sofán egin zazu lo
 moldatu ta kito
 ahal dela bakarrik
 ez naiz etorriko. (bis)

M. Goiogana

Jai aurretik gazteak
 beti harrotuta
 beti zatoz bakarrik
 ez da zure kulpa.
 Hara ze pasatzen den
 jaiak pasatuta:
 zaharrak fresko eta
 gazteak zahartuta. (bis)

O. Aizpurua

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13di70>

Gaia: Hau esku artean duzula, zu Goenkaleko Maria Luisa zara.²⁵

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Euskal Herriko lur maite hartan*

Arralden pozik ibili ohi naiz
adarra joaz kantari
lagun bakarra hauxe det orain
lehen ez nituen ugari.
Hala ta guztiz harrotasunez
soa neure buruari
azido sulfurikoa daukat
beraz argi! beraz argi!
Nerekin txintxo portatu zaite
aurrerantzean Margari!

Ai ispilutxo ai ispilutxo
zein da hemen politena?
Melena daukat ederra eta
gainera nauzu morena
ta erantzuna esan ez dit ba
ondoko lorea dena!
Urikan gabe hiltzen uzteak
ez dit eman behar pena.
Ni izango naiz lore bakarra
arantzarik ez duena.

25 Lore bat eman dio, lorontzi eta guzti, eta hura ureztatzeko gailua.

BERRIATUA (2013-06-28)

Berritxu saria

Bertsolariak: I. Uria, A. Zuazubizkar, P. Amilburu, M.A. Txoperena eta I. Vidal, J. Solozabal, N. Ibarzabal eta H. Mujika.

Gai-emailea: Imanol Aldazabal.

H. Mujika 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13dj9c>

Gaia: Azken egunetan, goizero-goizero, hutsik egin barik, esnatzearekin batera, balkoira irteten zara. Gaur, ordea, iragarpen txarrenak bete dira, eta zure etxepean ikusten dituzu ertzain eta epaileak, hipoteka ordaindu ez duzulako etxea desjabetzera datozenak.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke*

Hipotekak ta desjabetzeak
 sorturik mila endredo
 konturatu naiz denok gerala
 diru zikinan bezero.
 Oain alperrik da “Krisia ez bada
 edo lanean banengo...”
 Berriz barrura sartu egin naiz
 behera beidatu ta gero
 balkoitik salto egingo baitet
 bi aldiz pentsatu ezker.

Alperrik dira herri harresiak
 alperrik da herrigintza
 eta umeei dena azaltzea
 omen lehenengo baldintza.
 Galduko degu zuen logela
 teilatupea ta giltza
 baino aurrera irtengo gera
 ematen dizuet hitza
 bizitza ez baita dirua eta
 dirua ez baita bizitza.

ZARAUTZ (2013-09-06)

*Bertsolariak: A. Labaka, A. Iturriotz, A. Azpiroz, E.
Artetxe, O. Aizpurua*

Gai-emailea: Felix Zubia.

Modelo zineman izan zen, gaueko hamarretan. Dena bete zen, giro polita sortu zen, eta saio polita eskaini zuten bertsolariek. Finalean nork kantatuko zuen erabakitzeko bi kanporaketa jokatu ziren aurreko astean, afari giroan.

O. Aizpurua-A. Azpiroz 🎵

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13dkbo>

Gaia: Elkarrekin bidaia bat egin duzue Hego Ameriketan. Han zaudetela, zenbat kokaina arrautza irentsita hona ekartzeko aukera eskaini dizuete, diru kopuru handi baten truke.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Gaixo nengoen joan dan aspaldin*

O. Aizpurua

Nahiz ta haseran nere burutik
pasatu diren zalantzak
dirua entzun ta baietzera
berehala jo du balantzak.
Sartu ditzagun barrura eta
harrotu ditzagun hautsak
oiloen eran errun ditzagun
biok urrezko arrautzak.

A. Azpiroz

Kontu hoietan hasteko Oier
 orain ez daukat ba grinik
 poliziaren ingurun nahiko
 txarra degula jakinik
 eta gainera uste't ez deula
 hori zergatik eginik
 gero agian attuko gera
 tripatik bota ezinik.

O. Aizpurua

Tripako mina izanagatik
 ez da izango merkea
 isildu eta kolpe batean
 sar ezazu paketea
 behingoagatik ez da komeni
 oiloana egitea
 plazer doblea izango dezu
 komunera joatea.

A. Azpiroz

“Motel oiloa izango al haiz?”
 hortxe bota dit galdera
 bueno oiloa nauzu orduan
 ez noa hoiek hartzera.
 Zuk esan dezu askoz alaio
 joaten dala komunera
 konturau gabe botako ditut
 igual komunetik behera.

O. Aizpurua

Popopopopo popopopopo
Azpin betiko ohitura
aukera ona eduki arren
dago beldurtu modura.
Bada hireak nik hartu eta
sartuko dizkit barrura
berriz oporrak hartuko dizkit
arrautza hauen kontura.

A. Azpiroz

Hain errexa're ez da ba hauek
aireportutik sartzea
eta alarmak jotzen badigu
eukiko degu trantzea.
Oier agian komeni zaigu
guri balantzan jartzea
bizitza hontan ez da komeni
hauts gehiegi harrotzea.

A. Labaka-A. Azpiroz

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13dle4>

Gaia: Sorosleak zarete biok, eta hondartza berean lan egin duzue elkarrekin uda osoan. Denboraldia bukatzeaz dagoen honetan, zuek zaintzen duzuen hondartzan aurten bi lagun ito direla oharturik, zuk, Ane, datorren urtean ez duzu lan horretan jarraitu nahi; Asirreak, ordea, jarraitu nahi du.

Neurria: Zortzikoa, berdinenaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Mendian gora haritza*

A. Labaka

Itsasoaren desditxa
 degu gu bion langintza
 itotakoak ahaztu nahiean
 itota gabiltza.
 Hauxe da nere baldintza
 eta ematen det hitza
 beraiengatik emango nuke
 neronen bizitza. (bis)

A. Azpiroz

Norbait dagonean grogi
 guk “Flotadorea tori”
 udara hontan esan diyogu
 asko ta askori
 batzuk igerian ongi
 ta asko behera erori...
 Langintza hontan hasi aurretik
 banekien hori. (bis)

A. Labaka

Itsasoak zenbat arau
 kolpeka egun eta gau
 gu bere kontra saiatu arren
 hark berean dirau.
 Ni jada penak ito nau
 eta egingo det barau
 ez nuen uste horren gogorra
 izango zenik hau. (bis)

A. Azpiroz

Behin baten bat eroriko
eta esan dezu “Kito!”
ze uste dezu zu ez zerala
inoiz ere hilko?
Ez zaite jarri kritiko
bizitza hau da txikito
eta ez zaitez haien olatu
berdinean ito. (bis)

A. Labaka

Ustez nuen nahiko dohai
ustez guztitarako gai
joan behar zen eta joanda
denontzako lasai.
Nahiz ta uretan egin blai
hilko naizela dakit bai
baina ez det inor nere eskutan
hiltzen ikusi nahi. (bis)

A. Azpiroz

Askotan igande goiza
izaten degu kaosa
baina oraindik ez zaizu pasa
hontako arroza.
Lanbidea aproposa
diruz ezin leike osa
norbait salbatzen degun orduan
hartzen degun poza. (bis)

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	Herria	Bertsolariak	or.
2013-01-04	AMURRIO	J. Maia, M. Lujanbio, A. Mendiluze, A. Egaña, A. Arzallus, S. Colina, U. Iturriaga eta A. Sarriegi	65
2013-01-05	OÑATI	M. Lujanbio, U. Iturriaga, A. Arzallus, A. Egaña, A. Mendiluze eta J. Soto	67
2013-01-15	OIARTZUN	J. Soto, A. Arzallus, J. Maia, M. Lujanbio, I. Elortzak, O. Barroso, Xamoa eta A. Egaña.	71
2013-01-18	GETARIA	J. Uria, J. Soto, M. Lujanbio, A. Estiballes eta A. Arzallus.	76
2013-01-20	MUNGIA	I. Elorza, U. Iturriaga, X. Paya eta A. Estiballes	82
2013-01-26	DONOSTIA	B. Gaztelumendi, E. Lekue, I. Elortza, M. Lujanbio, J. Maia, J. Uria, U. Alberdi, A. Egaña, E. Lazkoz, R. Crhisti, J.M. Irazu eta A. Solozabal	87
2013-02-15	URRUÑA	A. Arzallus, M.A. Txoperena, M. Artetxe eta E. Zelaia	96
2013-02-17	VILLABONA	A. Agirre, A. Egaña, M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Martin eta J. Soto	100
2013-02-22	LOIU	X. Paya eta A. Estiballes	102
2013-02-23	VILLABONA	U. Alberdi, A. Martin, J. Labayen eta A. Barandiaran	106
2013-03-08	TOLOSA	U. Alberdi, A. Martin, A. Agirreazaldegí eta M. Amuriza.	110
2013-03-09	ERMUA	A. Martin, On. Enbeita, U. Alberdi eta A. Agirreazaldegí	115
2013-03-16	GASTEIZ	Oihane Perea	120
2013-03-23	IRUÑEA	X. Silveira	121
2013-04-05	ZUMAIA.	M. Lujanbio, A. Egaña, J. Uria, A.M. Peñagarikano, O. Barroso eta U. Iturriaga	122
2013-04-11	DONOSTIA	M. Lujanbio eta A. Egaña	125

2013-04-19	GASTEIZ	U. Iturriaga, A. Arzallus, F. Paia, J. Uria, I. Viñaspre, J. Maia eta M. Lujanbio	129
2013-05-03	HENDAIA	O. Barroso, S. Colina, I. Elortza, A. Martin, M. Artetxe eta M. Sarasua	132
2013-05-04	LASARTE – ORIA	A. Egaña, J. Maia, U. Munoa, A. Labaka eta X. Paya	137
2013-05-05	OREXA	A. Mendiluze, S. Colina, A. Agirre eta J. Soto	140
2013-05-05	DONOSTIA	A. Sarriegi, A. Estiballes, A. Arzallus eta A. Egaña	146
2013-05-17	ZALLA	A. Martin, A. Egaña, J. Uria, A. Arzallus eta B. Amezaga	151
2013-06-15	USURBIL	S. Lizaso, A.M. Peñagarikano eta A. Agirre	155
2013-06-16 J.M. Irazu	EREÑOTZU	U. Iturriaga, M. Lujanbio, J. Soto, I. Zubeldia eta	160
2013-06-22	LONDON	J. Uria, X. Gallettebeitia eta Igor Elortza	168
2013-06-24	ANDOAIN	A. Mendiluze, S. Lizaso, A. Egaña, M. Amuriza, A. Martin eta O. Barroso	170
2013-06-27	ZARAUTZ	A. Egaña, A. Martin, A. Estiballes, I. Zubeldia eta O. Aizpurua	179
2013-06-27	ASTEASU	J.M. Irazu, J. Maia, M. Lujanbio eta A. Agirre	181
2013-06-29	MUNGIA	U. Alberdi, J. Maia, X. Paya eta S. Lizaso.	186
2013-06-29	LASARTE-ORIA	A. Labaka, B. Gaztelumendi, A. Azpiroz, P. Etxeberria, M. Lujanbio eta A. Egaña.	189
2013-07-07	LESAKA	X. Silveira, E. Fernandez, M. Lujanbio, A. Estiballes eta S. Lizaso	194
2013-07-11	IRUÑEA	M. Lujanbio, E. Lagoma, X. Silveira eta A. Martin	199
2013-07-12	ALEGIA	N. Elustondo, I. Elortza, J. Maia eta A. Arzallus	201
2013-07-16	MARKINA-XEMEIN	I. Ibarra, J. Maia, F. Paia eta B. Gaztelumendi	205
2013-07-19	ZUMAIA	J. Soto, S. Lizaso, I. Elortza, A. Mendiluze, S. Colina, J.M. Irazu, M. Lujanbio, E. Abasolo, U. Iturriaga, A.M. Peñagarikano, A. Agirre eta I. Zubeldia	212
2013-07-22	ZORNOTZA	O. Bartra, J. Soto, I. Zubeldia eta I. Elortza	219

2013-07-27	ARANO	A. Mendiluze, I. Zubeldia, J. Soto eta S. Lizaso	224
2013-07-27	VILLABONA	M. Lujanbio, A. Arzallus, I. Zubeldia, A. Egaña, J. Soto eta B. Gaztelumendi	228
2013-07-28	DONOSTIA	J. Soto, I. Zubeldia, B. Gaztelumendi eta A. Laburu	233
2013-08-02	ALTZO	U. Iturriaga, A. Arzallus, A. Egaña, J.M. Irazu, M. Lujanbio eta U. Muñoa	239
2013-08-03	ABADIÑO	U. Iturriaga, A. Egaña, M. Lujanbio eta I. Elortza	243
2013-08-07	AIA	M. Lujanbio, A. Arzallus, X. Paya, A. Estiballes, I. Zubeldia eta A. Egaña.	246
2013-08-09	GASTEIZ	S. Colina, A. Martin, M. Lujanbio eta M. Agirre	250
2013-08-13	LEITZA	A. Laburu, M. Lujanbio, J. Zelaia eta A.M. Peñagarikano	252
2013-08-20	BILBO	U. Alberdi, A. Iturriotz, O. Aizpurua eta I. Apalategi	255
2013-08-24	AMEZKETA	A.M. Peñagarikano, S. Lizaso, A. Estiballes, J. Soto eta X. Silveira	262
2013-08-25	BILBO	S. Lizaso, J. Soto, J. Uria eta A. Mendiluze	266
2013-09-06	ALKIZA	M. Lujanbio, U. Alberdi, A. Arzallus, J. Maia, A. Egaña eta S. Lizaso	270
2013-09-07	DONOSTIA	A. Mendiluze, B. Gaztelumendi, U. Alberdi, U. Iturriaga, S. Colina eta J. Soto	275
2013-09-08	ELORRIO	J. Uria, J. Maia eta T. Altube	281
2013-09-21	LESAKA	X. Silveira, J. Soto, E. Fernandez eta E. Lagoma	286
2013-10-12	LEKUNBERRI	J. Maia, A. Martin eta A. Arzallus	288
2013-10-19	TOLOSA	S. Lizaso, J. Soto eta I. Zubeldia	293
2013-11-07	IRUN	G. Aizpiolea, O. Barroso, M.A. Txoperena eta A. Karrika	298
2013-12-07	BAIGORRI	A. Egaña, M. Amuriza eta F. Paia	303
2013-12-15	BARAKALDO	A. Arzallus	308
2013-12-20	ZARAUZ	E. Lekue, O. Barroso, A. Agirreazaldeg, J.M. Juaristi, U. Iturriaga, A. Labaka, S. Alkaiza, S. Colina, A.M. Peñagarikano eta A. Laburu	309

2013-12-20	AZPEITIA	A. Arzallus, M. Lujanbio, J. Maia, B. Gaztelumendi, B. Lizaso eta A. Mendiluze	312
2013-12-27 Silveira	ARAMAIO	A. Arzallus, U. Iturriaga, P. Amilburu eta X.	315
2013-12-27	ELGOIBAR	On. Enbeita, I. Elortza, A. Egaña, A. Arzallus eta M. Lujanbio	319
2013-12-30	ORDIZIA	M. Lujanbio, U. Iturriaga, A. Arzallus, I. Elortza, A. Mendiluze, B. Gaztelumendi, A. Martin eta A. Sarriegi	325
2013-12-30	DURANGO	A. Egaña, A. Arzallus, M. Lujanbio eta U. Iturriaga.	330

BAT-BATEKO SARIKETAK

Data	Herria	Bertsolariak	or.
2013-03-22	AÑORGA	N. Gabilondo, F. Zubia, X. Sukia, A. Barandiaran, Mantxi eta I. Zelaia	334
2013-04-06	GABIRIA	N. Ibarzabal, N. Zinkunegi, J. Oiartzabal, I. Uria, I. Aleman eta P. Ormazabal.	340
2013-04-12	ETXARRI-ARANATZ	A. Iturriotz, J. Soto, A. Illaro, M.A. Txoperena, E. Gorosterrazu eta O. Arbina.	345
2013-04-19	OIARTZUN	A. Iturriotz, O. Aizpurua, M. Artola, M. Goiogana, M. Akizu eta Tx. Ormazabal.	349
2013-06-28	BERRIATUA	I. Uria, A. Zuazubizkar, P. Amilburu, M.A. Txoperena eta I. Vidal, J. Solozabal, N. Ibarzabal eta H. Mujika.	353
2013-09-06	ZARAUTZ	A. Labaka, A. Iturriotz, A. Azpiroz, E. Artetxe, O. Aizpurua	354

BERTSO-ALDI HAUTATUAK

KDan eta <http://bdb.bertsozale.com>

Plazaz plaza

1.	2013-01-04	AMURRIO	U. Iturriaga
2.	2013-01-05	OÑATI	M. Lujanbio-A. Mendiluze
3.	2013-01-06	OIARTZUN	I. Elortza-J. Maia
4.	2013-01-20	MUNGIA	X. Paya
5.	2013-01-26	DONOSTIA	B. Gaztelumendi-E. Lekue
6.	2013-01-26	DONOSTIA	J.M. Irazu-E. Lazkoz
7.	2013-01-26	DONOSTIA	U. Alberdi
8.	2013-02-15	URRUÑA	A. Arzallus-M. Artetxe
9.	2013-02-22	LOIU	X. Paya-A. Estiballes
10.	2013-03-08	TOLOSA	U. Alberdi-A. Martín
11.	2013-04-11	DONOSTIA	M. Lujanbio-A. Egaña
12.	2013-05-03	HENDAIA	O. Barroso-S. Colina
13.	2014-05-05	OREXA	A. Martín-M. Artetxe
14.	2013-05-05	DONOSTIA	A. Mendiluze-S. Colina
15.	2013-06-15	USURBIL	A. Agirre
16.	2013-06-15	USURBIL	A. Arzallus
17.	2013-06-24	ANDOAIN	A.M. Peñagarikano
18.	2013-06-27	ASTEASU	A.M. Peñagarikano
19.	2013-06-27	ASTEASU	S. Lizaso
20.	2013-06-29	LASARTE-ORIA	M. Amuriza-A. Mendiluze
21.	2013-07-12	ALEGIA	M. Lujanbio-J. Maia
22.	2013-07-16	MARKINA-XEMEIN	A. Agirre
23.	2013-07-19	ZUMAIA	B. Gaztelumendi
24.	2013-07-19	ZUMAIA	N. Elustondo-I. Elortza
25.	2013-07-22	ZORNOTZA	I. Ibarra-F. Paia
26.	2013-07-22	ZORNOTZA	A.M. Peñagarikano
27.	2013-07-27	ARANO	S. Colina
28.	2013-07-27	VILLABONA	A.M. Peñagarikano
29.	2013-07-27	VILLABONA	I. Zubeldia
30.	2013-07-28	DONOSTIA	I. Elortza-J. Soto
31.	2013-08-02	ALTZO	J. Soto
32.	2013-08-03	ABADIÑO	S. Lizaso-I. Zubeldia
33.	2013-08-07	AIA	J. Soto-I. Zubeldia
			B. Gaztelumendi
			A. Laburu-J. Soto
			U. Iturriaga, A. Arzallus,
			A. Egaña, J.M. Irazu,
			M. Lujanbio eta U. Muñoa.
			U. Iturriaga-I. Elortza
			A. Estiballes

34.	2013-08-13	LEITZA	M. Lujanbio-A. Laburu
35.	2013-09-06	ALKIZA	A. Egaña-A. Arzallus
36.	2013-09-07	DONOSTIA	S. Colina-U. Iturriaga
37.	2013-09-08	ELORRIO	J. Maia
38.	2013-10-12	LEKUNBERRI	A. Martin
39.	2013-10-12	LEKUNBERRI	J. Maia-A. Arzallus
40.	2013-10-19	TOLOSA	S. Lizaso
41.	2013-12-07	BAIGORRI	M. Amuriza-A. Egaña
42.	2013-12-20	ZARAUTZ	S. Colina-A. Labaka
43.	2013-12-20	AZPEITIA	M. Lujanbio-A. Arzallus
44.	2013-12-27	ELGOIBAR	M. Lujanbio-On. Enbeita
45.	2013-12-30	ORDIZIA	A. Arzallus-A. Sarriegi

BAT-BATEKO SARIKETAK

46.	2013-03-22	DONOSTIA	Mantxi-N. Gabilondo
47.	2013-03-22	DONOSTIA	X. Sukia
48.	2013-04-06	GABIRIA	N. Ibarzabal-I. Uria
49.	2013-04-12	ETXARRI-ARANATZ	J. Soto-A. Iturriotz
50.	2013-06-28	BERRIATUA	H. Mujika
51.	2013-09-06	ZARAUTZ	O. Aizpurua-A. Azpiroz

LIBURUAN BERTSORIK DUTEN BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A.	100 (B), 140 (BI), 184 (B)
Agirre, M.	250 (B)
Aizpurua, O.	257 (BI), 352 (B), 354 (BI)
Alberdi, U.	94 (B), 106 (BI), 110 (BI), 115 (BI), 186 (BI), 255 (B), 257 (BI), 277 (BI)
Amuriza, M.	174 (BI), 303 (BI)
Apalategi, I.	257 (BI)
Artetxe, M.	96 (BI), 132 (BI)
Artola, M.	349 (BI)
Arzallus, A.	76 (BI), 80 (B), 96 (BI), 146 (BI), 149 (B), 239 (BI), 275 (BI), 290 (BI), 308 (H), 312 (BI), 315 (BI), 327 (BI)
Azpiroz, A.	354 (BI), 356 (BI)
Barroso, O.	132 (BI), 298 (BI), 301 (B)
Colina, S.	132 (BI), 140 (BI), 144 (B), 212 (BI), 275 (BI), 309 (BI)
Egaña, A.	125 (BI), 137 (BI), 151 (BI), 236 (BI), 270 (BI), 303 (BI), 330 (BI)
Elortza, I.	71 (BI), 168 (B), 201 (BI), 219 (BI), 243 (BI), 319 (BI)
Elustondo, N.	201 (BI)
Enbeita, On.	115 (BI), 319 (BI), 322 (BI)
Estiballes, A.	82 (BI), 102 (BI), 179 (B), 248 (B), 262 (BI)
Etxeberria, P.	191 (BI)
Gabilondo, N.	334 (BI)
Gaztelumendi, B.	87 (BI), 189 (B), 208 (BI), 231 (B), 236 (BI)
Goigana, M.	349 (BI)
Ibarra, I.	205 (BI)
Ibarzabal, N.	340 (BI), 342 (BI)
Irazu, J.M.	90 (H), 160 (BI), 165 (BI), 239 (BI)
Iturriaga, U.	65 (B), 122 (BI), 129 (BI), 160 (BI), 239 (BI), 243 (BI), 275 (BI), 325 (B), 330 (BI)
Iturriotz, A.	257 (BI), 345 (BI)
Karrika, A.	298 (BI)

Labaka, A.	191 (BI), 309 (BI), 356 (BI)
Laburu A.	233 (BI), 252 (BI)
Lagoma, E.	286 (B)
Lazkoz, E.	90 (H)
Lekue, E.	87 (BI)
Lizaso, S.	155 (BI), 194 (BI), 224 (BI), 293 (BI), 297 (B)
Lujanbio, M.	67 (BI), 73 (BI), 76 (BI), 122 (BI), 125 (BI), 129 (BI), 160 (BI), 181 (BI), 198 (BI), 239 (BI), 246 (B), 252 (BI), 312 (BI), 322 (BI)
Maia, J.	71 (BI), 129 (BI), 181 (BI), 208 (BI), 273 (B), 281 (BI), 284 (B), 290 (BI)
Mantxi	334 (BI), 338 (B)
Martin, A.	106 (BI), 110 (BI), 132 (BI), 151 (BI), 288 (B)
Mendiluze, A.	67 (BI), 140 (BI), 174 (BI), 266 (BI), 268 (BI)
Mujika, H.	353 (B)
Muñoa, U.	137 (BI), 239 (BI)
Paia, F.	205 (BI)
Paya, X.	82 (BI), 85 (B), 102 (BI), 186 (BI)
Peñagarikano, A.M.	155 (BI), 158 (B), 212 (BI), 215 (BI)
Perea, O.	120 (H)
Sarriegi, A.	146 (BI), 327 (BI)
Silveira, X.	121 (H), 194 (BI), 198 (BI), 262 (BI), 315 (BI)
Soto, J.	73 (BI), 219 (BI), 222 (B), 228 (BI), 233 (BI), 236 (BI), 277 (BI), 293 (BI), 345 (BI)
Sukia, X.	336 (B)
Uria, I.	342 (BI)
Uria, J.	122 (BI), 266 (BI), 281 (BI)
Zinkunegi, N.	340 (BI)
Zubeldia, I.	165 (BI), 215 (BI), 224 (BI), 228 (BI), 293 (BI)

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(H): Gainerako ariketak

(GL): Gai librean egindako saioa.

IZEN ETA IZENGOITIEN DESKRIBAPENA

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, M.	Manex Agirre Arriolabengoa	Aramaio
Agirreazaladegi, A.	Ainhoa Agirreazaladegi Rekondo	Elgeta
Aizpurua, O.	Oier Aizpurua Olaizola	Zarautz
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Apalategi, I.	Iñaki Apalategi Astigarraga	Beasain
Artetxe, E.	Eneritz Artetxe Urresti	Gernika
Artetxe, M.	Miren Artetxe Sarasola	Lasarte
Artola, M.	Mikel Artola Izagirre	Alegia
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Azpiroz, A.	Asier Azpiroz Iztueta	Donostia
Barroso, O.	Odei Barroso Gomila	Urruña
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruña
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Elustondo, N.	Nerea Elustondo Plazaola	Legazpi
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Etxeberria, P.	Patxi Etxeberria Zubiria	Orio
Gabilondo, N.	Nahikari Gabilondo Mendizabal	Zarautz
Galletabeitia, X.	Xabat Galletabeitia Abaroa	Lekeitio
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Goiogana, M.	Manu GoioganaBengoetxea	Irun
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Ibarzabal, N.	Nerea Ibarzabal Salegi	Markina- Xemein
Igoa, X.	Xabier Igoa Eriz	Aramaio
Illaro, A.	Arrate Illaro Etxebarria	Getxo
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango

Iturriotz, A.	Amaia Iturriotz Etxaniz	Urretxu
Iturriotz, M.	Mikel Iturriotz Etxaniz	Urretxu
Karrika, A.	Aimar Karrika Iribarren	Auritz
Labaka, A.	Ane Labaka Mayo	Lasarte
Labayen, J.	Jokin Labayen Iraeta	Arrasate
Laburu, A.	Agin Laburu Rezola	Astigarraga
Lagoma, E.	Erika Lagoma Pombar	Lesaka
Lazkoz, E.	Eneko Lazkoz Martinez	Etxarri-Aranatz
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Mantxi	Iñigo Mantzizidor Larrañaga	Zarautz
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Mujika, H.	Haritz Mujika Lasa	Asteasu
Muñoa, U.	Unai Muñoa Amundarain	Berrobi
Oiartzabal, J.	Josu Oiartzabal Zapirain	Errenteria
Ormazabal, P.	Peio Ormazabal Villanueva	Arrigorriaga
Ormazabal, Tx.	Txaber Ormazabal Villanueva	Arrigorriaga
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz "Fredri"	Algorta (Getxo)
Paya, X.	Xabier Paya Ruiz	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Perea, O.	Oihane Perea Perez de Mendiola	Gasteiz
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Silveira, X.	Xabier Silveira Etxeberria	Lesaka
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Gorriti
Sukia, X.	Xabier Sukia Etxeberria	Orio
Txoperena, M. A.	Maddi Ane TxoperenaIribarren	Hendaia
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Uria, I.	Imanol Uria Albizuri	Getxo
Vidal, I.	Inazio Vidal Gurrutxaga	Getxo
Viñaspre, I.	Iñaki Viñaspre Simon	Gasteiz
Xamoa	Arkaitz Oiartzabal Agirre	Oiartzun
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Zinkunegi, N.	Nekane Zinkunegi Barandiaran	Errezil
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Katarain	Zegama

